



**Ibaizabal Ikastolaren
ANTOLAMENDU- ETA
JARDUERA-ARAUDIA**

ANTOLAMENDU- ETA JARDUERA-ARAUDIA

1. SARRERA	3
1. Oinarriak.....	3
2. Helburuak.....	4
3. AJAren ezagutza eta hedapena.....	4
4. AJA eraberritzea.....	5
2. IKASTETXEAREN ANTOLAMENDUA ETA PARTE-HARTZERAKO ORGANOK	6
2.1. Kide anitzeko organoak.....	6
2.1.1. Batzar Orokorra.....	6
2.1.2. Artezkaritza-kontseilua.....	7
2.1.3. Zaintza-batzordea.....	9
2.1.4. Eskola-kontseilua.....	10
2.1.5. Irakasleen Klaustroa.....	10
2.1.6. Zuzendaritza-taldea.....	11
2.1.7. Ikasle-kontseilua.....	12
2.1.8. Ikasleen elkarteak.....	13
2.2. Lagun bakarreko organoak.....	13
2.2.3. Bazkideak.....	13
2.2.1. Artezkaritza-kontseiluko kide bakarreko karguak.....	14
2.2.2. Zuzendaria.....	14
2.2.3. Ikasketa-burua.....	15
2.2.3. Idazkaria.....	15
3. IRAKASLEAK. IRAKASLE-TALDEA. IRAKASLE ARDURADUNAK / EBALUAZIOA ETA PROMOZIOA	16
3.1. Irakasleak.....	16
Irakasle-tutorea, Irakasle orientatzailea, Irakasle- taldeak: Mintegiak, Proiektu-arduradunak: IKT arduraduna eta ikus-entzunezko baliabideen arduraduna, garraioaren arduraduna, jantokiaren arduraduna, Lan-arriskuen prebentziorako arduraduna, Lantokiko prestakuntzako irakasleak, Agenda 30eko (Jasangarritasunerako) irakasle koordinatzailea, e.a.	
3.2. Gainditu gabeko irakasgaiak.....	22
3.3. Ebaluazioa eta promozioa.....	22
Batxilergoa. Heziketa-zikloak.	
4. IKASTETXEAREN ANTOLAKETA	24
Hezkuntza-komunitateko kideen arteko harremanak.....	24
Gelak.....	25
Sarrerak eta irteerak.....	25
Puntualtasuna.....	26
Bertaratzea eta hutsegiteen kontrola.....	26

Korridoreak, eskailerak eta igarobide komunak.....	26
Komunen erabilera.....	27
Atsedendiak. Patioak.....	27
Gailu digitalen erabilera.....	27
Botikak ematea.....	31

5. > ERANSKINA:

32

BIZIKIDETZA: IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK >>> [+ikus 60. orrialdetik aurrera](#)

Xedapen orokorrak.....	32. orrialdea
5.1. I kapitulua: Ikasleen eskubide eta betebeharrak.....	33. orrialdea
5.1.1. 1go. Atala: Ikasleen eskubideak.....	33. orrialdea
5.1.2. 2. Atala: Ikasleen betebeharrak.....	40. orrialdea
5.2. II Kapitulua: Desegokiak eta aurkakoak diren nahiz bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak eta horien zuzenketa.....	42. orrialdea
5.2.1. 1go. Atala: Xedapen orokorrak.....	42. orrialdea
5.2.2. 2. Atala: Jokabide mota desberdinak.....	42. orrialdea
5.2.3. 3. Atala: Hezkuntzako neurri zuzentzaileak.....	45. orrialdea
5.3. III. Kapitula: Jokabide desegokiak zuzentzeko bide alternatiboak.....	48. orrialdea
5.4. IV. Kapitulua: Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedurak.....	50. orrialdea
5.4.1. 1go. Atala: Xedapen orokorrak.....	50. orrialdea
5.4.2. 2. Atala: Jokabide desegokiaren zuzenketa.....	51. orrialdea
5.4.3. 3. Atala: Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko ohiko prozedura.....	52. orrialdea
5.4.4. 4. Atala: Ohiz kanpoko prozedura.....	54. orrialdea
5.5. Xedapen gehigarriak.....	57. orrialdea
5.6. Xedapen iragankorrak.....	59. orrialdea

1. SARRERA

Ikastetxeko Antolaketa eta Jarduera Araudiak funtsezko agiria izan behar du haren funtzionamendu osorako ezinbestekoa den neurrian. Horrexegatik, indarrean dauden legeek bermaturiko eskubideak errespetatu beharko ditu, eta, halaber, Ikastolaren komunitatea osatzen duten estamentuen arteko bizikidetzaren arauak eta antolaketa-alderdi guztiak xedatu beharko ditu. Horrela, AJA Antolaketa, Jarduera eta Bizikidetzari buruzko xehetasun guztiak arautuko dituen ezinbesteko erreferentzia izango da. Hori da honako dokumentuaren borondatea.

Estatus juridikoari dagokionez, irabazi-asmorik gabeko kooperatiba da Durangaldeko Ibaizabal, Eusko Jurlaritzak onura publikoko izendatuta dauka eta Bizkaiko Foru Aldundiak lehentasunezko zat jotzen du gure kooperatibak egiten duen jarduera.

1. OINARRIAK

- Indarrean dagoen araudia errespetatu, Eusko Jurlaritzako Hezkuntza sailak EA Erako egindako Hezkuntza Legea, Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua, Euskal Herriko Ikastolak EK Eren Estatutuak, Euskadiko Kooperatiben Legea... Beraz, aurrekoaren ondorioz, txosten honen izaera dinamikoa izan beharko da derrigor, ingurune aldakorrak (maila guztietan) antolaketa eta funtzionamendu aldakorra izan behar dituelako alboan, etengabe egokituko zaiona.

- Hezkuntza-komunitatearen arlo guztien parte-hartzea. Partaidetza sozialeko enpresa-kultura sustatzea.
- Finkatutako helburuekiko interes komunak izan ditzaketenekin estrategiak bultzatzea eta garatzea.
- Hezkuntza-mugimendu kooperatiboa indartzea eta zabaltzea.
- Araudiaren onarpenarekin bat etortzea.
- Hezkuntza-komunitatearen kide guztien bermatzaile izan, beren eskubide eta betebeharren egikaritzan.
- Hezkuntza-komunitatearen kideen partaidetza, beren ordezkarien bidez, Gobernu-organoetan, elkarteetan zein batzordeetan.
- Zigor-neurrien izaera hezitzailea, zeintzuek ikasleen prestaketa-prozesu orokorrean eragin positiboa izan behar duten.
- Ikastetxean ikasleek hezkuntzarako duten eskubidea bermatzea. Euskal Herriko pertsona guztiei, jaiotzen direnetik eta adinean mugarik gabe, hezkuntza-zerbitzu anitza eskaintzea da kooperatiba honen helburua, Estatutuetan xedatuta daukanaren arabera.
- Edozein diskriminazio-mota saihestea (prebenitzea) eta, hala dagokionetan, esku-hartzeak bideratzea.

2. **HELBURUAK**

Aurretik zehaztutako oinarrien arabera, funtsean, honako helburu orokorrak aitortu eta esleitzen dizkiogu geure buruari, besteak beste.

- Ikastetxearen antolaketa, funtzionamendua eta bizikidetza arautzen duten legeak eta parekoak ezagutu, zehaztu eta betetzea nahiz betearaztea.
- Araudian zehaztugabeko alderdiak arautzea.
- Partaidetza bultzatzea.
- Informazio-bideak ezartzea. Informazio-eskubidea dute partaide eta bazkidek, baina eskubide horrek mugak eta bermeak ere baditu, Estatutuetan ezarrita dagoenaren arabera (14. artikuluan).
- Baliabideen erabilera egokia suspertzea.
- Bizikidetza eta diziiplina arautzea (horretarako aparteko dokumentuak ditu Ibaizabal Ikastolak).
- Lanerako giro bidezko eta aproposa indartzea.
- Hezkuntza-komunitatea osatzen duten alderdi ezberdinen arteko harremanak arautzea.
- Zigor-neurriak ekidin eta bizikidetzarako eta auto-arduratuko esparruak lortzea.

3. **AJA HEDATZEA ETA EZAGUTZERA EMATEA**

- AJA Hezkuntza-komunitateko kide guztiek ezagutzea komeni da, nork bere egin dezan.
- Artezkaritza-batzordea, Zuzendaritza-taldea, Saileko buruak eta tutoreak arduratuko dira AJA Hezkuntza-komunitateko kide guztiek ezagut dezaten, askoren artean.
- Ikastetxeko Idazkariak AJAren kopiak gordeko ditu, hala nahi izanez gero, Hezkuntza-komunitateko edozein kidek eskuragarri izan ditzan.
- Tutoretza-saioetan bizikidetza- eta funtzionamendu-arauen oinarrizko alderdiak zabaltzen jardungo dira tutoreak.
- Familiekin egindako bileretan komenigarritzat jotzen diren AJAren araudiaren xedapenak komentatuko dira.

4. AJA ERABERRITZEA

- AJA agiri dinamikoa izanik, aldaketak jasan ditzake.
- AJAn egin daitezkeen aldaketetan, berau sortzean erabilitako prozedura berbera jarraituko da ahal dela, hau da:
 - ✓ Aldaketarako proposamena edota arau berriak sartzekoa, ondoko hauek eskatuta:
 - ✓ Klaustroko kideen herenak.
 - ✓ Eskola-kontseiluko kideen herenak.
 - ✓ Artezkaritza-kontseiluak.
 - ✓ Zuzendaritza-taldeak.
 - ✓ Proposamena egiten dutenek txosten idatzi bat eman behar dute proposamenaren justifikazio zehatzarekin. Argi eta garbi adierazi behar da zer alderdi aldatu behar diren.
 - ✓ Artezkaritza-kontseiluak erredakzio berriari onespena eman beharko dio, gehiengo osoz. Gaien izaeraren arabera, noski, Bazkideen Batzarrarena izango da gaiak onartzeko ala atzera botatzeko eskumena. Erabakia Batzar Orokorrak hartuko du, bertan dauden eta ordezkaturik dauden boto baliodunen gehiengoz.

DURANGALDEKO IBAIZABAL, KOOP.ELK. izenarekin, sozietate kooperatibo bat dago eraturik, Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legean. Irabazi-asmorik gabekoa da eta Onura Publikodun izendapena du.

Hezkuntza-proiektuan ditu jasota identitate-printzipioak. Ibaizabal, inguruko ekonomia eta hezkuntzaren suspertzaile izateko sortu zen, baita hezkuntzan eta lan-munduan kultura berri bat zabaltzeko asmoz ere. Hori luke misioa. Eta euskara komunikatze-hizkuntza izanda, betiere. Ikasleei heziketa egokiena eskaini nahi diegu, pertsona moduan beren osotasunean heldu eta garatu daitezen. Ikastola bazkideekin eta ikastolen taldearen baitan jardunda. Euskalduna, eleanitza, herriarekin eta ingurune naturalarekin konprometitua, inklusiboa, hezkidea, hezkuntza integrala bultzatzen duena, parte-hartzailea... izan nahi du.

Era berean, Batxilergoko eskaintza kompetentea eskaintzea, ikasleak hurrengo ikas-etaparako eta bizitzarako ongi prestatuta atera daitezen; Lanbide-heziketako ikasleen lan-aukerak zabaltzeko moduko irakaskuntza eskaintzea; Ikastolaren irudia indartzea; egonkortasuna eta kudeaketa eragingarria ziurtatzea; partaidetza; berrikuntza eta komunikazioa bezalako ildo estrategikoak ahalbidetzerako bideratuta egon behar du gure antolaketak eta funtzionamenduak, bistan denez.

► Batetik, Batxilergoko eta Lanbide-heziketako eskaintza kompetentea eskaintzea da gure xedea, bizitzarako ongi prestatutako pertsonak hezteko, kompetentzietan oinarritutako ikasketa-prozesu integrala burutuz.

Bizitzarako kompetenteak izango diren ikasleak heztea Ibaizabal Ikastolan definitua dugun ikaslearen irteera-profilekin dago guztiz lotuta. Irteera-profileko ezaugarrietako bakoitza ikasgaien bidez, Ikastolako proiektuen bidez eta Ikastolan egiten ditugun proiektuen bidez gorpuztu behar dugu ikasleengan.

► Bestetik, hurrengo ikasketetarako, lan-mundurako eta gizartean modu espezifikoan eragiteko ikasle kompetenteak heztea da ildo estrategiko honen bigarren xede nagusia.

• Jakintza-arlo espezifikoaren gainean ikasle kompetenteak hezten ari ote garen ebazteko, emaitza akademikoak izango dira adierazle onak (kalifikazioen bilakaera, promozio-datuak, espedientea, USE, emaitza erlatiboak, emaitza ahulen azterketa, aniztasunaren trataera).

-Diziplinetan konpetentzietan oinarritutako metodologia beharko dugu ezarrita horretarako, konpetentzia espezifikoen eta ikasle-profilaren –bien– gaineko planifikazioa, lanketa eta ebaluazioa egiteko diziplina bakoitzaren baitan eta diziplinartean ere bai.

-Horrez gain, ikasle bakoitzaren beharrian espezifikoei erantzuteko gai diren planifikazio, metodologia eta neurriak ere izan beharko dituzte txertatuta diziplinek: hezkuntza-errefortzuak, Unibertsitaterako sarbide-azterketa prestatzeko eskolak, emaitzak hobetzeko aukerak eta abarrak eskura jartzen jarraitzea ikasleei.

-Azkenik, metodologiaren gaineko etengabeko balorazioa eta hobekuntza sustatu beharko dugu.

Diziplina guztietarako konpetentzietan oinarritutako metodologia planifikatuta dugu, baina horretan jarraitu beharra dago (LOMLOEren markoaren baitan): diziplina bakoitzarentzat konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak, irteera-profilarekin loturak, oinarritzko edukiak, konpetentzietan oinarritutako programazio-ereduak, azterketa-ereduak, talde-lan ereduak... Diziplinarteko jardueren bidez aldi berean diziplina desberdinetako konpetentzia espezifikoak landu eta ebaluatu behar ditugu. Diziplinarteko jarduerak berregin behar ditugu lege-testuinguru berrira egokitzeko, eta praktikan jarri (etengabe doituz eta hobetuz, helburuak areago betetzeko).

- Akademikoki zein profesionalki ongi orientatutako ikasleak hezten ari ote garen ebazteko, tutorizazioa eta orientazioa dira gure adierazleak.

Tutoretza-plan eragingarria diseinatu behar dugu etapa guztiko perspektibari erantzuteko eta baita maila bakoitzerako ere, ikasleak ikasketa-prozesuan laguntzeko (nola Batxilergoan, hala Lanbide-heziketan).

Etaparen osoa barnebiltzen duen orientazio-plan sendoa diseinatzea, ikasleei bizitzako erabakiak hartzen laguntzeko baliabideak helarazteko. Helburu hau lortzeko, Ibaizabal Ikastolan Bidera proiektua dugu Batxilergoko 1. mailako 3. ebaluazio guztian (erronka modura) eta orientazio espezifikoa Batxilergoko 2. mailan (saioak, ikasle ohien bisitak, adituen hitzaldiak, jarduerak kanpora...). Lanbide-heziketako Zikloetan ere garrantzia handiko gaia da orientazioa, bereziki lan-merkatutzeko aukera dutelako ikasleek.

Zalantzarik ez dago ezinbestekoa dela orientatzea, ikasleei laguntza eta aholkularitza emateko jakitera irits daitezen etorkizunean zertan trebatu nahi diren eta beren bizitza profesionala zertara bideratu nahi duten zehazki. Era berean, dituzten aukera ugarien gainean ahal bezainbeste informazio izan dezaten garrantzitsua da, “inork ez baitu ikastea aukeratzen ezagutzen ez duen hori”, adituek dioten moduan. Horregatik, Ibaizabal Ikastolan, norik bere burua maila honetan hobeto ezagutzeko bitartekoak jartzen ditugu urtero gure ikasleen esku, orientatu egiten ditugu sistematikoki eta hainbat modutan, eta lanbide- nahiz eta ikasketa-aukerez informazioa jartzen diegu beren esku.

2. IKASTETXEAREN ANTOLAMENDUA ETA PARTAIDETZA-ORGANOAK

2.1. KIDE ANITZEKO ORGANOAK

2.1.1. BATZAR OROKORRA:

Bazkideen bilera da Batzar Orokorra, bere eskuduntzako gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko erantza. Ordezkaritza-organo Gorena (OOG) da berau Ibaizabal Ikastolan. Batzarrak ezohikotasunez ere dei daitezke.

Batzar Orokorrari dagokio eskola-bizitzarako funtsezkoak diren erabakiak hartzea, eta ikastetxearen autonomia-esparruan, ikastetxearen jardunean azken erantzulea da. Batzar Orokorraren akordioa ezinbestekoa izango da indarreko legeriak aurreikusten dituen erabakiak eta, edonola ere, hurrengo alorretakoak hartzeko:

- a) Isilpeko botoz, Kooperatibako administratzaileak eta likidatzaileak izendatu eta kargugabetzea eta horien guztien aurkako erantzukizun-ekintzak egikaritzea.
- b) Kontu-ikuskariak izendatu eta kargugabetzea; azken hau, bidezko arrazioa denean bakarrik.
- c) Kudeaketa soziala aztertzea, eta Urteko kontuak eta soberakinen banaketa edo galeren egozketa onestea.
- d) Derrigorrezko ekarpen berriak erabakitzea; kapital-ekarpenek sortuko dituzten interesak finkatzea, baita sarrerako edo aldizkako kuotak ere.
- e) Obligazioak, partaidetza-tituluak edota partaidetza bereziak jaulkitzea.
- f) Estatutu Sozialak aldatzea.
- g) Bigarren mailako kooperatibak, kooperatiba-korporazioak eta antzeko erakundeak sortzea eta horiekin elkartu edo horiengandik banatzea.
- h) Bigarren mailako kooperatibak, kooperatiba-korporazioak eta antzeko erakundeak sortzeko eta, era berean, horrelakoekin elkartu edo bereiztearen ahalmena Artezkaritza Kontseiluaren esku uzten da, baldin eta erabaki horiek Kooperatibaren ekonomia, antolamendu edo funtzio-egituraren funtsezko aldaketarik benetan eragiten ez badute.
- i) Sozietatearen bategite, zatitze, eraldatze eta desegitea.
- j) Kooperatibaren ekonomia-, antolamendu- edo funtzio-egituraren funtsezko aldaketa eragiten duen beste edozein erabaki, honako hauek barne:
 - kooperatibaren aktiboen erdia baino gehiago saldu edo eskualdatzea;
 - kooperatiba eraldatzea, sozietate zibila zein merkantila bihurtzeko;
 - kooperatibaren xedea aldatzea, kooperatibaren sorreran oinarritu zituzten jarduerak desagertu behar diren neurrian;
 - kooperatiba honek kudeatzen duen ikastetxearen izaera pribatua aldatzea;
 - eta kooperatibaren jarduera lagatzea.
- k) Kooperatibaren Barne-araudiaren onespina edo aldaketa.
- l) Legeak hala xedatzen dituen beste erabaki guztiak.

Ohiko nahiz Aparteko Batzarretarako deialdiak, berauen funtzionamendua, osaera eta boto-eskubidea, eta bertako gehiengoaren kontsiderazioa zein den kooperatibaren Estatutuetako 34., 35., 36. eta 37. artikuluetan datoz xedatuta hurrenez hurren, beraz, ez ditugu dokumentu honetan errepikatuko. Dena den, osaerari dagokionez, komeni da zehaztea 3 motako bazkideak dituela Ibaizabal Ikastolak: Kooperatiba-bazkideak (Kooperatiba-bazkide bakoitzeko Artezkaritza Kontseiluak izendatzen dituen ordezkariak), Bazkide laguntzaileak eta Bazkide erabiltzaileak.

Batzarraren erabakiak, bertan direnek edo ordezkaturik daudenek balioz emandako botoen gehiengo soilez onetsiko dira, indarreko legeriak edo Estatutuek gehiengo indarturik eskatzen ez badute behintzat.

2.1.2. ARTEZKARITZA KONTSEILUA:

Artezkaritza Kontseilua Kooperatibaren ordezkariak, gobernu eta kudeaketarako organoa da eta ahal dela hilean behin elkartuko da, edo beharrezkotzat jotzen den maiztasunarekin. Organo honek dagozkion ahalmen guztiak izango ditu, Legeak edo kooperatibaren Estatutuek bestelako organo sozialei egozten dizkietenak izan ezik. Edonola ere, Artezkaritza Kontseiluak Kooperatibaren jarduerarako norabide nagusiak zehazteko eta indarreko legeriak eta Estatutuek egozten dizkieten gainontzeko ekintza guztiak gauzatzeko ahalmena dauka.

Artezkari-tza Kontseiluari dagokion ordezkari-tza printzipioz bertako Lehendakariak hartuko du bere gain, Artezkari-tza Kontseiluak bestelakorik erabakitzen ez badu.

Artezkari-tza-kontseiluko kideen erdia baino gehiago bilerara agertzen direnean osatuko da organo hori baliozkotasunez. Pertsonala eta eskuordetu ezinezkoa da Kontseiluaren bileretara joateko betekizuna; ezin da ordezkari-tza bidali, eta bilera bertan aurrez aurre zein kanpotik konektatuta dauden kontseilarien gehiengo sinplez hartuko dira erabakiak. Ez dira zenbatuko ez boto zuriak, ez abstentzioak. Boto bat izango du kontseilari bakoitzak.

Bere eskuduntzen barnean, Artezkari-tza Kontseiluak hartutako erabaki guztiak bete beharrekoak dira, bai "DURANGALDEKO IBAIZABAL, KOOP. ELK."-ko, bai Kooperatiba-bazkideetako pertsona eta organoentzat. Lehendakariari dagokio bilera zuzentzea eta legezko nahiz estatutuzko arauak bete daitezen zaintzea.

Kooperatiben eta Batzar Orokorraren ordezkari-tzaz "DURANGALDEKO IBAIZABAL KOOP. ELK."-ko Artezkari-tza Kontseiluak ahalmen zabala du enpresa-kudeaketa eta erabakien alorretan. Taldeko Artezkari-tza Kontseiluari hurrengo berari-tzako ahalmenak dagozki:

- a) Kooperatiba-bazkideen onarpen eta bajak proposatzea eta beste bazkideen onarpen eta bajak erabakitzea, Estatutuetan aurreikusitakoaren arabera.
- b) Era guztietako ekintza eta kontratuetan, batez ere partaide den erakundeetako Batzar Orokorreran, Kooperatibaren ordezkari izatea, erabateko erantzukizuna bereganatuta.
- c) Zuzendari Nagusia izendatzea. Era berean, kargugabetzea eta beren ahalmenak, betebeharrak eta ordainsariak zehaztea.
- d) Kualifikazio handiko langile tekniko edo ikerlarien baldintza ekonomikoak hitzartzea eta lanerako baldintzak eta moduak xedatzea.
- e) Kooperatibaren funtzionamendua antolatu, zuzendu eta ikuskatzea eta Kooperatibaren Barne-araudia eta honen aldaketak Batzar Orokorrari proposatzea.
- f) Estatutuetako eta Araudietako betebeharrak zuzen aplikatzeko edota Batzar Orokorrak hartutako erabakiak betearazteko beharrezkoak diren arautegi funtzionalak onestea eta, bestalde, Estatutuek edo Kooperatibaren Barne Araudiak aurreikusitako arautegi instituzionalak eta, duten garrantziagatik, Batzar horren erabakipean jarri behar diren beste guztiak Batzar Orokorrari aurkeztu eta proposatzea.
- g) Helburu soziala bete ahal izateko beharrezkoak edo bidezkoak diren egintzak burutu eta kontratuak egitea, ondasun higiezin eskurapen edo besterentzeari, eskubide errealak eratzeari -hipotekakoa bera eta alogerako eskubide berezia barne- dagozkionak salbuetsi gabe, eta Estatutuek Kooperatibari onartzen dizkioten era guztietako negozio eta eragiketak gauzatzea.
- h) Batzar Orokorrak erabakitako interesen ordaintze-data zehaztea.
- i) Kooperatibari komeni dakizkioken kreditu, mailegu edo sinadura bermatzeko eragiketak erabakitzea, ahalmen hau Batzar Orokorrari soilik ez badagokio, behintzat.
- j) Erakunde publiko eta pribatuen aurrean abal ematea, eta zuzenbidean onartutako era guztietako tituluak -zor publikoak, balore higigarri edo higiezinak- erosi, saldu, harpidetu eta gordailatzea eta, bidezko deritzon eran, afektatu ere egin ditzake.
- k) Ekarpinak harpidetzeko eta Bonuak, nahiz Obligazioak jaulkitzeko beharrezkoa zer den zehaztea, Batzar Orokorrak erabakitakoaren arabera.
- l) Fondo erabilgarrien, Erreserbakoen eta Hezkuntza- eta Kooperatiba-sustapeneko inbertsio zehatza erabakitzea, Batzar Orokorrak erabakitakoa aintzat hartuta. Aurrekontuak osatu, gastuak baimendu eta Kooperatibaren ahaldundu eta ordezkariak izendatzea, kasu bakoitzean komenigarri iruditzen zaizkion ahalmenak emanez.
- m) Urtean behin, Ohiko Batzar Orokorrari enpresa-kudeaketari dagozkion Urteko Kontuak aurkeztea eta soberakin garbien banaketa edo, hala balegokio, galeren egozketa proposatzea.
- n) Ohiko eta Aparteko Batzar Orokorrerara dei egitea eta bertako erabakiak betearaztea.

ñ) Epaitegi eta Auzitegi arrunt edo berezien eta Estatu, Lurralde-Administrazio Autonomo, Probintzia edo Udalbarrutiko bulego, agintari, korporazio edo organismoen aurrean Kooperatibari dagozkion eskubide edo akzioak egikaritzeko komenigarri iruditzen zaiona erabakitzea, baita errekurtsio arrunt eta apartekoak jartzeari buruz ere. Honetarako ordezkari, prokuradore edo abokatuak izenda ditzake kooperatibaren ordezkaritza eta defentsa egiteko, eta pertsona hauei, behar den eran, ahalmenak emango dizkie adiskidetze, espediente, auzi, erreklamazio, errekurtsio edo bestelako jarduketatan eta edozein prozedura-egoeratan bat etorri edo bertan behera uzteko, prozedura geldiaraztea eskatzeko eta beharrezko izan litekeen guztirako, baita zabaltasun osoz judizialki amore emateko ere.

o) Sozietateko fondo eta ondasunak erabiltzea. Erreklamatu, hartu eta kobratzea bai partikularrei, bai bulego publikoei ere, Kutxa Orokorrean gordailuak sortuz edo bertatik erretiratuz, eta sozietatearen interesei komeni zaien guztian jardunez. Diruz, kredituz nahiz baloreetan bankuetako kontu korrontek irekitzea eta bertatik eskudirua edo baloreak erretiratzea eta, oro har, bertako edo atzerriko erakundeekin, baita Espainiako Bankuarekin ere, era guztietako banku-eragiketak egitea. Korrespontsarien eskuetan dauden kooperatibaren fondo eta ondasunez baliatzea. Ganbio-letrak libratu. Endosatu, abalatu, onartu, negoziatu eta ordaintzea

p) Ondorio zehatzetarako edo negozio sozialaren adar jakin batzuk zuzentzeko, pertsona jakinei ahalmenak ematea (zereginak eskuordetzea).

q) Estatutuen interpretazioak sor ditzakeen zalantzak argitzea; egingo den lehendabiziko Batzar Orokorrari berri emanez.

r) "DURANGALDEKO 'IBAIZABAL. KOOP. ELK.'" -ko Batzar Orokorrak egotziko dizkion gainontzeko guztiak, bere ahalmenen barnean, eta legeak aukera ematen duen guztiak.

Artezkaritza Kontseiluaren atribuzio-zerrenda hau enuntziatiboa da soil-soilik eta, Legeak Kooperatibako beste organoen batzuen esku bereziki jarri gabeko guztian, ez dizkio Artezkaritza Kontseiluari ahalmenak mugatzen. Dena den, aldi berean, kontuan hartu beharra dago zenbait gai jakinetan erabakiak hartu ahal izateko beharrezkoa dela artezkaritza kontseiluaren berariazko akordioa eta, beraz, ordezkatzeko edo ahaldunderik ez dela onartuko. Hori guztia kooperatibaren Estatutuetan dator azalduta.

Artezkaritza Kontseiluaren osaera ordezkaritza eta lan-alorreko gaitasun-irizpidearen araberakoa izango da. Kontseilu hau (gutxienez) 7 eta (gehienez) 12 kontseilukide titularrek osatuko dute. Kontseilukide hauek Kontseiluko Lehendakari, Lehendakariorde, Idazkari edo eledun (bokal) izango dira karguari dagokionez.

Gutxienez 5 eta gehienez 8 kontseilukide (eta beraien ordezkariak) Kooperatiba-bazkideetako Artezkaritza Kontseiluek hautatuko dituzte, bertan, jardueran dabiltzan bazkideen eta laguntzaileen artean, Kooperatiba bakoitzak, dauzkan ikasleen proportzioan (proportzio horiek Estatutuetan xedatuta daude). Artezkaritza Kontseiluko kide bat (1) Bazkide laguntzaileek hautatuko dute, baldin eta halakorik dagoen eta kopuruz 20 Bazkide laguntzaile baino gehiago dauden. Gutxienez 2 eta gehienez 3 kontseilukide (eta beraien ordezkariak) Bazkide-erabiltzaileek hautatuko dituzte.

2.1.3. ZAINZA-BATZORDEA:

Osaketa, Zaintza Batzordeak hiru bazkide izango ditu kide, eta ordezkari bat. Agintaldiaren iraupena bi urtekoa izango da. Zaintza Batzordeko kideak aukeratu edo kanporatzeko, Batzar Orokorrean emandako baliozko boto guztien zatirik handiena beharko da eta isilpeko bozketa egin beharko da beti; berriz ere aukeratu ahal izango dira.

Administratzaileek Zaintza Batzordeari kooperatibaren jardueren eta ustez izango duen bilakaeraren berri eman beharko diote.

Zaintza Batzordeak bere lana burutzeko behar beste egiaztapen egiteko eskubidea du, eta hori egiteko agindua bere kideetako bati edo batzuei eman edo, bestela, adituen laguntza eskatu ahal izango du kideen artean halakorik ez badago.

Zaintza Batzordeko kide guztiek izango dute emandako edo jasotako informazio guztia ezagutzeko aukera, baina ez dute ikerketa-lanen edo jasotako informazioen emaitzen berri ematerik izango Artekari-tza Kontseilutik edo Batzar Orokorretik kanpo.

Zaintza Batzordeak ezin du kooperatibaren kudeaketan zuzenean parte hartu, eta ezin da kooperatibaren ordezkari izan beste inoren aurrean.

Zaintza Batzordeak Kooperatiben 11/2019 legearen 53. artikulua ezarritako eginkizunak eta ahalmenak izango ditu.

2.1.4. ESKOLA-KONTSEILUA

Osaera:

BEREZKO KIDEAK:

- Zuzendaria: kide 1. Organo honen lehendakaria.

- Ikasketa-burua: 1

- Idazkaria: 1 (idazkaria, ahotsez, baina botorik gabea)

Durungaldeko Ibaizabal Ikastola koop.-elk.-eko ordezkariak: 3

Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkariak: 1

Irakasleen ordezkariak, Irakasle Klaustroak aukeratuta: 2

Ikasleen familia-kideen (guraso edo tutore) ordezkariak: 2

Ikasleen ordezkariak: 2

Durangoko udalbatzaren aldetik, ordezkari 1.

Ordezkariak aukeratzean, estamentu bakoitzak kide gehiago izenda ditzake aurrerantzean hutsik gera daitezkeen ordezkariak bete ahal izateko. Hezkuntza-komunitateko sektoreren batek bere ordezkariak ez hautatzeak ez du Eskola Kontseiluaren eraketa baliogabetuko.

Eskola Kontseiluak ez du aparteko eskumenik izango Ibaizabal Ikastolan, bestelako erabaki-guneak direlako Ikastolan erabakiak eta komunikazioa bideratzen dituztenak. Hau da, nolabait esateko, Ibaizabal Ikastolako Eskola Kontseilua Batzordetan antolatuko da, Kontseiluak agindutako eginkizunak eta eginbeharrak bete daitezten. Beraz, honakoen inguruko batzorde informatiboa izan liteke funtsean: Ikastetxearen hezkuntza-proiektua, antolaketa eta jarduera-araudia eta kudeaketa-proiektua, berorien zaintza eta ebaluazioa; Ikastetxearen urteko plana; Prestakuntzako, eskolaz kanpoko zein osagarritzko jardueren egitaraua eta urteko kudeaketa-programa.

Esan bezala, ordea, batzorde egonkorak edo aldian behingoak sortuko dira -edo jada sortuta dauden pertsona bakarreko karguak edo kolektiboak erabiliko dira hemengo zereginak bideratzeko-, Eskola Kontseiluak beharrezkotzat jotzen duenean eta beharrezko kopuru eta izaerarekin: Kontratazio-batzordea, Batzorde ekonomikoa, Bizikidetzeta-batzordea edo dena delakoa.

2.1.5. IRAKASLEEN KLAUSTROA

Irakasle klaustroa Ikastetxean lan egiten duten irakasle guztiek osatuko dute, ikasketaburua(k) buru izango delarik (direlarik).

Eginkizunak:

Irakasleen Klaustroaren funtzioak curriculum-proiektuaren, irakaskuntza-jarduerarako programaren eta urteko hezkuntza-planaren esparruan kokatuko dira, lana eraginkortasunez eta koordinatuta egiteko. Bere eginkizunak honako hauek izango dira:

- a. Ikastetxearen curriculum-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa egitea eta onartzea, ikastetxeko hezkuntza-proiektuko gidalerroetara egokituko dena.
- b. Artezkaritza Kontseiluari irakaskuntza-jardueren programa betetzearen berri ematea, beronen aldetik urteko txostena egin dezan.
- c. Ikasleak ebaluatu eta berreskuratzeko lanari buruzko irizpideak finkatzea eta koordinatzea.
- d. Ikasleen orientazio- eta tutoretza-eginkizunak planifikatzea eta zuzentzea.
- e. Ikastetxean garatu beharreko pedagogia-esperimentazioaren edo ikerketaren esparruan ekimenak sustatzea.
- f. Bere funtzionamendu-arauak onartzea, Ikastolan zuzendaritza-taldean erabakitakoarekiko koherentziaz.
- g. Irakasleen prestakuntzari dagokionez, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera-osagarrien programaz informatzea.

Funtzionamendua:

Klaustrorako deialdia ikasketa-buruak egingo du (Batxilergokoak, Lanbide-heziketakoak edo biek batera), gai-zerrenda zehaztuz. Zuzendaritza taldeari dagokio gai-zerrenda zehaztea, bere ekimenez, edo irakasle-taldearen proposamenez.

Klaustroak proposamen horiek aztertuko ditu eta, hala badagokio, oniritzia emango die. Gutxienez, hilean behin elkartuko da.

Ikasturte osoko klaustroetarako idazkari eta moderatzaile figurak izendatuko dira ikasturte hasieran; idazkariak hartutako erabakien akta jasoko du. Klaustroetara bertaratzea derrigorrezkoa da eta ez bertaratzeak justifikatu egin beharko dira.

2.1.6. ZUZENDARITZA-TALDEA:

Ibaizabal Ikastolako Zuzendaritza-taldea honako hauek osatzen dute: zuzendariak, ikasketa-buruek, Errota sekzioko arduradunak eta KirolErrotako arduradunak. Azken 2 horiek, ordea, hezkuntzakoak ez diren sekzioetako arduradunak dira eta, beraz, AJA dokumentu honen helburutarako kanpoan utziko ditugu. Osaera hau bestelako kargu edo konfigurazio batekin moldatu ahal izango da Zuzendaritza-taldeko kideek hala erabakitzen badute, eta Ikastolaren egunerokorako onuragarria izango dela uste badute. Beraz, Zuzendaritza-taldeko partaide izan litezke idazkaria, zuzendari ondokoa, Zikloko Koordinatzaileak eta beste edozein, gaur egun baden figura edo sor litekeen balizko beste edozein figura dela ere.

Zuzendaritza-taldea kudeaketa-esparru ezberdinen koordinazio-organoa izango da. Horretarako, kide bakoitzak bere esparruari dagozkion jardueren berri emango du; irizpide komunak eta jarduera guztiei koherentzia emango dieten moduak bilatuko dira.

Zuzendaritza-taldeak zuzendariak erabakitzen duen guztietan egingo ditu bilerak, edota beste kideek hala eskatzen dutenean.

Eginkizunak:

- a. Ikastetxearen zuzendaritzari eta koordinazioari buruzko erabakiak hartzeko orduan zuzendariari laguntzea, baita ikastetxearen funtzionamenduari dagokionez eragin handia duten erabakiak hartzeko orduan ere.
- b. Urteko planen eta urteko memoriaren programen burutzapena koordinatzea.
- c. Urteko planaren jarraipena egitea, hezkuntza-jardueren eta kudeaketa-programarena bereziki.
- d. Pedagogia-koordinaziorako txostenak eta proposamenak jaso eta hauek gauzatzeko moduak aztertzea.
- e. Klaustroko eta Eskola Kontseiluko gai-zerrendak prestatzeko ikasketa-buruei laguntza ematea, eta Artezkaritzakoak nahiz Batzarrekoak prestatzeko zuzendariari laguntza ematea.
- f. Informazio-bide egokiak ezarri eta zuzendaritza- eta koordinazio-organo ezberdinentzat informazioa prestatzea.
- g. Aginte-organo desberdinei urteko plana gauzatu eta burutzeari dagozkion eraldaketen berri ematea.
- h. Beste Ikastetxe batzuekin lankidetzaharremanak finkatzea, hezkuntza-maila hobetzeko, errekurtsoak eta esperientziak trukatzeko; hala-nola Instituzioekin eta beste zenbait erakunderekin Ikastetxeak izango dituen ohiko erlazioak koordinatzeko moduak ezartzea.
- i. Irakasle-taldeak antolatzea eta, ikasturte bakoitzaren hasieran, irizpideak erabakitzea, zeinen arabera irakasleei gaia erregulatzen duten arauen araberrako jarduerak atxikitzen zaizkien.

2.1.7. IKASLE-KONTSEILUA

Ibaizabal Ikastolako ikasleek Ikastetxearen funtzionamenduan, bizitzan, hezkuntza-jardueran eta kudeaketan parte hartzeko eskubidea dute. Horrela, Eskola Kontseiluko partaide izateko eskubidea izango dute eta, honetarako, Ikastetxean matrikulatutako ikasle guztien artean zuzeneko eta isilpeko sufragioz aukeratuak izango dira.

Ikasleek gela bakoitzean ordezkariak dituen hautatuko dute, eta, beste geletako gainontzeko ordezkariekin eta ikastetxeko Ikasle Elkarte bakoitzeko ordezkariekin batera, Ordezkarien Batzordea osatuko dute, zeinak ikasketa-burua izango duen lehendakari. Ordezkarien Batzorde horri Ikasle Kontseilua deituko zaio. Ikasketaburua dela bitartekari, elkarbizitzari, eskolako osagarritzko eta eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeari eta ikastetxeko martxa orokorrari buruzko proposamenak eztabaidatu eta egingo ditu, dagozkion organoari helarazteko.

Talde bakoitzeko ikasleek hautatuko dituzte ordezkariak, ikasturtearen lehenengo hilabetean.

Bere eginkizunak honako hauek izango dira:

- a. Ikasleen ordezkariari aholkularitza eta laguntza ematea, eta, beraien bitartez, ikastalde bakoitzeko arazoak jasotzea.
- b. Proposamenak egitea, bai berezko ekimenez, bai aipatu kide anitzeko organoek eskatuta.
- c. Ikasle Kontseiluko gai-zerrendari buruz, aztertutako gaiari buruz eta hartutako akordioei buruz informazioa jasotzea, ordezkari-esparru desberdinetan aztertutak izan daitezten.
- d. Ikastetxeko ikasle guztiei bere jardueren berri ematea.

Ordezkariek informazioa emateko, iritziak jasotzeko, edo proposamenak biltzeko asanbladarako deialdia egin ahal izango dute, bizikidetzarako arauak ezartzen dituzten baldintzak kontuan hartuz. Honetarako zenbait eskola-ordu hartu ahal izango dute, aurrez zuzendaritza-taldeari eskatuta eta haren oniritziarekin.

2.1.8. IKASLEEN ELKARTEAK

Ibaizabal Ikastolan Ikasleen Elkarteak eratu daitezke, parte hartzeko eta borondatezko lankidetzarako organoak izango direnak.

Ikastetxean onartuak izateko, indarrean dauden arauei jarraituz eratu beharko dira, eta Eskola Kontseiluak beraien berri izan beharko du.

AZKEN OHARRA: Kooperatibak, bere operatibitate eta garapena aurrera eramateko egokitzat jotzen dituen organo guztiak sortu ahal izango ditu, kasuan kasuko ahalmenak emanda. Ahalmen hauetatik salbuesten dira Legeak Kooperatibako beharrezko organoei berariaz ematen dizkienak. Adibidez, hauen artean leudeke irakasleen arteko sail didaktikoak edo arlo-kide direnen arteko mintegiak. Ikastolen Elkartearen bitartez bideratutako erabaki-organoei ere parte har daiteke: Lurralde Batzarrak direla, ZUMIN eta ADMIN mintegiak, eta beste.

2.2. LAGUN BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK

2.2.1. BAZKIDEAK:

KOOPERATIBA-BAZKIDEAK:

Pertsona juridiko kooperatiboak, baldin eta, Kooperatibaren enpresazko helburuan esku hartzeko gai izanik eta, Estatutuetan jasota dauden eskubide eta betebeharez jabetuta eta leialtasun eta eraginkortasunez betetzeko konpromisoari helduta, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

- Bazkideetako kooperatibek dituztenen antzeko Estatutu Sozial eta Barne Arauak izatea.
- Bazkideetako kooperatibek dituzten enpresa-programen osagarritzako edukitzea, Kooperatibaren estrategiaren barnean.
- Kooperatiban sartzeko eskaria Artezkaritza Kontseiluko Lehendakariari igortzea, galdatuko zaizkion sozietate-ekonomia eta -ondareari buruzko dokumentuekin batera.
- Estatutu hauen eta Kooperatiban indarrean dauden gainontzeko akordioen eragile edo ondorio diren betebeharrak guztiak bereganatzea.

BAZKIDE-ERABILTZAILERAK: Pertsona fisikoak dira, adin nagusiko ikasleak eta kooperatiba honetan seme-alaba edo tutelatuak dituzten guraso, ordezkari edo tutoreak.

BAZKIDE-LAGUNTZAILERAK: Horrela onarturiko pertsona fisiko edo juridikoak.

Bazkide laguntzaileak honako hauek izango dira: zuzenean lan elkartua egin ezin duten arren, bai maila sozial edo kooperatiboan, bai eremu tekniko, komertzial, finantziarioan, bai enpresa-eremuko beste edozeinetan, helburu soziala lortzen lagun dezaketen pertsona fisiko edo juridikoak.

Bazkide laguntzaile denbora mugatua izango da eta horiek onartzei buruzko erabakiak Artezkaritza Kontseiluak hartuko ditu. Batzar Orokorrak, kolaboraziorako baldintzak eta gainerako eskubide eta betebeharrak ezarriko ditu.

Bazkide Laguntzaileek Batzar Orokorrak ezarritako kuota ordaindu beharko dute.

Bazkideek hurrengo eskubideak dituzte:

- a) Legezko arauen eta Estatutuen ondoriozko eskubideak, eta Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legeko 23. artikuluan xedatutakoak, bereziki.

- b) Bazkide izatearen ondoriozkoak; bozkatzeko, informazioa izateko eta erabakietan eskuhartzeko eskubideak, bereziki.
- c) Estatutuen muga barnean, Barne Araubide juridikoan aldaketak eragitea.
- d) Etekinen banaketan, ustiapeneko emaitza positiboetatik legokiekeen zatia hartzea eta, oro har, bazkide izatearen ondoriozko gainontzeko eskubide ekonomikoak.
- e) Beste antolakunde kooperatibo eta antzekoekin lotuneak sortzen laguntzea.
- f) Legezko arauen, Estatutuen eta kooperatibako organoek hartutako akordio eta erabakien ondoriozko eskubideak.

Eskubide hauek mota bereko bazkide guztiek izango dituzte eta Kooperatibako organoek balioz onartutako akordioen eta indarreko arauen arabera erabiliko dira.

2.2.2. ARTEZKARITZA-KONTSEILUKO KIDE BAKARREKO KARGUAK: Artezkaritza Kontseiluan Lehendakari, Lehendakariorde eta Idazkari karguak egongo dira.

2.2.3. ZUZENDARI NAGUSIA:

Zuzendaria dugu ikastetxearen kudeaketa orokorraren eta funtzionamenduaren arduraduna. Artezkaritza Kontseiluaren eskuordetzeaz, Kooperatibako Zuzendari Nagusia da, enpresa-betekizun guztiei dagokienez, Kooperatibako exekutiborik gorena. Zuzendari Nagusiaren izendapena edo kargugabetzea Kooperatibako Artezkaritza Kontseiluak egingo du.

Artezkaritza Kontseiluak hurrengo ahalmenak emango dizkio Zuzendari Nagusiari:

- a) Kooperatibaren izenean jarduteko ahalmena hirugarrenen aurrean.
- b) Osagarri gisa, Kooperatibaren barne-mailako eskuduntza batzuk formalizatzeko ahalmena emango zaio Zuzendari Nagusiari; helburu honekin Artezkaritza Kontseiluak berriazko ahalordetza emango dio eta, honen baitan, Estatutuen indarrez dagozkion eskuduntzak behintzat jasoko ditu.
- a) Kooperatibaren martxa eta trafiko arruntari dagozkionak.
- b) Kooperatibaren martxa antolatu, zuzendu eta ikuskatzea.
- c) Kooperatibaren urteko Kudeaketa-planaren eta Plan Estrategikoaren prestaketa gidatzea eta Artezkaritza Kontseiluari proposatzea. Plan hauek betearazteko ekintzak erabaki eta aurrera eramatea.
- d) Jarduera berriak aztertu eta has daitezen proposatzea; Kooperatibarentzat bidezkoak izan daitezkeen bategite, zatitze, berregituratze eta birmoldatzeak eragitea. Berari dagokion alorrean, gai hauetan hartzen diren erabakiak betetzeko behar diren ekintzak gauzatzea.
- e) "DURANGALDEKO IBAIZABAL, KOOP. ELK."-ko giza baliabideen, inbertsio, finantza, teknologia, marketing eta beste hainbat alorretako politikak landu eta proposatzea. Organo eskudunek akordioa hartutakoan, benetan bete dadin erabakiak hartu eta beharrezko neurriak xedatzea.
- f) Kooperatibaren egitura eta antolamendua landu eta proposatzea, onetsiak izan daitezen. Organo eskudunek onespina emandakoan, praktikan eta martxan jartzeko behar den guztia erabakitzea. Erabateko autonomia exekutiboa daukalarik, Kooperatibaren antolamenduzko egitura zuzentzea.
- g) Zuzendari Nagusiaren zuzeneko esanetara dauden Kooperatibako beste buruen izendatze eta kargugabetzea Artezkaritza Kontseiluari proposatzea eta helburu soziala betetzeko beharrezkoak diren gainontzeko buru guztiak izendatzea.
- h) Bere esanetara dauden beste buruen kokapen profesionala, ahalmenen mugak, bete behar eta eskuduntzak Artezkaritza Kontseiluari proposatzea eta gainontzeko buruenak erabakitzea.
- i) Langileak --bazkide edo alokatuak- kontratatzea eta kontratuak izenpetzea, xedaturiko politiken barnean.

j) Estatutu eta araudietako bete beharrak behar bezala aplikatzeko edota Artekazkaritza Kontseiluaren erabakiak betearazteko beharrezkoak diren lan eta antolamenduzko Barne Araudi funtzionalak garatzea. Beste alde batetik, duten garrantzia ikusirik, Artekazkaritza Kontseiluak erabakitzeak diren Barne Araudi eta akordioak organo honi aurkeztea, beti ere indarreko Estatutu eta araudietako arauen arabera.

k) Batzar Orokor eta Artekazkaritza Kontseiluak agindutako jarraipideak betetzeko beharrezko izan litekeen beste edozein.

Zuzendari Nagusiaren erabakiak derrigorrezkoak izango dira kooperatibako organo eta pertsonentzat.

2.2.4. IKASKETA-BURUA:

Curriculum-proiektua, hezkuntza-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa zuzenean diseinatzeko, koordinatzeko eta zaintzeko organo arduraduna da Ikasketa-burua. Ibaizabal Ikastolako lanbide-heziketako ikasketa-burua, gainera, hezkuntza ez arautuaren zuzeneko arduraduna izango da.

Zuzendaritza-taldeko kide izango da, eta, pedagogia-arloaz arduratuko den heinean, bere mende egongo dira pedagogia-koordinazioko balizko batzordea, bizikidetzarako batzordea, irakasle-taldeak eta hezkuntza-zerbitzuak. Aldiro, eta horrela eskatuta, organo honek burututakoaren berri emango dio Zuzendaritza-taldeari. Irakasle-taldeen koordinatzaileengandik eta arduradunengandik lan-planei, hauen burutzapenari eta talde ezberdinek hartutako erabakiei eta egindako lanari buruzko informazioa jasoko du.

Ikasketa-buruari ondoko funtzio hauek dagozkie:

- a. Irakaskuntza-izaerako jarduerak koordinatzea.
- b. Eskola-ordutegiak egitea eta betetzen direla zaintzea.
- c. Irakasle bakoitzari Ikastetxeko unitate bat edo gehiago esleitzea, Zuzendaritza-taldeak ezarritako irizpideen arabera.
- d. Irakasleen hutsegiteak eta bajak direla-eta gertatzen diren plaza hutsak betetzeko, ezarritako mekanismoak abian ipintzea.
- e. Diziplina eta bizikidetzaz arazoetan esku-hartzea, araudi honetan ezarritakoaren arabera.
- f. Ebaluazio- eta orientazio-prozesuak koordinatzea.

2.2.5. IDAZKARIA:

Idazkaria Ikastetxeko administrazio-kudeaketaz arduratutako organoa da. Idazkaria izango da Ibaizabal Ikastolan administrazio-sailaren arduradun zuzena.

Administrazioko langileen eta oraingo eta etorkizunean izan litezkeen zerbitzuetako pertsonalaren arduraduna izango da.

Honako funtzio hauek bete beharko ditu:

- a. Ikastetxeko kontabilitatea eramatea.
- b. Ikastetxeko behar ekonomikoen zerranda egitea, bere aurrekontuan sartu beharreko gastuei dagokienez.
- c. Aurrekontua eta beronen kitapen-kontuari dagokion agiria prestatzea, Zuzendaritza-taldeak ordezkari-organoren gorenari aurkeztu diezaion eta azken honek onar dezan.
- d. Kontratazioak prestatzeko ekitaldiak eta materiala eskuratzeko proposamenak, eta baita inbertsioak ere burutzea.

- e. Ikastetxeko horniduren inbentarioa gainbegiratzea.
- f. Instalazioen mantentzea gainbegiratzea.
- g. Zuzendariak edo Zuzendaritza-taldeak esleitutako edo delegatutako bestelako batzuk.

AZKEN OHARRA: Kooperatibak, bere operatibitate eta garapena aurrera eramateko egokitzat jotzen dituen organo guztiak sortu ahal izango ditu, kasuan kasuko ahalmenak emanda. Organo hauek kide anitzekoak izan litezke eta baita lagun bakarrekoak ere, beharren eta aukeren arabera. Ahalmen hauetatik salbuesten dira Legeak Kooperatibako organo jakinei berariaz ematen dizkienak. Aldiz, kargu berberaren pean ere multzoka litezke ahamen zenbait, eta ez du esan nahi kargu bakoitzaren atzean pertsona desberdina egon behar denik. Sor litezkeen organoei dagokienez, adibidez, kide bakarreko organoen artean leudeke etapa-koordinatzailea(k), zuzendariaren albokoa edo zuzendari-ordea, e.a.

3. IRAKASLEAK. IRAKASLE-TALDEAK. IRAKASLE ARDURADUNAK.

3.1. IRAKASLEAK:

Ibaizabal Ikastolako irakasleek, berezko hezkuntza-lanez aparte, Zuzendaritza, tutoretza eta hezkuntza-taldeetako eta hezkuntza-zerbitzuetako arduradun gisa egin dezakete lan; jarraian zerrendatzen direnetan, hain zuzen ere:

- a. Irakaslanen programazioa landu, garatu eta ebaluatzea, Ikasketa-proiektuaren arabera.
- b. Ikasleen tutoretza bere gain hartzea, beren ikaskuntzari eta ikasketa- zein lanbide-aukerei orientabidea emateko.
Ikasle-talde bakoitzak tutore bat izango du (gelako tutorea), ikasketa-buruak proposaturik zuzendariak izendatuko duena. Halaber, ikasle guztiek tutore pertsonala ere izango dute. Ikasleei ikasketa- zein lanbide-alorreko aukerei buruzko orientazioa eta aholkuak ematea izango da irakasle tutorearen funtzioa, baita aukerazko jakintzagaiak hautatzean ere, ikasketa-buruarekiko koordinazioan eta taldeko gainontzeko irakasleei kontsulta egin ondoren.
Tutoretzarako Ekintza-planaren garapenean parte hartzea.
- c. Esleituta dauden irakasle-taldeetan parte hartzea, ekintza koordinatua eta eskolako testuingurura egokitutakoa zehaztu eta lortzeko.
- d. Ikastetxeko urteko plana egiten eta bertan sartutako proiektu espezifikoetan, dagokion neurrian, eta baita Ikastetxeko ebaluazioan zein irakasleen jardunean ere, laguntzea.
- e. Prestakuntzako jardueretan aktiboki parte hartzea, Ikastetxeko aginte-organoei ezarritako baldintzetan.
- f. Esleitutako karguak eta funtzioak burutzea. Baita, tartean, proiektu espezifikoetara lotutakoak ere.
- g. Ikastetxearen antolaketan eta funtzionamendu egokian kolaboratzea, Ikasketaburuaren eta Araudi honetan zehaztutako beste arduradunen koordinaziopean.

- h. Klaustroko bilkuretara eta pedagogia-koordinazio organoetara, eta hautatua izan den kide anitzeko bestelakoetara azaltzea.
- i. Izaera orokorrean, Ikastetxeko aginte-organoez ezarritako arauak betetzea.
- j. Familiei seme-alaben edo tutoretza-pekoez bilakaeraren berri ematea. Irakasleak zehaztutako orduan/moduan familia-kideek etortzerik izango ez balute, neurri egokiak hartuko lituzke familia-kideekin harremanetan jartzeko. Ikasleei eurei ere tutorizazio- eta orientazio-zerbitzuak ematea. Aldian-aldian, taldeko edo banakako bilerak egingo ditu ikasleekin.
Ikasleak eta ikasleen familiak informatuta edukitzea: ebaluazioen eta heziketa-prozesuaren berri emateko; ikasleen hutsegiteen, garaiz ez iristeen eta diziplina-arazoen berri emateko. Ikasturtearen hasieran helburuen, ikasketa-programen eta ebaluazio-irizpideen berri eman beharko die ikasleei zein familiei (Lanbide-heziketako ikasleen kasuan, adin nagusi badira, noski, hemen esandako funtzio guztiak ikasleekin bakarrik egingo dira, eta ez familiekin -ez bada, noski, familiekin ere egitea beharrezkotzat jotzen dela-).
- k. Diziplinaz, materialaz, eta instalazioez arduratzea, zaintzan dauden irakasleei laguntza emanez, eta gertatutakoaren berri ikasketaburuari azalduz.
- l. Klaseetara eta deitua den bileretara garaiz iristea.
- m. Ikastetxean ezarritako izaera pertsonaleko datuen babesaz, eta segurtasun- eta higiene-neurriak betetzeaz arduratzea.

Ikasleei dagokienez:

- a. Irakasleak errespetatzea, bere sentsibilitatea ez mintzen saiaturik, ikaskideen aurrean barregarri utzi gabe.
- b. Sexua, arraza, nazionalitatea, hizkuntza edo gizarte-egoeratik ezberdintasunik ez eragitea/egitea.
- c. Ikasleen parte-hartzea eta ikaskuntza sustatzea. Ikasleen irteera-profileko ezaugarriak, Ikastolan eta Ikastolen Elkartean proposatutako metodologiak eta berrikuntzak, eta antzekoak aktiboki bultzatuta.
- d. Eskola zein gizarte-mailako integrazioa bultzatzea.
- e. Ikasleei beraien ikaskuntza-prozesuaren berri ematea.
- f. Ebaluazioen erreklamazioa eginez gero, aintzat hartzea.
- d. Karguengatik edo eginkizunengatik ezagun ditzaketen arazo pertsonaletan zuhurtasunez jokatu, eta informazioak hala eskatzen duenetan, sekretu profesionala gordetzea.
- e. Elbarritutako edo gaixo dagoen ikasleari, behar bezalako arreta ematea.
- f. Zaintzako irakasle izatea. Zaintzen helburu nagusia, irakaslearekin ez dauden uneetan, edo azterketak daudenean, gela barruan, patioan (jolas garaian), korridoreetan, sarreran eta irteeran, klaseen tarteetan, zein kanporatuak direnetan, ikasleak zaintzea da. Halaber, Ikastetxean istripuren bat edo bat-bateko gaixotasuna jasaten dutenean ere, asistentzia ematea.

Ezarritako eta jakinarazi zaizkion jagoletza- edo zaintza-orduak nahitaez bete beharko ditu irakasleak eta hutsegiteak justifikatu beharko ditu.

- g. Ikasleen Eskubide eta Betebeharren Dekretuan ezarritakoaren arabera, ikasleen portaera desegokiak zuzentzea.
- i. Ibaizabal Ikastolan irakasle guztiak orientatzaile ere badirenez, honako berariazko funtzioak bereganatu beharko dituzte:
- Ikastetxeko hezkuntza-mailako esku-hartzearen erabakigune ezberdinetan parte hartzea, animatzea, aholkuak ematea eta elkarrekin jardutea eta beren ekarpenekin batera proiektuen eraikuntzan, ebaluatze-diseinuetan, esku-hartzeko irizpideetan eta, azken batean, ikasleak hezi eta orientatzeko jardunean kolaboratzea.
 - Ikastetxeko Orientabide-plana zein Tutoretza-plana egitea, Zuzendaritza-taldearen begiratupean. Ikastetxeko Orientabide-planaren zein Tutoretza-planaren ezarpenean egindakoaren jarraipena egitea, sailaren urteko memorian jarraipen horri dagokiona jasota utzita.
 - Beste administrazio batzuekin edo gizarte-alorreko erakunde eskudunekin (Berritzegunea, Gizarte-ongizatea, e.a.), norbere-mailako, akademiko-mailako zein lan-mailako orientabidea koordinatzea.
 - Bokazio-orientabidea jarduera egokiekin diseinatzea, ikasleen arteko parekotasuna bultzatuz beren lanbide-etorkizuna hautatzerakoan.
 - Aniztasunaren tratamendurako hezkuntza-neurriak sustatzea.
 - Taldeko tutorearekin eta tutore pertsonalekin, eta irakasle-taldeekin, oro har, ikasleek ikasteko dituzten oztopoak aztertzea eta hezkuntza indartzeko neurrien inguruan aholkua ematea; eta, hala badagokio, curriculum-egokitzapenerako neurri komenigarrienen inguruan ere irtenbideak proposatzea.
 - Ikastetxean sor daitezkeen jokabide- eta bizikidetzaz arazoei aurre hartu eta konponbidea ematen laguntzea.

Irakasleei eta langileei, oro har, zenbait proiektu-ardura eslehi dakizkieke Zuzendaritza-taldeak ikasketa-buruaren edo zuzendaritzaren beraren bitartez. Zuzendaritza taldeak erabakiko du lan hauetaz arduratuko den irakasleak edo langileak zenbat ordu izango dituen –araudiak eta Institutuaren beharren arabera–. Proiektu-ardura horien artean honakoak daude edo egon litezke Ibaizabal Ikastolan, eta baita beste batzuk ere:

IKT IRAKASLEA (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) eta IKUS-ENTZUNEZKO ARDURADUN IRAKASLEA: software aholkularitza, gailu digitalen alokairua eta kudeaketa, Ikastolen Elkartearen mintegietara bertaratzea...

JANGELAKO ARDURADUNA: Jangela erabili nahi duten ikasleen erregistroa; ikasleei edo hauen familiakoei jangelari dagozkion zirkular zein komunikatuak; jangela-zerbitzua erabiltzen duten ikasleen kontrola eramatea; zerbitzu hori erabiltzean sor daitezkeen edozein arazo ahalik eta azkarren konpontzea, gertatutakoak jakinarazteko ikasleekin, ikasleen familiekin eta zerbitzua kudeatzeaz arduratzen den enpresarekin harremanetan jartzea; egunero jangela bisitatzea ikasleen portaera zein den bertatik bertara ikusi ahal izateko...

LANEKO SEGURTASUN ETA ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ARDURADUNA: diagnostikoak, formazioa, mediku-azterketak, bitartekoak, ebaluazio-plana eta simulazioak, tabakoa eta edari alkoholdunak saldu eta kontsumitzeari dagokienez indarreko araudia betetzen dela zaintzea...

IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESERAKO ARDURADUNA: darabiltzagun segurtasun-neurri teknikoen eta eratorritako arrisku posibleen analisirako, diagnostikoa; segurtasun-neurrien hobekuntza-plana abiarazi (IKTekin lotutako neurriei enfasia jarrita); aipatu dokumentuetan oinarrituta, Pribatutasun-gidaliburua, Informazioaren segurtasunerako Praktika onak eta Tratamendu-jardueren Erregistroa gaurkotu, indarrean den legeak esandakora mugatu eta gure testuingurura moldatuta; izaera pertsonaleko gure datuak darabiltzaten pertsona juridikoak identifikatu eta hornitzaile horiekin datuak lagatzeko baldintzen kontratuak izenpetu; baimenen klausulak eguneratu, prozesatzea beharrezkoa den lan-eremu guztietara zabaldu eta, familiei dagozkienak, bateratu eta sinplifikatzeko ahalegina egin; webgune eta euskarri digitaletako Pribatutasun-konfigurazio guztiak ezarri...

LANTOKIKO PRESTAKUNTZARAKO ARDURADUNA: LPeko modulua txertatzen den curriculum gai edo arloaren programazio orokorra burutzea; LP moduluen prestaketa-programa garatu eta koordinatzea prestakuntzarako produkzio-jardueretarako ikasleak hartu dituzten enpresetan edo erakundeetan bisitak eginez; LPko ebaluazio-irizpideak finkatzea...

AGENDA 30eko KOORDINATZAILEA (Jasangarritasuna): Proiektua definitzeko adierazleak zehaztea; Ikastetxearen diagnostikoa burutzea; Curriculum-aren egokitzapena sustatu, eta, horretarako, bitartekoak eskuratzea; Jasangarritasun-bandera eskuratzeko lanketa egitea; ikasleek osatutako Eko-eragileen taldea dinamizatzea, aktiboa izan dadin; Udalerriaren hobekuntza eta azterketa proposamenak burutu eta prozesua diseinatzea; Ikastolaren barruan nahiz kanpoan egin litezkeen ekintzak plangintzatzea, esleitutako helburuak lortzeko, hala nola: zuhaitz-landaketa, 2. eskuko azoka, mugikorren bilketa, birziklatze- eta berrerabilera-kanpainak, erreka-garbitzea, irteerak, Udalarekin ekimenak, Ikastolako jarrera desegokietan inziditzea, herri-mailan parte hartzea, zakarrontzien erabilera, hamarretakoa egiteko ohiturak, kontsumoari buruzko galdetegia, jantokian kontsumitzen diren bertako elikagaien neurketa, erreka-garbitzea, mugikortasuna hobetzeko bideoa, liburuen mailegu-sistema...; urteko ekintza-plana finantzatzeko diru-laguntzetarako eskabideak bideratzea...

HIZPRO LANTALDEKO ARDURADUNAK: Ikastolako hizkuntza-proiektuari jarraipena eta ekarpena egitea da lantalde honen eta berau osatuko duten arduradunen zeregina, sozializatzeko-ekintzen bitartez: Ateneoak, *Irakurrixu* eskola-aldizkaria, Errigora, Seaska ikastolak, Gaztainerre, Udaberri Jaia, Hitzez eta Ahotsez, Korrika, Euskaraldia, Trukaldia, #Klak!, e.a.

Euskara-normalizaziorako egitasmoak abiatzea; hizkuntzen kudeaketa ahalbidetzea; Plan Estrategikoa eguneratzea; Hizkuntza-proiektua egonkortzea; hizkuntzak lantzeko dauden aukeren berri ematea; aliantzak; euskararen erabileraren azterketak egin eta erabilera bera areagotzea; euskal giroa eta euskal kultura bultzatzea; Klaustroan zuzentzeko eta ebaluatzeko hizkuntza-irizpideak tratatzea; urteko ekintza-plana finantzatzeko diru-laguntzetarako eskabideak bideratzea; ikasleen irteerako hizkuntza-profilaren jarraipena egitea (euskara, ingelesa, frantsesa) eta erregistroa jasotzea; eTwinning nazioarteko proiektua frantseseko ikasgaiari; ingelesa praktikatzeko atzerriko bekak ahalbidetzea; Oxford eta Cambridge azterketen gune izatea Ibaizabal; hizkuntza-azterketa ofizial desberdinen inguruko informazioa ematea ikasleei eta familia-kideei; euskararen erabilera-neurketak Ikastolan bertan gertatzen diren elkarrizketa informaletan; e.a.

BIZIKIDETZARAKO eta BERDINTASUNERAKO ARDURADUNA: egoerak identifikatu eta jaso; eskuhartzeak proposatu eta bideratu; delituen prebentzioa eta euren jarraipena egiteko mekanismoak; beste Ikastola/ikastetxe batzuetako prozedurak (berezi praktika onak) ezagutzea...

Ikastolako oinarrizko dokumentuak (IHP, arautegiak, berdintasun-plana...) egin eta etengabe eguneratu beharko ditu: sentsibilizazioa (zertarako behar den dokumentua: tutoretzak, artezkaritza...) > diagnostikoa (zer garen, nola gauden, zer egiten dugun gaur egun alor horretan...) > zehaztapena (zer egin, nola, zer bitartekorekin...) > garapena (planifikazioa, kronograma...) > jarraipena (behaketa, berrikuspina) > ebaluazioa (hobekuntzarako mekanismoak). Horretarako, noski, Ikastolan aurretik egindako txostenak aintzat hartu beharko dira, bizikidetza eta parekoak izan litezkeen bestelakoez gain, gure testuingurua zedarrizten dutenak: curriculum-plana edota hezkuntza-proiektua, Ikastolaren antolaketa eta funtzionamendua, barne-araudia... (eskubideak eta betebeharrak kontuan hartuta), eta lege-markora egokituta betiere. Halaber, dokumentu eta proiektu horietatik hartu bakarrik ez, Bizikidetza-planak Ikastolaren gainerako proiektuetara ere eramane beharra dauka bere isla: hezkuntza-proiektua (aniztasunaren trataera...), hizkuntza-proiektua (hizkera inklusiboa...), e.a. Planean jasotako jarduerak bideratzea, inplikaturako alderdiak informatzea (ikasleak, familiak, tutoreak...), bitartekaritza bideratzea (ikasleei eurei ere mediazioa eginaraztea berdinetik berdinerara), neurri zuzentzaileak ezartzea eta legezko izapidetzeak egitea (ikuskariarentzako eranskinak, esaterako). Ikasketa-buruarekin eta zuzendariarekin kontrastea. Batetik, ikasturtean zehar eman daitezkeen balizko jazarpen-kasu guztiak atenditzea; bestetik, prebentzio-ekintzak aurreikustea, planifikatzea eta exekutua.

Ibaizabal Ikastolan gizarte-elkarrekintzarako prestatu nahi ditugu ikasleak eta, aldi berean, giro positiboan bizi nahi dugu komunitatea osatzen dugun orok, elkarrekiko konfiantzan. Horretarako:

- Giza harremanetarako balio, jarrera eta jokabide baikorrak sustatu eta giza eskubideen printzipioen onarpena eta indarkeriazko eta diskriminaziozko jarreraren bazterketa landu nahi ditugu.
- Kultura parte-hartzailea eraiki nahi dugu, tolerantzia eta diferentziak errespetatuko dituen.
- Halaber, ikasleen arrakasta nahi dugu efikaziaz eta argitasunez sar daitezkeen haiei dagokien garapen-bideetan, eta, gerora, helduen bizitzan eta lan-bizitza aktiboan, eta, hortaz, esfortzua eta jarrera proaktiboa garrantzizkotzat jotzen ditugu.

Funtsezko zeregina dute ikastolako kideen arteko harremanak gidatuko dituzten baloreek: elkarrenganako errespetua, elkartasuna, berdintasuna, aniztasuna, bakea, askatasuna, partaidetza, lana eta esfortzua.

Ibaizabal ikastola osatzen dugun guztiok etengabe jardun behar dugu lanean ikastetxeko giroa eta pertsonen arteko harremanak hobetzeko, baita arazoei aurre egiteko ere. Garrantzitsua da eskolako harremanetan sor daitezkeen gatazken prebentzio-arloa indartzea, elkar ezagutzea, norbera eta kidea estimatzea, komunikazioa, lankidetzeta... Horiek landuz, eremu eta giro egokiak sortzen ahalegindu behar dugu gatazkek, auziak eta indarkeriazko jokabideak prebenitzeko. Baina garrantzitsua da gatazkek sortzen direnean, egoera lasaitasunez aztertu eta konponbideak bilatzen ikastea ere, ahal dela, adostasunez edota adiskidetzeta bilatuz. Horiek lantze aldera egingo dugu eguneroko jardunbidean, gure ikasleek elkarbizitzarako konpetentzia modu egokiz gara dezaten. Txosten honen bukaeran datorren "Ikasleen eskubide eta betebeharren araudia" arlo honetan egingo denerako abiapuntu izango da, baina ez da horretara mugatuko.

HEZKIDETZARAKO ARDURADUNA: Hezkidetzeta (ikasleak + langileak inklusio eta parekidetasunerantz): berdintasun-ekimenak pentsatu eta garatzea; indarkeria sexistarik gabeko eremu bat izateko baliabide espezifikoak sortzea; Curriculumeko edukietan emakumeek egindako ekarpenak berdintasunez azaltzen ote diren; sexualitatea; generoa...

Hezkidetzeta-jarduketek indarguneak eta hobetu beharrekoak jo beharko dituzte begiz. Norbera izaten eta elkarrekin bizitzen oinarrizko konpetentzien lanketan integratu beharko dira hezkidetzeta-balioak.

Beste hezkidetzeta-jarduketa batzuk:

Curriculumeko edukietan emakumeek egindako ekarpenak berdintasunez azaltzen ote diren baloratu: eragin historiko, zientifiko, teknologiko, literarioa eta abar izan dutenak.

Ezkeruko curriculumean irakasleek zer transmititzen duten aztertu.

Familiekin gai honen inguruko prestaketa bideratu.

Ikastolak sexualitatea modu integralean lantzeko ekintza-plana garatzen joan.

Ikaskidetza metodologia era esanguratsuan hedatuta dugu Lanbide-heziketan. Berdintasunezko eta tratu onetan oinarritutako jarduketa baterako hezkuntza da *ikaskidetza* edo *koedukazioa*; pertsonak bere banakotasun eta berezitasunen arabera, generotik at, egiten den hezkuntza-motari deritzo. Ibaizabalen, zikloaren % 80a Ikaskidetzan oinarrituta dago (modulu guztiena, ordu-kopuruaren arabera).

KOMUNIKAZIO-ARDURADUNA: kanpo-komunikaziorako kanalak eta bitartekoak elikatzea; webguneaz eta sare sozialez arduratzea, beharrezko komunikazio-estrategien arabera...

BERRIKUNTZA-ARDURADUNA: erronka pedagogikoei nahiz legeei erantzungo dien irakaskuntza-eredua definitzea; konpetentziakako lanketa ahalbidetzea; irakasle-taldeari euskarriak ematea beren lanean erronka berritzaileak inplementatu ahal izan ditzaten... Lan hau guztia zuzendaritza-taldearekin batera bideratu beharko du.

Konpetentzietan hezteko, orokortua da hezkuntza-arloko adituen artean proiektutan lan egiteak duen garrantzia. Ezinbestekoa da ikasten ari garena testuinguru errealekin konektatzea, eta ikasleen interesetatik ahal bezain gertukoak diren gaiak jorratzea. Konpetentzien gaineko ikasketa esanguratsua, kritikoa eta gogoetatsua bideratu dezakete horrela ikasleek.

Edukiak memorizatzetik, etorkizunerako beharrezkoak diren gaitasunak geureganatzera igaro beharra daukagu. LOMLOEk 8 konpetentzia gaketan emaitzak lortzea du helburu, ikasleak herritar arduratsuak, kritikoak eta solidarioak izan daitezen. Esan bezala, konpetentziak testuinguruarekin lotuta ulertu behar dira konpetentzia izan daitezen, bestela kualifikazioa edo prestakuntza hutsa lirake. Oinarrizko 8 konpetentzietako bakoitza honako 3 mailetan banatzen da: kognitiboan (ulertu eta barneratu), instrumentalean (ezagutzen erabilera emaitzak eskuratzeko) eta jarrerazkoan (egoeren aurrean erreakzionatzeko gaitasuna). Hauek dira oinarrizko 8 konpetentziak: 1) komunikazioa; 2) eleaniztasuna; 3) matematika, zientzia, teknologia eta ingeniari (STEM); 4) digitala; 5) norbera ezagutu, gaitasun sozialak eta ikasten ikasi; 6) hiritartasuna; 7) ekintzailetasuna; 8) kultura-jabekuntza eta -adierazpidea.

Curriculum dekretuak eta hezkuntza-konpetentziek lotura handi samarra izan behar dute ikaslearen irteera-profilarekin. Ebaluazioari dagokionez, hona hemen zenbait zertzelada: ikasgaiak transbertsalak izan behar direla eta konpetentziak ebaluatu beharra dagoela xedatzeaz gain, dekretuak dio ebaluazioa jarraitua izan behar dela, Batxilergoan -DBHn ez bezala- berreskurapenek jarraituko dute, Batxilergoko lehenengo mailatik bigarrenera suspenditutako 2 ikasgairekin pasatu ahal izango dute ikasleek, eta USEra Batxilergoko titulua duten ikasleak aurkez litezkeen arren, salbuespenez, ikasgai bat gainditu gabe duten ikasleak ere aurkeztu ahal direla esaten du, baldin eta ikastetxeko irakasle-taldeak hala egitea onzat joko balu.

Berrikuntza-arduradunaren gidaritzapean, honakoak dira egin beharreko zenbait lan: Ikasle-profilaren ezaugarriak LOMLOEren funtsezko konpetentziekin lotu. Ikasle-profilaren ezaugarriak ebaluazio-irizpideekin eta lorpen-adierazleekin deskribatu. Ikastolako proiektu eta ekintzak ikasle-profilaren ezaugarrien arabera antolatu eta ebaluatu. Ikastolaren jarduera integralean ikasle-profileko ezaugarrien irismenaren argazkia zein den etengabe behatu, beharrezko doiketak eta hobekuntzak inplementatzeko. Ikasle-profilaren ezaugarriak diziplinetan txertatu eta ebaluatu, eta diziplinarteko jarduerak birdiseinatu eta horiek praktikan jarri, diziplinarteko jarduera horien bitartez ikasle-profilaren ezaugarrien araberrako lanketa eta ebaluazioa egiteko.

...

Kargu hauek guztiak irakasle diren langileek bete ditzakete edo Ikastolako beste edozein langilek, dozentea ez bada ere (beti ere nahikoa gaitasun, ezagutza eta esperientzia baldin baditu, noski; eta, hori ebaztearen ardura, Zuzendaritza-taldearena izango da eta, azken batean, zuzendariarena).

Jarduera osagarriak (eskola-ordutegiaren barrukoak, arloko programazioarekin lotura dutenak, ebaluagarriak direnak) eta eskolaz kanpokoak izan ditzake Ibaizabal Ikastolak. Hauetarako irakasle arduradunak egon litezke, ondorioz. Ardura hauek proiektuak esleitzearen bidetik har ditzake irakasleak edo bestelako sistemaren baten bitartez (adibidez, prestaketarako dituen lan-orduetatik edo borondatez).

3.2. GAINDITU GABEKO IRAKASGAIK:

Gainditu gabeko irakasgaiak dituzten ikasleen irakasle arduradunak ondoko funtzio hauek izango ditu:

- Irakasleek aurreko urteetan gainditu gabe utzi dituzten irakasgaien informazioa jasotzea.
- Irakasle horien tutoreei eta Sailburuei aipatu informazioa pasatzea.
- Ohiko eta ezohiko azken ebaluazioetan ikasle horien notak jarri behar dituztela Sailburuei gogoraraztea.

3.3. EBALUAZIOA ETA PROMOZIOA:

Ebaluazio-bileretan, taldearen tutorea den irakasleak koordinaturik eta, hala badagokio, Orientatzailearen laguntzaz, Irakasle-taldeak agiri bidez kontsignatzen ditu, aurrez elkarrekin deliberatu ondoren, bilera bakoitzaren egunera arte burututako ebaluazio-jardueren emaitzak.

EBALUAZIORAKO BALDINTZAK

Ebaluazio-bilera baliozkotzat hartu ahal izateko, ondoko baldintzak bete beharko ditu gutxienez:

- Taldeko Irakasle guztiak bertaratu ahal izateko ordutegi egokiaz egin beharko da.
- Dagokion taldeko Irakasle guztietatik, gutxienez 2/3 egon beharko dute bertan.
- Irakasgai bakoitzeko notak eta estatistikak, hala nola Ikasketa-Burutzak galdatutako beste edozein agiri, ebaluazio-bilera egin baino 24 ordu lehenago, gutxienez, osatu beharko dituzte Irakasleek.
- Tutoreak arlo edo jakintzagai bakoitzeko emaitzen txostena ekarri beharko du, non eguneko ebaluazioaren zein aurrekoen, azken hauek baleude, emaitzak azalduko diren.

BILERAKO AKTA

Ebaluazio-bilera bakoitzeko Ebaluazio-Akta bana idatziko da eta bertan ondoko gaiak jasoko dira gutxienez:

- Bertaratutako Irakasleen zerrenda eta guztien sinadura.
- Irakasgai desberdinetan lortutako emaitzen eta sortu izan litezkeen arazoan analisia.
- Taldearen egoera orokorraren analisia, errendimendu akademikoaren eta jarreraren nahiz arazoan arabera.
- Izan litezkeen banan-banako arazoan analisia eta hartu beharreko heziketa-errefortzuko neurriak edo bestelako jarduerak.

PROMOZIO-IRIZPIDE OROKORRAK

Hurrengo hezkuntza-ziklora abiatzeko, ikasleak oinarrizko gaitasunak eskuratu dituela hartuko da kontuan edo lortu ez dituen ikaskuntzek ez dutela oztopatuko ziklo berria probetxuz jarraitzea. Honako kasuan, ikaskuntza horiek jasotzeko, ikasleak beharrezko laguntza jasoko du.

Ebaluazio-taldearen partaideen arteko adostasunik ezean, ikasleak ziklo berberean beste urtebetea emateko erabakia ebaluazio prozesuan esku hartzen duen taldearen bi herenek hartu beharko dute.

Batxilergoa.

Ikasgai bakoitzeko irakasleak erabakiko du ikasturtea amaitzean ikasleek aurreikusitako gaitasunak lortu dituzten ala ez, oinarrizko erreferentzia gisa ebaluazio-irizpideak hartuz.

Irakasleek ikasleek ikasitakoa zein ikaskuntza-prozesuak eta beren irakaskuntza ebaluatuko dituzte.

Ikasleek gainditu ez dituzten ikasgaien ezohiko proba bat egin ahal izango dute ikasturte bakoitzeko ekainaren 30a baino lehenago.

Lehenengo maila bukatzean, eta ebaluazio-prozesuaren ondorioz, irakasle-taldeak bigarren mailara pasatzeari buruzko erabakiak hartuko ditu.

Bigarren mailara pasatuko dira ikasitako ikasgai guztiak gainditzen direnean edo gehienez bi ikasgaitan ebaluazio negatiboa jasotzen denean.

Bigarren mailara ikasgai guztiak gainditu gabe pasatzen direnak gainditu gabe dituzten aurreko mailako ikasgaietan matrikulatu behar izango dira. Ikastetxeek errekupeziarako jarduerak eta gainditu gabeko ikasgaien ebaluazioa antolatuko dituzte.

Batxilergoa egiteko gehienezko epea gainditu gabe, ikasleek ezingo dute Batxilergoko kurtso bakoitza behin, gehienez ere, errepikatzeko aukera, salbuespen gisa, eta irakasle-taldeak aldeko txostena eman ondoren, kurtsoetako bat bigarren aldiz errepikatu ahal izango duten arren.

Batxilergoko bigarren maila errepikatzen duten ikasleek titulua lortzeko geratzen zaizkien ikasgaietan matrikulatu ahal izango dira, gainditutako ikasgaiak berriz ikasi beharrik gabe, edo ikasturte osoa errepikatu ahal izango dute.

Batxilergoa edozein modalitatetan behar bezala egiten duten ikasleek Batxilergoko titulua jasoko dute, eta titulu horrek lan- eta ikasketa-ondorioak izango ditu.

Batxilergoko titulua lortzeko Batxilergoko bi ikasturteetako ikasgai guztien ebaluazio positiboa jaso beharko da. **Salbuespen gisa, irakasgai guztiak bat izan ezik gainditu** dituen ikasleak batxiler-titulua lortzea erabaki dezake irakasle-taldeak, baldin eta titulu horri lotutako gaitasunak eta helburuak lortu dituela jotzen bada ikasgai horretan, etengabe eta justifikatu gabe huts egin ez badu (ezingo dira izan jakintzagai bakoitzaren guztizko ordu kopuruaren % 20 baino gehiago) eta Ikaslea proba guztietara aurkeztu izana eta ebaluatzeko beharrezkoak ziren jarduera guztiak egin izan, baita ezohiko deialdietakoak ere. Nolanahi ere, batxiler-titulua lortzeko, beharrezkoa izango da ikasgai bakoitza gainditzeko eskatzen den batezbesteko kalifikazioa edo handiagoa izatea.

Musika eta dantzako ikasketa profesionalak amaitzen dituzten ikasleek Batxilergoko titulua jasoko dute Batxilergoko ikasgai orokorrak gaindituz gero.

Heziketa-zikloak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko otsailaren 19ko Agindua Lanbide-heziketako Heziketa-zikloen ezarpenari eta ebaluazioari buruz arautzen duena hartuko da kontuan eragin eta ondorio guztietarako.

4. IKASTETXEAREN BARNE-ANTOLAMENDUA

Gure ikasleek Ikastetxean, lan-giroan, beren giza- eta gogo-gaitasunak garatzeko leku egokia izan dezaten Ikastola, ondoko arauak hartuko dira kontuan:

4.1. GURE ARTEKO HARREMANAK ZAINDUKO DITUGU

- Edozein leku zein jardueretan, gure harremanak zein jarrerak elkarrenganako errespetuan oinarrituko dira.
- Indarkeria-jarrerak saihestuko ditugu; gure arteko arazoei irtenbidea bilatuko diegu modu ez gatazkatsuan.
- Ingurukoak ezagutu eta baloratzen ahaleginduko gara eta begirunez tratatuko ditugu:
 - o Isekak, irainak, baztertzak, goitizenak, txantxa desegokiak... ekidingo ditugu.
 - o Modu baketsuan jokatu dugu; bultzakadak, mehatxuak, eraso fisikoak saihestuko ditugu.
 - o Solaskideari aurpegira begiratuko diogu eta modu lasaian hitz egin.
 - o Gauzak modu egokiz eskatuko ditugu eta eskerrak eman.
 - o Lankidetzan arituko gara.
- Inguruko edozein kideren kontrako jarrerak ematen badira, horiek eman edota errepika ez daitezen ahaleginduko gara.
- Irakasle, monitore, hezitzaile eta arduradunak ere begirunez tratatuko ditugu. Horien kasuan kontuan hartu behar dugu haiengana zuzentzeko erabili beharreko erregistroa ez dela lagunen artekoa, formala baizik. Haien agindua beteko ditugu eta azalpenak modu egokiz emango dizkiegu.
- Ikastolan eta ikastolako jarduera guztietan euskaraz hitz egingo dugu, eta gure ingurukoek ere euskaraz hitz egin dezaten eskatuko dugu.
- Irteerak eta jarduera osagarrietan jarrera egokia gordeko dugu:
 - Hezkuntza-ekintzak direnez, ikasleok bertan parte hartzeko betebeharra daukagu, non eta horretarako arrazoi sendorik ez dugun. Horrelakoetan familia-kide arduradunen idatzizko justifikazioa behar dugu (ikasle adingabeen kasuan).
 - Irteera edo jarduera horietan ikasleok ikastolako araudia beteko dugu.
 - Ikasleok irakasleek eta arduradunek esandakoa edo agindutakoa beteko dugu.
 - Jarduera etxebizitza, egoitza... batean egiten bada, bertako araudia ere errespetatuko dugu.
 - Joan-etorrietan erabiltzen ditugun ibilgailuetan doazen gidari eta beste bidaiariei eragozpenik ez sortzeko jarrera eta ahots-doinu egokia erabiltzen dugula zainduko dugu. Ibilgailua txukun utziko dugu eta ezingo da bertan jan edo edan.
 - Ibilbidean doazen beste oinezkoek pasabidea eragozten ez diegula zainduko dugu: espaloietan, eta abarretan nahikoa tarte utziz.

4.2. GELAK. LAN- ETA BIZIKIDETZA-ESPARRUA.

Gela da irakatsi eta ikasteko Ikastetxean duen esparru fisiko nagusia eta, horregatik, irakasleek zein ikasleek bereziki zaindu behar dituzte.

Ikasleak zein irakasleak puntualtasunez bertaratu behar dira. Gelaren batean irakaslea faltako balitz, talde horretako ikasleen ordezkioak atea zabalik utzi eta arazoaren berri emateko zaintzan dagoen irakaslearengana joko du irakasleen gelara joanda.

Gelan sartzean, klaserako behar duten materiala hartu eta bakoitza bere lekuan eseriko da.

Ikasleek ez dute gela barruan jolas edo korrika egin behar, ezta oihuka ibili ere; isiltasuna eta ordena mantendu behar dute klaseak normaltasunez eman daitezen.

Ikasle guztiek egun horretan dituzten klaseetarako behar duten materiala ekarri behar dute.

Leihoetatik burua atera edo korridoreetako ateetara irtetea debekatuta dute ikasleek.

Ikasleek Ibaizabal Ikastolaren espazioak erabiltzeko aukera izango dute eskola-orduetatik kanpo ere: ikasteko, hala izendatuta dauden ikasgeletan (2 egongo dira: bat bakarkako ikasketarako eta beste bat taldeko lanak egiteko). Apartekoetarako (ikasleen bilerak egiteko-edo), baimena eskatu beharko dute zuzendaritzan.

Ikasleek klase-orduak ahal duten gehien aprobetxatu behar dituzte eskola-errendimendua egokia izan dadin.

Ikasleek gelako materiala eta altzariak zaindu behar dituzte. Zerbait hautsi edo erabileraz hondatuz gero, gela horretako ikasleen ordezkioek tutoreari azalduko dio konponbidea bilatu dakion.

Ikasleren batek nahita zerbait hautsiko balu, hautsitakoaren konponketa edo ordezkapena ikasle horren gurasoen kontura joango da.

Ikastetxeko paretetan edo gelatako beste zenbait lekutan, kartelak, posterrak edo irudiak jarri edo itsastea debekaturik daukate ikasleek, eskola-jarduerari dagozkionak salbu. Halaber, geletako altzariak, atea eta paretak zikindu edo margotzea debekatuta dago.

Irakaslearen baimenik gabe, ikasleek debekatuta dute komunetara irtetea.

Gela barruko mahaiak eta aulkiak ordenaz ipinita mantenduko dituzte ikasleek eta irakasleek erabakitako lekuan eseriko dira.

Gela barruan irakasleek adierazitakoa aintzat hartuko dute ikasleek.

Aurreko arau hauek guztiak Ikastetxeko edozein esparruri aplikatu dakizkieke: gimnasioa, laborategiak, etab...

Ikasgeletan ezin da ezer jan edo edan.

- Ikastolako instalazioak eta materialak bertako kideen erabilerarako dira eta kide garen guztion ardura da haien zaintza.
- Ikastola garbia eta ordenatua izango dugu guztiok.
- Lanerako materiala zainduko dugu.
- Gure ardura izango da mahaia eta apala txukun izatea; gelako materiala zaintzea. Eguneko azken saioa amaitzean, gelako aulkia mahai gainean jasoko dugu. Garbiketa-txandak ezarrita dauden bezala beteko ditugu.
- Zaborra zakarrontzira eta birziklatzeko gaiak dagokien ontzira botako ditugu.

4.3. SARRERA ETA IRTEERAK

Ikasle guztiak ordenaz sartu behar dira geletan, korrika, bultza eta oihuka egin gabe.

Irakasleak ahaleginduko dira klaseen hasiera eta amaiera puntualtasunez egiten.

Ikastetxetik edo atsedenalditik sartu eta irtetean, ikasleak komunetara joan daitezke.

Irakaslearen baimenik gabe ezin daiteke geletatik atera, ezta klase tartean korridoreetako atetik burua atera.

Sarrera eta irteeretan, horretarako erabakita dauzkaten eskilarak erabiliko dituzte.

Beste leku batetara joateko (Informatika, laborategia, etab...) ikasleak gelatik irtengo balira, ordenaz, isiltasunez eta irakaslearen laguntzaz egin beharko lukete, irteera klase erdian izanez gero.

Korridoreetan ahalik eta denbora gutxien emango da. Ikasleak ez dira gelatik kanpo egongo, egin beharrekorako aurretik eman zaion baino denbora gehiago.

4.4. PUNTUALTASUNA

Ikasleak puntualtasunez etorri beharko dute ikastetxera. Puntualtasun-arazoak ikasleen lanean eragiten dute, beren ikaskideen hezkuntza-jarduerak erritmoa atzeratu edo aldatzen.

Berandu datorren ikasleak bere gurasoek sinatutako egiaztagiria ekarriko du non berandu etortzeko arrazoia zehaztuko den. Egiaztagirik gabe datorrenari falta jarriko zaio.

Puntualtasun-faltak errepikatzea, hutsegite arintzat jo daiteke.

Puntualtasun-falta astean bi alditan edo hilean lautan emanaz gero hutsegite errepikatua da.

Familia kidei edo, hauek ezean, tutoreei puntualtasun-falten berri emango zaie idatziz.

Ikasturte hasieran familiarekin izandako bilkuran, puntualtasunari buruzko xehetasun guztiak emango zaizkie.

4.5. KLASERA ETORTZEA ETA HUTSEGITEEN KONTROLA:

Irakasle bakoitzak eta, tutoreek gehienbat, ikasleak eskolaratu diren begiratuko dute.

Irakasle bakoitzak klase-orduan falta diren ikasleen izena erregistratuko du.

Klaseetara ez etortzea ondoko hauetan justifika daiteke:

- Gaixotasuna edo istripua, dirauen bitartean.
- Sendagilearenera joatea, horretarako behar den denboran.
- Izaera familiar, pribatu edo publiko duen utziezinezko betekizunerako behar den denbora.
- Beste edozein arrazoi, aurrekoak izan ezik, tutoreak justifikagarritzat jotzen duena.

Ikasleren batek, osasun-arazoak dituela-eta, jardueraren bat egiterik ez badu -hezkuntza fisikoa, esaterako- sendagilearen ziurtagiriaz frogatu beharko du.

Batxilergoan 4 hutsegite (justifikatuak izan ala ez) dira gehienez onartzen direnak ebaluazio eta ikasgai bakoitzeko. Ikasgai guztien artean ezingo dira 20 hutsegite baino gehiago batu. Lanbide-heziketan eskola-orduen % 20ko bertaratze eza da ebaluazio eta ikasgai bakoitzeko gehienez onartzen dena.

4.6. KORRIDOREAK, ESKAILERAK ETA IGAROBIDE KOMUNAK

Ikasle guztiak ikastetxeko korridoreetan ordena eta isiltasuna gorde beharko dute, sarrera zein irteeretan, klase-aldaketetan edo bestelakoetan. Pasilloak erabiltzean isilik eta lasai ibiliko gara, besteren lana galarazi edota oztopatu gabe. Pasillo eta eskaileretan besteei pasabidea eragozten ez diegula zainduko dugu. Bizikletak uzteko lekua egoki erabiliko dugu.

Klaseen arteko uneetan ikasleek ezin dezakete komunera joan.

Klaseen arteko unetan ikasleek, ezin daitezke korridoretarako ateetara azaldu ezta, baimenik gabe, horietara atera ere.

Ikasleak bere gelara arin joango dira, ordenaz, bultza eta oihu egin gabe, etab...
Gelatik irteten ari diren ikasleek ez dituzte oraindik besteetan daudenak molestaturiko, ez dute beste gelatako ateak joko ezta beste ikasleei korridoretan itxaron.

4.7. KOMUNEN ERABILERA

Ikasleek komunak ikastetxean sartu eta irteterakoan eta atsedendian erabil ditzakete.

Ikasleek ezin dezakete baimenik eskatu klase-orduetan o hauen tartetan komunera joateko.

Tutoreak sendagilearen ziurtagiria eska diezaieke gurasoei beren seme-alabak komunera maiztasun handiagoz joateko beharra dutela erakusten duena,

Ikasleek komunak zaindu behar dituzte, garbi eduki, ateetan margotu gabe eta bertan behar duten denbora egon eta ez gehiago.

Komunetan margotzea eta bertan nahita egindako kalteak hutsegite larritzat joko dira.

4.8. ATSEDENALDIAK. PATIOAK

Batxilergo eta Heziketa Zikloetako ikasleak beren geletan edo korridoretan gera daitezke atsedendian, betiere, bizikidetzara-arauek beteta.

Heziketa Zikloetako eta Batxilergoetako ikasleak Ikastetxearen esparrutik irteten daitezke atsedendian.

Ikasleek patioak garbi eduki behar dituzte, paperontziak erabili eta bertan pintaketak egin gabe.

Atsedendia bukatzean, ikasleak zein irakasleak puntualtasunez bertaratuko dira geletara.

4.9. GAILU DIGITALEN ERABILERA

2024/25 ikasturtean azpimarra jarri behar izan zitzaion gai honi, eta berariazko lanketa sakona egin aurrez, legeak gailu digitalen erabilera ikastetxeetan arautu beharra ezarri eta gero.

Horrek ez du esan nahi Ibaizabal Ikastolan aurretik gaia araututa ez zegoenik. Hain zuzen ere, honakoak ziren irizpide orokorrak:

- Mugikorrek: Ikasgelan ezingo da sakelakoa bistan eduki, ezta piztuta ere, horretarako irakaslearen baimenik izan ezean.
- Ezin dira baimenik gabe gelan, jangelan, jardueretan erabili: mugikorrek/sakelekoak, musika-tresnak...
- Ikastolara ekartzen den materiala ikaslearen ardurapean dago. Hala ere, gisa horretako tresnek duten balio ekonomikoa handia denez, komenigarria litzateke horiek ikastolara ez ekartzea (dena den, halakoak gordetzeko, takillak eskaintzen ditu Ikastolak).
- Ezin dira besteen irudiak (ezta audio-grabaketak ere) baimenik gabe hartu, partekatu edota erabili.

Bide horretan segituz eta sakonduz, ordea, testuinguru zabalagoa ezarri zaio gai honi Ikastolan 2024tik aurrera. Jarraian atal oso bat eskainiko diogu gaiari.

Atal honetan Ibaizabal Ikastolako gailu digitalen eta bereziki telefono mugikorren erabileraren araudia azaltzen da. Bertan ikus daitezke:

1. Araudiaren MARKO LEGALA, hau da, zein dekretu betetzeko sortu den.
2. Araudiaren MARKO PEDAGOGIKOA. Ikastolaren irakurketa propioa, marko legala bermatzeaz harago, Ikastolak bere hezkuntza-proiektuarekin lerrotatzen den eta berau indartzeko balio izango duen dokumentua izan dadila.
3. Gailu eta teknologia digitalen erabilerari dagokionez, ikaslearen ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN azalpena.
4. Ikastolaren eremuan eta ordutegian mugikorren erabilerarako ezarritako NEURRIEN azalpena.
5. Mugikorren ERABILERA ETA JARRERA DESEGOKIEN SAILKAPENA ETA ARAU-HAUSTEEN ONDORIOAK.

Ibaizabal Ikastolan gailu digitalak eta bereziki telefono mugikorren erabilera zehazten duen atala da hau, hezkuntza-komunitatearen bizikidetza arduratsu eta osasuntsuak eraikitzeke asmoa duena. Ikaslearen **betebeharra** da ondorioz, dokumentu hau ezagutzea eta bertan azaltzen denaren arabera jokatzeko.

Era berean, ikasle moduan konpetentzia digitalak garatzeko beharrezko bitarteko teknologikoak eskura izateko **eskubidea** ere ezagutzeko eta ikasturtean zehar berau bermatzen dela ziurtatzeko aukera emango du araudi honek.

Garrantzitsua da kontuan hartzea **Ikastolako bizikidetza positiboa** erraztuko duten ohiturak eta estrategiak bultzatzeko idatzi dela, hezkuntza-komunitatearen **kide guztien ongizatea** bermatzeko. Izan ere, **aukera eta hobekuntza** berriak emateaz gain, **teknologiak arrisku eta mehatxu-iturri** ere badira eta horiei aurre egiteko haien **neurritzko erabilera egokia sustatzera** goaz.

1. MARKO LEGALA

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa eskaintzen dituzten funts publikoekin sostengatutako ikastetxeetan telefono mugikor eta erloju adimentsuen erabilera arautzeko zenbait alderdiri buruzko Hezkuntza sailburuordearen eta Lanbide Heziketako sailburuordearen 2024ko urtarrilaren 18ko jarraibidea betetzeko sortu da araudi espezifiko hau.

2. MARKO PEDAGOGIKOA

Araudi hau idatzi eta jarraian zehazten diren neurriak eta ondorioak ezartzeko oinarritzko printzipioak hurrengoak dira:

. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIA DIGITALAK:

Teknologia digitalek erabat aldatu dute komunikatzeko, sortzeko, partekatzeko eta ikasteko modua eta azken bi hamarkadetan eremu honetan egin diren aurrerapen handiek erronka teknologiko, etiko eta sozial bat suposatu dute esparru guztietan.

Hezkuntzaren arloan, teknologia digitalek ikaskuntza-irakaskuntza praktikak hobetzeko eta dibertsifikatzeko aukerak zabaltzen dituzte baina, arrisku- eta mehatxu-iturri bihurtu dira era berean.

Aurrerapen hauen guztien artean, bereziki mugikorren erabilerak eragin zuzena du ikaslearen garapenean eta elkarreraginean. Hezkuntzaren eremuan, mugikorrekiko nerabeek daukaten mendekotasuna kezagarria da: jakinarazpenek, sare sozialek eta entretenimendu-aplikazioek eragindako etengabeko distrazioek eragin nabarmena daukate eskola-kontzentrazioan, ikaskuntza-prozesuan eta ikaslearen errendimendu akademikoan.

Era berean, ziberjazarpena, baimenik gabe informazio edota eduki pribatuak zabaltzea, edozein izaerako eduki pornografikoetara iristeko erraztasuna... nerabeengan izaten ari diren inpaktua eta problematika ukaezinak dira. Honek guztiak garapen emozionalean, sozialean eta sexualean modu negatiboan eragiteko arriskuak areagotzen ditu.

Ikastolak sinesten du ikasleak digitalki ahalduntzeko eta IKTen erabilera seguruan eta etikoan heziak izateko eskubidean. Horretarako bitartekoak eskaini eta bizikidetzarako neurriak ezartzea dagokigu. Hori ulertuta, konpetentzia digitala garatzeko eskubidea ziurtatu, baina ikastolako kideen segurtasunerako eta pribatutasunerako eskubideak modu berean bermatzeko telefono mugikorren erabilera mugatzeko eta arautzeko beharra agertu da.

. ARAUA. ONGIZATE KOLEKTIBOAREN BERMEA:

Arautze hau, Barne Araudia bere osotasunean bezala, Ikastolako komunitate osoa zaintzeko eta guztiguztion eskubideak zaintzeko akordio kolektibo bezala ulertu beharra dago. Ez da goitik-beherako inposaketa bat, baizik eta komunitatearen zaintzarako guztiok hartu beharreko konpromisoa.

Testuinguru honetan segurtasun eta pribatutasunerako eskubide indibidualak zaintzeko, mugikorren erabilera mugatzea elkarzaintzarako ekintza bezala uler daiteke eta ideia horretan sakondu eta horrekin bat egiteko eskatuko zaio ikasleari, guztiontzako espazio seguruagoa eraikiko dela pentsatuz.

. IRTEERA-PROFILA ARDATZ:

Ikastolan egiten den guztiak etorkizunerako euskal herritar euskaldun eta euskaltzaleak, kritikoak, feministak, autonomoak eta ekintzaileak heztea du helburu. Esparru honetan, eta burujabetza teknologikoaren ideiarekin lotuta, mendekotasunik gabe, kritikotasunez eta askatasunez erabakiak hartzen dituzten ikasleak hezi nahi ditugu.

Egunero eta etengabe erabiltzen dituzte ikasleek informazio eta komunikazioen azpiegiturak eta teknologiak ikasteko zein harremanak ehuntzeko. Ibaizabal Ikastola, ikasleek azpiegitura eta teknologia hauen aukeraketa modu arduratsuan eta kontzientean egiten ikasteko, bizikidetzara positiboa, segurua eta etikoa sustatzeko eta ikasleen ikaskuntza-prozesua arrakastaz bideratu ahal izateko espazio seguru bilakatu nahiko genuke.

Zehazki, mugikorren erabilerak suposatu dezakeen arriskua ulertuta, eskura dituzten bestelako bitartekoak baliatu eta Ikastolako komunitatea osatzen duten kide guztien pribatutasunarekiko eta ongizatearekiko konpromisoarekin heldutasunez eta kontzienteki Ikastolan berau ez erabiltzeko hautua egin dezaten konbentzitu nahiko genituzke.

3. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

“Batxilergoko curriculumak, hurrenez hurren arautzen dituzten 75/2023, 76/2023 eta 77/2023 dekretuetan konpetentzia digitala ezartzen dute funtsezko zortzi konpetentzien artean. Hala, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak ezartzen duen 77/2023 Dekretuak ikasleen irteera-profila definitzen du eta haren gaitasun digitala ezartzen du, bizitza osoan gainditu beharko dituzten erronka nagusiei aurre egiteko prestatzeko, gaur egungo gizarteak, bereziki aro digitaleko kulturak, eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu kritikoan aztertzeko eta aprobetxatzeko gaitasuna izan dezaten, haien onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizitza pertsonalaren eta kolektiboaren kalitatea hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.”

[HEZKUNTZA SAILUBURUORDEAREN 2024ko urtarrilaren 18ko JARRAIBIDetik]

ESPARRU DIGITALEAN CURRICULUMA GARATZEKO ESKUBIDEA

Curriculumaren garapenaren esparruan, eta betiere ikaskuntza-prozesuari lotuta, gailu digitalak eskola-orduetan erabiltzea aurreikusiko da, ikasgelaren barruan programatutako jarduera didaktikoak garatzeko. Ikaskuntza-prozesua arrakastatsua izan dadin beharrezko bitarteko digital eta teknologikoak eskainiko zaizkio ikasleari.

BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA GARATZEKO ESKUBIDEA

Ikasgelaren barruan programatutako jarduera didaktikoez harago, ikasleek erabiltzen dituzten tresnen gaineko kontrola eta ahalmena izateko, arriskuak ezagutzeko, mendekotasuna saihesteko, giza duintasuna errespetatzeko eta parte-hartze sozial eta aktiborako gaituak izan daitezen, lanketa bereziak eta kontzientziazio-ekintzak aurreikusiko dira.

ESKOLA-EREMU SEGURURAKO ESKUBIDEA

Edozein izaerako jazarpenak saihesteko, berariazko baimenik gabeko argazki edota bideoen grabaketak saihesteko, pribatutasun eta datuen babesa bermatzeko, ikasleek, bai eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten gainerako eragileek ere, ikastetxean seguru eta babestuta sentitzeko eskubidea dute.

MUGIKORREN ERABILERA ARDURATSUA EGITEKO BETEBEHARRA

Ikasleek ikastetxeko barne-araudian ezartzen diren neurriak errespetatzeko betebeharra dute, arau hauek guztiontzako hezkuntza- eta bizikidetzagiro egokiak eraikitzeke balio dutela ulertuta. Testuinguru honetan, hezkuntza-komunitateko edozein kideren eskubide indibidualak eta pribatutasuna errespetatu behar dituzte, eskubide hauen kontra edo kide hauen kontra kalteak eragin diezazkiekeen edozein ekintza saihestuz.

4. GAILU DIGITALAK ERABILTZEKO NEURRIAK

ERABILERA-ORDUTEGIA ETA -EREMUA

Eskola-ordutegiak irauten duen bitartean eta eskola-eremu osoan (taberna eta terrazan/belardian izan ezik), Batxilergoko ikasleek ezingo dute telefono mugikorra erabili. Mugikorrak etxean, takillan edo motxilan izan beharko dituzte (inola ere ez eskura), beti itzalita edota "hegaldi moduan". Eraikinaren barruan debekatuta egongo da momentu oro. Atsedendietan, aldiz, eraikinetik kanpo, autonomiaz eta heldutasunez, erabilera arduratsua egiteko aukera izango dute, araudi honetan jasotzen diren bestelako baldintza guztiak betetzen dituzten bitartean. Lanbide-heziketako ikasleen kasuan, ordea, ikasle-profila bestelakoa den aldetik, eta legeak ere bestelako kontsiderazioa ematen dien neurrian -adinez nagusi izateari dagokionez, batez ere-, Ikastolaren barruko espazio komunetan mugikorra erabiltzen utziko zaie, baina ez ikasgelaren barruan eskola-jardueran daudela -hartarako baimen espresua eman ez badie irakasleak, noski-.

ERABILERA ARDURATSUAREN ZEHAZTAPENA

Ikastolan mugikorren erabilera arduratsua bi printzipio nagusitan laburtu da:

- Denbora eta espazioa: mugikorra erabiltzeko espazioak eta denbora-tarteak errespetatzea, ikaskuntza-prozesua ez eragozteko, bitartean mugikorra araututako tokietan eta moduan gordeta izanik.
- Irudiak, bideoak eta baimenak: komunitateko-kideen pribatutasuna eta duintasuna errespetatzea. Ezin izango da ikastolaren eremuan argazkirik atera edota bideorik grabatu, are gutxiago agertzen den pertsonaren berezko baimenik gabe.

Salbuespeneko egoerak: mugikorra aldamenean izateko salbuespeneko egoerarik balego, ikasleak eta familiak tutoreari aurretiaz jakinarazi beharko dio. Posible den guztietan ikastolako telefonoa erabili ahal izango du (eskola-orduetan) edo atsedendialdi-ordura itzarongo du.

5. ARAU-HAUSTEAK ETA ONDORIOAK

Araudi honetan jasotzen diren neurrien aurkako jarrerak, ikastolako bizikidetzaren aurkako jarreratzat eta, ondorioz, kide guztien ongizate kolektiboaren aurkako jarreratzat hartuko dira. Hortaz, arau-hauste moduan sailkatu eta horren arabera ondorio eta neurri zuzentzaileak aplikatuko dira.

Erabilera arduratsua egitea eta mugikorren mendekotasuna txikitzea, biak ala biak ikasketa-prozesu baten barruan ulertuz, hurrengo protokoloan zehazten dira:

A) DENBORA/ESPAZIO PRINTZPIOAREN ARAU-HAUSTEAK

. Lehenengo arau-haustea den kasuetan >> Arau-hauste arina
Ikasleak mugikorra itzalita entregatuko du, eta egunaren bukaerara arte irakasle-gelan gordeko da. Tutorearen bitartez, familiari arau-haustearen berri emango zaio.

. Bigarren arau-haustea den kasuetan >> Arau-hauste larria
Ikasleak, aste batez mugikorra itzalita entregatuko du goizeko 08:00etan eta egunero, eskola-ordutegia amaitzerakoan, irakasle-gelatik pasatzeko aukera izango du berau etxera eramateko. Ikasleak familiak sinatzeko idatzizko jakinarazpena jasoko du.

. Hirugarren arau-haustea den kasuetan >> Arau-hauste oso larria
EAEko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzko 201/2008 Dekretua aplikatuko da, eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarriko dira.

- ✓ 26. artikulua. Betebeharra ez betetzea zehazten da.
- ✓ 31. artikulua n) atala eta 35. artikulua. Neurri zuzentzaileak.

B) IRUDI, BIDEO ETA BAIMENEN ARAU-HAUSTEAK

Egindako erabileraren arabera sailkatu beharko da arau-haustea eta, ondorioz, A ataleko prozedura jarraituko da arau-hauste arin moduan jotzen den kasuetan. Bestalde, arau-hauste larria edo oso larria dela jotzen den kasuetan, pertsonen ohorerako, intimitaterako, irudi propiorako eskubidea urratu dela edota diskriminazioa dakarren jokabidea izan dela ebazten delako zuzenean, EAEko Ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzko 201/2008 Dekretua aplikatuko da.

4.10. BOTIKAK EMATEA

Irakasleek ez dute ikasleei botikak emateko ardura, eta horri dagokionez, eskola orduetan gertatzen diren istripuen protokoloa bete beharko dute.

4.10.1. IKASLEA IKASTOLAN DAGOEN BITARTEAN GAIXOTZEN BADA EDO ISTRIPUA BADU

Irakasle arduraduna (ikaslearen tutorea) familiarekin harremanetan jarri beharko da, ikaslearen bila etor daitezen eta bere herriko osasun-zentrorara eraman dezaten.

Istripua edo gaixotasuna larria bada, larrialdietara eraman beharra dago ikaslea. Beharrezkoa balitz, taxiari deituko dio Ikastolak, irakasle tutorearen bitartez. Bestelako agiri edo dokumenturik ez du eraman behar ikasleak. Nola jokatu jakingo ez bagenu, edo zalantzaren aurrean, 112ra deitu.

ERANSKINA: [ikus 56. orrialdetik aurrera ere >>> alderdi orokorrak; ikasleen eskubideak eta betebeharrak; jokabide desegokiak; bizikidetzaren aurkako jokabideak; bizikidetzaren aurkako jokabide larriak; neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak; erantzukizuna arintzen duten inguruabarrak; erantzukizuna larritzen duten inguruabarrak; prozedura bertan behera uztea adiskidetzeari gertatu delako; prozedura bertan behera uztea jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik; neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea; bizikidetzaren konpromisoa hezigarriak; neurri zuzentzaileen xedapen orokorrak; urratsak; eranskinak.]

5. IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK: IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN DEKRETUA

ATARIKO KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea eta ezarpen-eremua.

1.– Dekretu honen xedea ikastetxeetako bizikidetzaren esparrua arautzea da, legeek hezkuntza-jarduerari atxikitzen dizkioten helburuei jarraiki ikasleek gizarte demokratiko, plural, tolerantia eta berdintasunean oinarrituan elkarrekin bizitzen ikas dezaten, dagozkien betebeharrak betetz, Dekretuan arautzen diren eskubideak baliatuz eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak errespetatuz.

2.– Dekretu hau unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak ematen dituzten eta guztiz ala partzialki fondo publikoekin finantzatzen diren EAEko ikastetxe guztietako ikasleei aplikatuko zaie.

2. artikulua.– Eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko printzipio orokorrak.

1.– Ikasle guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte. Eta beren adinaren eta egiten dituzten ikasketen mailaren arabera baliatuko dituzte eskubide eta betebeharrak horiek.

2.– Ikasleek beren eskubideak baliatuko dituzte, beren betebeharrak betetzea eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak aintzat hartu eta errespetatzea bazter utzi gabe.

3.– Hezkuntza-komunitateko kide guztiek, ikasleei dagokienez, Dekretu honetan bildu diren eskubideak errespetatu behar dituzte. Beste guztien eskubideen errespetua izango da ikasleentzako muga beren eskubideez baliatzerakoan.

4.– Ikastetxeetako gobernu-organismoak eta irakasleek ikasleen eskubideak egoki baliatzen direla eta betebeharrak zorrotz betetzen direla bermatuko dute, Dekretu honetan aurreikusitakoari jarraiki.

3. artikulua.– Printzipio orokorrak ikasleek beren betebeharrak ez betetzean izandako jokabideak zuzentzeko.

1.– Ikasleen betebeharrak ez betetzea beti hartuko da, gutxienez, jokabide desegokitza. Ez-betetze horrek hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea eragozten dien neurrian, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideetat edo bizikidetzaren aurkako jokabideetat hartuko da.

2.– Ikasleen betebeharrak ez betetzeko jokabide guztiak lehenbailehen zuzendu beharko dira, zuzendu beharreko jokabidearekin lotutako neurrien bitartez.

3.– Neurri zuzentzaileek helburu hezigarria izango dute, batez ere, hala zuzendu behar den jokabidea egin duen ikaslearentzat, nola gainerako ikasleentzat. Neurri zuzentzaileak hezkuntza-jardunaren baitan beteko dira, hainbat arlotako oinarrizko gaitasunak lortzen laguntzeko, hala nola gizarte- eta herritartasun-arlokoak nahiz autonomia eta ekimen pertsonalaren arlokoak.

4.– Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen printzipioak kontuan izanda ezarriko dira, eta adiskidetzearen eta kalte-ordainaren bidez irtenbidea lortzeari emango zaio lehentasuna, betiere ahal den hezkuntza-eraginkortasunik handiena lortzearren.

4. artikulua.– Dekretu honek tipifikatu gabeko jokabideei neurri zuzentzaileak aplikatzeko debekua.

1.– Ezein ikasleri ez zaio neurri zuzentzailearik aplikatuko Dekretu honetan ezarritakoaren arabera jokabide desegoki gisa, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide gisa definituta ez dauden egite edo ez-egiteengatik.

2.– Ikasturte bakoitzaren hasieran hezkuntza-komunitate osoak zer jokabide zuzenduko diren jakin dezan, ikastetxeek Dekretu honen edukia nahiz ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian bildutako bizikidetzara-erabakiak ezagutzera eman edo gogoraraziko dizkiete irakasleei, ikasleei eta haien guraso edo legezko ordezkari, hartarako komenigarrien deritzoten prozeduraren bidez.

5. artikulua.– Bizikidetzaren planak ikastetxeen barruko bizitza arautzean.

1.– Jokabideak zuzentzeko prozedurak ikastetxeen praktikan integratu beharko dira hezkuntzako beste baliabide bat izango balira bezala. Funtz publikoek osorik edo parte batean sostengatzen dituzten ikastetxeetako bizikidetzarako planetan jasota behar du jokabideak zuzentzeko prozedurak. Ikastetxe horiek, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak xedatutakoarekin bat, Bizikidetzarako planak onetsi behar dituzte Hezkuntzako beren proiektuen parte gisa.

2.– Bizikidetzaren plan horrek berdinen artean, generoen artean eta kulturen artean bizikidetzarako funtsezko oinarritzat hartuko du norberaren eskubideak baliatzea eta besteen eskubideak errespetatzea, baita irakasleen, ikasleen eta irakasleak ez diren langileen arteko harremanetarako ere. Agiri horretan, gatazkak modu baketsuan ebazteko, adiskidetzeko eta kalte ordaintzeko bitartekotza-prozedurak jaso beharko dira, baita bizikidetzarako hezkuntza-konpromisoak hartzeko zuzentarauak eta ikastetxean bizikidetzaren behatokia antolatzekeo neurriak ere.

5.1. I. KAPITULUA: IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

5.1.1. 1go. ATALA.- IKASLEEN ESKUBIDEAK

6. artikulua.– Hezkuntza integrala izateko eskubidea.

1.– Ikasleek beren nortasuna guztiz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea dute.

2.– Hezkuntza integral horretan, oinarrizko gaitasunak, zientziaren eta kulturaren arloko edukiak eta lan-ohitura intelektual eta teknikoak hartu ez ezik, garapen harmoniatsua ere bultzatuko da honako hauei dagokienez: afektibotasuna, autonomia pertsonala, autoestimua, besteekiko eta ingurunearekiko harremanak izateko gaitasuna, eta jarduera profesionaletan, intelektualetan nahiz aisiakoetan jarduteko gaitasuna. Prestakuntza horrek barnean hartzen du ikasleek euskal herriko kide gisa beren kultura-nortasuna aurkitzea eta derrigorrezko irakaskuntza amaitu ondoren bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gai izatea.

3.– Ikastetxeetako hezkuntza eta curriculum proiektuak helburu horretara bideratuko dira, betiere, legeek hezkuntzari esleitzen dizkioten helburuen barnean. Hain zuzen ere, proiektu horietan 3/2005 Legearen —otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoaren— 24.2 artikuluan adierazitako alderdiak bilduko dira, baita 4/2005 legearen —otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoaren— 29. artikuluan adierazitakoak ere. Era berean, programazioek eta irakasleen lan orok kontuan izango dituzte alderdi horiek, eta irakasleen aginpideak bermatuko duen lan-giroan garatu beharko da, eskola-jardueren barnean nahiz eskolatik kanpokoetan eta osagarrietan, eta irakasle guztien laguntzarekin.

7. artikulua.– Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko.

1.– Ikasle adingabeek ikastetxeen nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea dute.

2.– Arreta hori zuzenean eskainiko da eskumen-eremuari hala badagokio. Ez badagokio, aitzitik, erakunde edo zerbitzu eskumendunari kasua helaraziko zaio. Era berean, gurasoei, adingabearen tutoreari edo, beharrezkoa balitz, Fiskaltzari gertakarien berri emango zaie berehala.

3.– Ikastetxeak eta bertako irakasleak, ikasleei behar duten arreta berehala ematea bazter utzi gabe, behartuta daude tratu txarrak edo haurren ba besik gabeko edo arriskuko egoeren berri ematera adingabeen babesari buruzko eskumena duten Herri Administrazioei, edo, beharrezkoa denean, Fiskaltzari edo Agintaritza Judizialari. Esku-hartzeen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren adina datu eta informazioen berri eman beharko dute, eta aipatutako Administrazioei laguntza eman beharko diete egoera horiek saihestu eta konpontzeko.

4.– Hala ere, beti kontuan izan beharko dira adingabearen lehentasunezko interesak. Era berean, derrigorrezko eskolatzeko adineko ikasleren bat eskolatu gabe dagoela edo ikasleren batek absentismo-maila handia duela atzematen bada, Hezkuntza-agintariei eta tokiko erakundeei jakinarazi beharko zaie, eskola-absentismoan inplikatura dauden Administrazio eta Erakunde guztien arteko lankidetzak lortzearen. Nolanahi ere, behar den diskrezioz jardungo da, eta ikasle adingabearen bizitza pribatuan sartzea saihestuko da beharrezkoa ez bada.

5.– Emakumeen eta haurren aurkako indarkeria-zantzurik atzeman badute, irakasleak behartuta egongo dira zantzu horiek ikastetxeko gobernu-organoei jakinaraztera, Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babesteari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 25. artikuluan nahiz Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 31. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

8. artikulua.– Ikastetxeak babesteko ikasle adingabeek duten eskubidea.

1.– Ikasle adingabeek ikastetxeak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute.

2.– Ikastetxeetako gobernu-organoei behar diren neurriak hartuko dituzte bereziki ikasleen ohorerako, intimitaterako eta irudi propioarako eskubideei inork eraso edo kalte egin ez diezaien, eta, horretarako, beren Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudien barruan edo Barne Erregimenean teknologia berrien erabilera arautzeko eta horiek mugatzeko mekanismoak garatu ahalko dituzte.

3.– Ikastetxeetako gobernu-organoez zainduko dute ikasleen bizitza pribatua, familia, etxean edo postan ikastetxeko inor arrazoirik gabe edo legez kanpo ez dela sartzen. Familiei, ikasleen bitartez, soilik ikastetxeko bizimoduari, irakaskuntza/ikaskuntzako jarduerari eta tutoretza-ekintzari buruzko jakinarazpenak, komunikazioak eta agiriak emango zaizkie, eta horiek guztiak honako hauek emango dituzte: administrazio-organoez, gobernu-organoez edo ikastetxeko koordinazio didaktikoak, beren funtzioen barruan, irakasleek eta gurasoen edo ikasleen legez eraturako elkarrean ordezkariek.

4.– Ikastetxeetako gobernu-organoez, irakasleek nahiz administrazio- eta zerbitzuetako langileek beren lanbide-jardueraren bidez ikasleei eta haien familiei buruz eskuratzen dituzten datu pribatu guztiak behar den diskrezioz erabiliko dituzte.

5.– Era berean, ikastetxeetako gobernu-organoez eragotziko dute ikasleei buruzko informazioa hedatzea edo haien irudia edo izena erabiltzea komunikabideetan, ikasleen intimitateari, duintasunari, ohoreari, ospari edo legezko interesei kalterik egin ez diezaieten.

9. artikulua.– Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea.

1.– Irakasleek eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aintzat hartu eta balioets diezaieten.

2.– Aipatu berri dugunaren berme gisa, beren antolakuntza- eta funtzionamendu-erregelamenduan edota barne-erregimeneko erregelamenduan, ikastetxeek hainbat gauza bermatuko dituzte: batetik, irakasle guztiak ebaluatzeko irizpideak, helburuak eta edukiak ezagutzen dituztela; eta, bestetik, ikasturte amaierako nahiz ikasturte bitarteko ebaluazio-saioen ondotik, ikasleei, haien gurasoei edo –adinez txiki direnean– legezko ordezkariei informazioa emango zaie. Era berean, hala eskatuz gero, azken kalifikazioaren gain eragina izango duten lanak, ariketak eta probak zuzendu ondotik ikusteko aukera bermatuko zaie. Horrela, bermatu egingo da aipatu probak berrikusteko eskubidea. Bermatuko da ere azken kalifikazioen kontrako barne-errekamazio prozedura egotea. Prozedura hori betetzekoa da, egoki balitz, dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara jo aurretik.

3.– Ikastetxeek irakasleak ikasturte osoan ebaluatzeko erabili diren proba, lan eta ariketa guztiak gordetzeko beharrezkoak diren neurriak ezarri beharko dituzte, ezohiko azken deialdiko kalifikazioak erreklamatzeko epea amaitu arte. Errekamazioa egiten bada, aurkeztutako erreklamazioa ebazteko kontuan hartu beharko diren eta erreklamazioa egin duten ikasleei itzuli ez zaizkien zuzendutako ariketa eta lan guztiak nahiz gainerako irakasleak gorde beharko dira konparaketa-oinarri gisa erabiltzeko, horiei buruzko administrazio-erabaki bat edo ekintza judizial bat egin daitekeen bitartean.

Proba ebaluagarrien berrikuspen-prozesua Ibaizabal Ikastolan uneoro zein den kontsultagarri dute familiek eta irakasleek webgunean, familien atalean. Bistan denez, prozesu hau beti egongo da egokituta legeriak esaten duenera, nahiz eta berezitasunak izan ditzakeen berrikuspen-prozesu hori baliagarriagoa gerta dadin iraslearentzat, bere aurrerapen akademikoari begira.

Hala, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan ezarritakoaren arabera, irakasleak adingabeak direnean, familiak eta irakasleak legezko tutoreak eskuratu ahal dituzte bai ebaluazio-dokumentu ofizialak, bai haien seme-alabei egiten zaizkien ebaluazio-dokumentu ofizial guztiak, eta baita ebaluazioei buruzko ebidentzia guztiak ere. Hezkuntzak ezarritako V. eranskina jarraituko dugu, eta horretarako Ibaizabalen hurrengo prozedura dugu ezarrita arautzeko eta errazteko ikastolaren barruan ikasturte osoan irakasleak irakaskuntza-prozesuari buruz egiten diren lan, ariketa eta proba ebaluagarrien berrikuspen-eskaerak [segidakoa eskema laburra baino ez da]:

- Ebaluazio ez-ofizialak berrikustea (azterketak, lanak, ariketak, kalifikazio partzialak...) → eskaera-orria tutoreari > berrikuspen-bilera arloko irakasle, tutore, ikasle eta familiarekin > azterketa/ariketaren kopia eskuratzeko aukera.
- Ebaluazio ofizialak berrikustea eta erreklamazioak (Ohiko deialdia, Ezohiko deialdia) → barne-erreklamazioa: irakasle-ikasle berrikuspena > familia-ikasle-tutore-irakasle berrikuspena > balizko erreklamazioa zuzendariari > erreklamazioaren xede den jakintzagaiaz arduratzen den saileko buruaren kontrastea edo ikasketa-buruarena. → Kanpo-erreklamazioa, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren aurrean.

10. artikulua.– Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea.

1.– Ikasleek hezkuntza- eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea dute. Orientazioa ikasleen trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetan oinarrituko da, eta sexuan edo bestelako zirkunstantziaren batean oinarritutakoak baztertu egingo dira.

2.– Eskubide horrek honako hauek hartzen ditu barnean:

a) Ikasleei, ikastetxean sartzen direnetik, hezkuntza-orientazioko zerbitzuak ematea, aukera egokiak eginez, ikasle bakoitzaren trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetarako ikasketa-planik egokiena aukeratzeko, batez ere maila edo ziklo bakoitzaren amaieran.

b) Eskaintzen zaizkien aukerei buruzko aholkuak ematea ikasleei, enpleguaren egoerari eta aurreikuspenei buruzko informazioa kontuan hartuta. Horri dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikastetxeek harremanak izango dituzte beren inguruneko Erakunde eta enpresa publiko eta pribatuekin.

11. artikulua.– Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea.

1.– Ikasleek beren osotasun fisikoa eta morala errespeta diezaieten eskubidea dute, baita beren nortasun eta duintasun pertsonala ere, eta ez zaie inoiz tratu iraingarri edo laidogarria emango. Era berean, zeinahi eraso fisiko edo moralaren aurrean babesa jasotzeko eskubidea dute.

2.– Jokabideren bat zuzendu behar zaienean, arbitrariotasunik gabeko neurrien bidez zuzenduko zaie, eta Dekretu honetan ezarritako berme formalen arabera betiere. Era berean, ikasleei ezin izango zaie sekula zigor fisiko edo moralik ezarri.

3.– Ikasleen jarduera akademikoa segurtasun- eta higie- baldintza egokietan egin beharko da. Antolakuntza eta Jarduera Araudiek edo Barne Araudiek zehaztu beharko dute jolastokiak nola zaindu behar diren, eta ikasleek zalantza izpirik gabe jakin beharko dute unean-unean zein irakaslerengana edo ikastetxeko zein arduradunengana edo zein agintari akademikorengana jo dezaketen edozein eraso fisiko edo moralen aurkako babesa berma diezaien.

4.– Ikastetxeetako gobernu-organoei, irakasleek eta ikastetxeko gainerako langileek berdinen arteko tratu txarrak ezabatzen lagunduko dute, ezarritako prozedurei jarraiki eta Zuzendariari haren berri emanez, hark Hezkuntza Administrazioari jakinaraz diezaion.

5.– Eskola-eremuan ez da inola ere tabakoa, alkohola edo bestelako drogarik edukitzen eta kontsumitzen utziko.

12. artikulua.– Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.

1.– Ikasleek eskubidea dute beren kontzientzia-askatasuna eta beren erlijio-sinesmenak nahiz sinesmen moral eta ideologikoak errespetatu diezazkieten.

2.– Eskubide horren berme gisa, ikasleek, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuari, eta, hala badagokio, ikastetxearen nondik norakoari buruzko informazio nahikoa izan beharko dute matrikulatu aurretik.

3.– Ikasleek erlijioaren eta moralaren arloan beren sinesmenekin bat datorren irakaskuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatuko dute ikastetxeek, baita horrelako irakaskuntzarik ez jasotzekoa ere, eta aukera horrek ez du diskriminaziorik eragingo. Era berean, ikastetxeetan ematen den irakaskuntzak inolako manipulazio ideologikorik ez izatea bermatuko dute ikastetxeek.

13. artikulua.– Ikastetxeetan biltzeko eskubidea.

1.– Ikasleak ikastetxeetan bildu ahal izango dira eskolako nahiz eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzeko, baita hezkuntza edo trebakuntza xede duten jarduerak gauzatzeko ere.

2.– Antolakuntza eta Jarduera Araudiek edo Barne Araudiek biltzeko eskubidea baliatzeko modua, ordua, espazioak eta lekuak arautuko dituzte, baita derrigorrezko aurretiazko baimentzeak edo jakinarazpenak, edo bertaratu daitezkeenak ere. Horretarako kontuan hartuko da irakatsi eta ikasteko jardueren garapen normalean izan dezaketen intzidentzia-maila.

3.– Ikastetxeak bere Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo bere Barne Araudian ezartzen dituen baldintzetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik gorako ikasleek eskolara bertaratzeari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira jokabide desegokizat, bizikidetzaren aurkako jokabidez edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidez hartuko eta horiei erantzuteko ez da neurri zuzentzailerik ezarriko, betiere biltzeko eskubidea baliatuta hartu badira eta alde aurretik ikastetxeko Zuzenbuzari jakinarazi bazaizkio, ikastetxeak ezarritako arauak jarraiki.

14. artikulua.– Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxeetan.

1.– Ikasleek adierazpen-askatasunerako eskubidea dute, beren iritzia askatasunez, bakarka eta taldean, adierazi ahal izateko.

2.– Ikastetxeetako Antolakuntza eta Jarduera Araudiek edo Barne Araudiek zehaztuko dute idazki bidez adierazpenerako eskubidea baliatzeko modua eta espazioak.

3.– Ikasleak artikuluko honetan eta aurrekoan adierazitako eskubideak betetzeko eskola-eremutik ateratzekoak badira, gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute, baldin eta adinez txiki badira. Idazki horretan, ikastetxetik ateratzeko baimena zer ordutan ematea eskatzen den adierazi beharko da, hala badagokio, erantzukizun zibilak zehazteko, eta derrigorrezkoen ondorengo hezkuntzetako ikasle en kasuan izan ezik; azken horien kasuan, gurasoen edo legezko ordezkarien idazki bidezko baimen orokorrarekin nahikoa izango da.

15. artikulua.– Ikasleek elkartzeko duten eskubidea.

1.– Ikasleek elkartzeko eta elkarrekin, federazioak nahiz konfederazioak osatzeko eskubidea dute, indarrean dauden legeetan oro har xedatutakoarekin bat.

2.– Ikastetxeetako Antolakuntza eta Jarduera Araudietan edo Barne Araudietan erabakitakoari jarraiki, ikastetxeek lokal egokiak utzi beharko dizkiete ikasleei ikasle-elkarteen berezko jardueretarako, betiere azpiegiturak ezarritako mugak kontuan izanik eta jarduera akademikoa eten gabe. Ahal den neurrian, utzitako lokalak premiei egokitzen zaizkiela eta behar bezala erabiltzen direla bermatu beharko du ikastetxeo zuzendaritzak, bai elkarrekin modu iraunkorrean erabiltzeko izaten diren lokalen kasuan, baita unean uneko premiaren arabera erabiltzen diren kasuan ere.

16. artikulua.– Parte hartzeko eskubidea.

1.– Ikasleek ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea dute, indarrean dauden arabei jarraiki.

2.– Horrez gain, ikasleen partaidetzarako organo espezifikoak eratu beharko dira, ikastetxe publiko edo itunpeko ikastetxe pribatu bakoitzak bere Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo bere Barne Araudian ezartzen duenaren arabera. Gutxienez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrera ikasturte eta talde bakoitzeko ordezkariak egongo dira, baita ordezkari horiek kide izango diren kide anitzeko organo bat ere.

3.– Erregelamendu horiek hainbat funtzio ezartzen dizkiote ikasleen partaidetzarako organo kide anitzari. Artean, gutxienez, Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan ikasleen ordezkari izango direnei aholkuak eman eta laguntza eskaintzea. Ordezkariek aipatutako organoetara eramango dituzte ordezkatzeko maila, berezitasun edo lanbide-familien arazo zehatzak. Ikasle horiek Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan proposamen edo eskaera guztiak aurkeztuko edo beroriei helaraziko dizkiete. Horrez gain, ordezkariak enpresetan praktikak egiteko hitzarmenei buruzko informazioa jasoko dute eta praktiken jarraipenean parte hartu. Ordezkariek, halaber, Ordezkaritza Organo Gorenaren nahiz ikasle ordezkariaren arteko informazioaren garraioa izango dira.

4.– Edonola ere, ikasleen ordezkari izango direnak zuzeneko nahiz isilpeko bozketaren bidez hautatuak izan behar dira taldeko edo mailako bakoitzeko ikasleen artean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaz edo horren baliokideaz geroztik. Lehen Hezkuntzako ikasleak dituzten ikastetxeetan, Antolakuntza eta Jarduera Araudiak edo Barne Araudiak ikasleen adinerako egokienak diren parte hartzeko mekanismoak ezarri ahal izango ditu.

17. artikulua.– Informazioa erabiltzeko eskubidea.

1.– Ikasleek, adinaren eta heldutasun-baldintzen arabera, beren garapenerako informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.

2.– Ikastetxeetako gobernuko organoek haien eskubideak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia emango diete ikasleei.

3.– Ikastetxeetako ikasleek eskubidea dute informazioa jasotzeko beren partaidetzarako taldeko organo-kideen eta Ordezkaritza Organo Goreneko edo Eskola Kontseiluko ordezkarien eskutik, bai ikastetxeko gaien inguruan, bai, oro har, Hezkuntza Sistemari dagozkion gaien inguruan.

18. artikulua.– Aukera-berdintasunerako eskubidea.

1.– Hainbat arlotako gabeziak eta desabantailak (pertsonalak, familia-arlokoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) konpentsatzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea dute ikasleek, batez ere hezkuntza-premia bereziak badituzte, hain zuzen ere Hezkuntza Sistemaren sartzea eta bertan irautea zailtzen dizkieten hezkuntza-premia bereziak badituzte.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskubide hori bermatzeko, ikasleen premiei egokitutako laguntza-politika ezarriko du, baita integrazioa eta hezkuntza-premia bereziei erantzutera bideratutako neurri hezigarriak ere.

3.– Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleek beren beharren arabera arreta jaso beharko dute matrikulatuak dauden ikastetxeetan, ikastetxearen berezko baliabideekin eta Hezkuntza Administrazioak ikastetxearen esku jarri dituen baliabideekin.

4.– Ikastetxeek beste zerbitzu publikoekin eta udaletako, lurraldeetako nahiz Autonomia Erkidegoko beste zerbitzuekin harremanak izango dituzte arlo soziokulturalean eta arlo ekonomikoan bereziki behartsuak diren ikasleen premiei erantzuteko.

19. artikulua.– Gizarte-babeserako eskubidea.

1.– Ikasleek hezkuntza-arloan gizarte-babesa jasotzeko eskubidea dute, familia-ezbeharren edo istripuen kasuan.

2.– Osasunaren eta Gizarte Segurantzaren arloan indarrean dagoen legeriaren arabera dituzten eskubideak alde batera utzi gabe, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezkoak diren baldintza akademiko eta ekonomikoak ezarriko ditu familia-ezbeharra, istripua edo gaixotasun luzea izan duten ikasleek beren ikasketei eutsi eta ikasketak amaitzeko edo geroko ikasketei heltzeko aukera izan dezaten.

3.– Kasu horietan, derrigorrezko mailetan diharduten ikasleek beren eskola-errendimendua ziurtatzeko behar den laguntza jasotzeko eskubidea dute. Laguntza hori ikastetxearen bidez, Oinarrizko Urrutiko Hezkuntzako Ikastetxeen bidez, edo Lurralde Ikastetxeen esku dauden Ospitaleko, Etxez Etxeko eta Terapeutikako Hezkuntza-arloko Arretarako baliabideen bidez.

4.– Ikastetxeek babes-neurriak hartu beharko dituzte berdinen arteko tratatu txarren kasuetan eta bereziki eskola-jazarpenen eta emakumeen aurkako erasoen kasuetan. Beharrezkotzat jotzen badute, jazarleak ikastetxez aldatzea berehala proposatu dezakete edo, jazarpenaren biktimek nahiago badute eta hala eskatzen badute, biktimek lekuz alda ditzakete. Nolanahi ere, behar duten laguntza psikologikoa jasotzeko eskubidea izango dute jazarpenaren biktimek.

20. artikulua.– Ikastetxean ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea.

1.– Ikasle guztiek jakin beharko dituzte euren eta gainerako kideei indarreko ordenamendu juridikoan aitortzen zaizkien eskubideak. Era berean, eskubide horiek errespetatzen eta baliatzen ikasi beharko dute, betiere duten adinak horretarako aukera ematen badie.

2.– Beren eskumenen eremuaren barruan, ikastetxeko Gobernu Organoek, baita irakasleek ere, aurreko artikuluetan adierazitako eskubide guztiak eta Legeek nahiz Nazioarteko Itunek ikasleei aintzat hartzen dizkieten eskubide guztiak baliatzeko aukera bermatuko dute. Ikasle adingabeei dagokienez, berezi babestuko dira Adingabearen Babes Juridikoaren urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak nahiz Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak aintzat hartzen dituztenak, eta, oinarrizko printzipio gisa, haurren eta nerabeen interes gorenari emango zaio lehentasuna aldi bereko beste edozein interes legitimoren aurrean.

Era berean, ikastetxeetako Gobernu Organoek eta irakasleek eskubide horiek legeek ezarritako mugei barnean baliatuko direla zainduko dute, eta ikasleentzako harremanetan ezin eratako diskriminazio-egoerarik gerta ez dadin arduratuko dira, hain zuzen ere, honako hauek arrazoitzat hartuta diskriminaziorik gerta ez dadin: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edota beste edozein zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

5.1.2. 2. ATALA: IKASLEEN BETEBEHARRAK

21. artikulua.– Ikasteko betebeharra.

1.– Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak alaitz gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea. Hain zuzen ere, duintasunez bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren gaitasunak lortzearren, behar adinako lana egingo du eta behar den interesez; era berean, lan intelektualaerako giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagundu behar du, eta bere portaerarekin ez du eragozpenik sortuko gelan.

2.– Irakasleak behartuta daude azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera, eta, beraz, beren ahalegina eta irakasleak maila bakoitzean baimendutako liburuak nahiz materialak besterik ez dituzte baliatuko.

22. artikulua.– Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra. Irakasle guztiak hartu behar dute parte prestakuntza-jardueretan, interesez jardunez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.

23. artikulua.– Bertaratzeko betebeharra.

1.– Irakasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.

2.– Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta puntualtasun-hutsegitez: irakasleak edo, irakaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez arrazoitzen ez dituztenak. Horretarako, ikastetxean ezarritako arauen arabera onargarria den justifikazioa aurkeztu beharra dago, Dekretu honetako 13.3 eta 14.3 artikuluetan ezarritakoaren aurka joan gabe.

24. artikulua.– Bizikidetzaren errazteko betebeharra.

1.– Irakasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastetxean eskola-bizikidetzaren hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikasleentzako hezkuntzarako eskubidea eta irakasleentzako eskubideak eta orientazioak errespetatuz.

2.– Horretarako, irakasleek beren ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian bildutako Bizikidetzaren Arauak jakin behar dituzte; irakasle eta hezkuntza-komunitateko kide guztiak eskubideak errespetatu behar dituzte, eta portaera egokia izan behar dute haiekin guztiarekin, besteak beren eskubideak baliatzeko dituzten eskubideak urratu gabe, sortzen diren gatazkak konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiliz, eta betiere ikasleentzako tolerantziaz eta elkartzunez jokatzeko eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideentzako eskubideak baliatzea erraztuz.

3.– Ikasleek bizikidetzarentzat aurkakoak eta larriki kaltegarriak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzeko lagundu behar dute, zuzendariak edo, hala badagokio, instrukzioaz arduratzen den edozein irakaslek eskatzen dienean lekuko gisa deklaratu.

25. artikulua.– Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.

1.– Ikasleek hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte, honako hauek arrazoitzat hartuta inolako diskriminaziorik egin gabe: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

2.– Ikasleek beren ikaskideen erabakiak errespetatu beharko dituzte, ikaskideek adierazteko, biltzeko edo elkartzeko eskubide indibidualak modu kolektiboan baliatzeko ekintzetan parte hartu nahi ez dutenean.

3.– Ikasleek ez dute hezkuntza-komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko ezein adierazpenik egingo.

4.– Ikasleek, eskola-eremuan, ezin izango dute grabazio-baliabiderik erabili, salbu eta ikastetxeak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira. Kasu horietan ere ezin izango dute hezkuntza-komunitateko inor grabatu hark nahi ez badu eta hartarako baimena esanbidez ematen ez badu.

26. artikulua.– Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.

1.– Ikasleek, ordenamendu juridikoak hezkuntza-komunitateko gainerako kideei aitortzen dizkien eskubideez gain, ikastetxeko antolamenduko, bizikidetzako eta diziplinako arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte, ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudiko edo Barne Araudiko xedapenak osorik betez, ikastetxeko Hezkuntza Proiektua errespetatuz, eta, hala badagokio, ikastetxearen ideiak eta izaera errespetatuz, baita horrekin ados ez daudenean ere.

2.– Ikasleek beren eskumenen arloan ikastetxeko gobernu-organoen erabakiak bete beharko dituzte, norberaren garbiketari eta norberaren gauzak, jantziak..., tresnak edo aparatu elektronikoak erabili eta erakusteari buruzkoak barnean hartuta, eta, era berean, atsedendietan eskola-eremutik kanpo egin daitezkeen irteerei buruzko eta irteeretan erakusten duten portaerari buruzko erabakiak ere bete beharko dituzte. Azken batean, osasuna eta higiena zaindako dugu denon artean: ez ditugu ikastolako eremuan eta ikastolarekin egiten ditugun jardueretan alkohola, tabakoa edota beste drogak kontsumituko; debekatuta dago ere horrelakoak ikastolan saltzea edo besteei helaraztea; garbi eta egoki jantzita etorriko gara ikastolara; edozein arrisku-egoera ekidingo dugu eta halakorik antzematean arduradunei adieraziko diegu; e.a.

3.– Era berean, ikasleek irakasleen, hezkuntzako laguntzaileen nahiz legezko araudiak esleitu dizkien funtzioak gauzatu ari diren ikastetxeko irakasle ez diren jarraibideak bete beharko dituzte.

4.– Ikastetxeak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileen barnean hartutako ekintzak betetzeko betebeharra dute ikasleek.

27. artikulua.– Instalazioak errespetatzeko betebeharra.

1.– Ikasleek ikastetxeko ekipamenduak eta material didaktikoak zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute, ikastetxeko, instalazioak, altzariak eta ekipamendu orokorra beren nolakotasunaren arabera eta beren helburuetarako erabiliz, eta, hala badagokio, irakaslearen edo irakasleak ez diren langileen jarraibideen arabera. Ez dute inola ere ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe erabiliko ezarritakoak ez diren helburuetarako, ezta dagokion ordutegitik kanpo.

2.– Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori ikastetxean sartzeko aukera erraztuko, eta ez dira bidegabe sartu den inorekin ibiliko bertan. Ildo horretatik, legez eratu diren eta ikastetxean ezarri diren ikasle-elkarteak ordezkatzan dituzten pertsonak ez dira ikastetxetik kanpoko pertsonatzat hartuko, betiere ordezkari gisa identifikatzen dien dokumentazioa baldin badute eta elkarteko zuzendaritzari beren bisitaren berri eman badiote.

3.– Ikasleek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzak errespetatu behar dituzte eta ikastetxearen testuliburuak nahiz gainerako material didaktikoak erabiltzeko baldintza egokietan mantendu behar dituzte.

5.2. II. KAPITULUA. DESEGOKIAK ETA AURKAKOAK DIREN NAHIZ BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ETA HORIEN ZUZENKETA

5.2.1. 1GO. ATALA XEDAPEN OROKORRAK

28. artikulua.– Zuzendu behar diren jokabideak.

Desegokiak, aurkakoak eta bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak baino ezin izango dira zuzendu.

29. artikulua.– Ikasleen adinari egokitzea.

1.– Dekretu honetan xedatutakoa derrigorrez aplikatuko da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrerako kasu guztietan.

2.– Lehen Hezkuntzan dekretu honetan ezarritako betebeharrerako bat betetzen ez bada, irakasleek jokabide desegokia zuzendu beharko dute horretarako ezarri diren neurrietako bat berehala eta ahoz baliatuz. Neurri horiek aplikatu behar dira pertsonak edota objektuek balizko kalteak jaso ez ditzaten behin-behineko neurri ezarrien aurka egin gabe.

3.– Salbuespen gisa, irakaslearen jokabidea ikastetxeko bizikidetzarentzat larriki kaltegarria izan daitekeenean, eta jokabide hori ikaslearentzat edota hezkuntza komunitateko gainerako kideentzat arriskutsua bada, zuzendariak ohiko prozedura erabili eta dekretu honetan jokabide horiek zuzentzeko ezarri diren neurriak aplikatu ahal izango ditu, betiere, Hezkuntzako Ikuskaritzari aurrez jakinarazpena igorritz.

5.2.2. 2. ATALA: JOKABIDE-MOTA DESBERDINAK

30. artikulua.– Jokabide desegokiak.

1.– Hona hemen jokabide desegokiaren zerrenda:

a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.

b) Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak.

c) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.

- d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespr etxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.
- f) Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.
- g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
- i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.
- k) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.
- l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.
- 2.– Ikastetxeek, beren Antolakuntza eta Jarduera Araudietan edo Barne Araudietan, artikulua honetako 1.l) idatz-zatian argi eta garbi sar daitezkeen jokabideen adibide zehatzak bildu ahal izango dituzte.

31. artikulua.– Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak.

1.– Hona hemen ikastetxeko bizikidetzaren aurkako

jokabideen zerrenda:

- a) Ikastetxeetako lagun bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edota irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.
- b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.
- c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.
- d) Noten buletinetan edo gurasoentzako nahiz legezko ordezkarietzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.
- e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.
- f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.
- g) Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
- h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
- i) Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan, bai bakarka bai taldean, eta betiere bizikidetzaren kalte larria eragiten ez badute.

j) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtzirik gabe erabiltzea.

k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.

l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.

m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hir uhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

n) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan bilduta ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

2. Ikastetxeek, beren Antolakuntza eta Jarduera Araudietan edo Barne Araudietan, artikulua honetako 1.n) idatz-zatian argi eta garbi sar daitezkeen jokabideen adibide zehatzak bildu ahal izango dituzte.

32. artikulua.– Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.

1.– Hona hemen bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zerrenda:

a) Ikastetxeetako Gobernu Organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik gabeko egintza edo obedientzia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen biziki laidogarri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.

b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

c) Jazarpen sexista, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki halakotzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.

d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.

e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokoak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.

f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.

g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.

h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka bai taldean.

- i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan, betiere hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.
- j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldez aurretik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.
- k) Ikastetxeko jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilia aritzea.
- l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutitzea edo baimenik gabe ateratzea ere.
- m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.
- n) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluko horren 1.m) idatz-zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.
- ñ) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzen-zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.
- 2.– Ikastetxeek, beren Antolakuntza eta Jarduera Araudietan edo Barne Araudietan, artikuluko honetako 1.ñ) idatz-zatian argi eta garbi sar daitezkeen jokabideen adibide zehatzak bildu ahal izango dituzte.

33. artikulua.– Ikastetxetik kanpo egindako jokabide edo egintzengatik erantzukizuna. Aurreko artikuluetan bildutako jokabideak eskolako eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere zuzenduko dira, betiere ikastetxeak programatutako jarduera osagarrien edo eskolaz kanpokoen jardunean egiten badira, jangela- edo garraio-zerbitzuak erabiltzen diren bitartean, edo eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.

5.2.3. 3. ATALA: HEZKUNTZAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA DESEGOKIAK, AURKAKOAK EDOTA BIZIKIDETZARENTZAT LARRIKI KALTEGARRIAK DIREN JOKABIDEEN BESTE ONDORIO BATZUK.

34. artikulua.– Jokabide desegokiak zuzentzea. Honako neurri hauetako baten edo gehiagoren bidez zuzenduko dituzte jokabide desegokiak:
- a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- c) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
- d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.
- e) Zuzendariaren, ikasketaburuaren edota une horretantxe ikastetxearen ardura duen zuzendaritza taldeko kideren baten aurrean agertzeko agindua.
35. artikulua.– Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zuzenketa.
- 1.– Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak aurreko artikuluan zerrendatutako neurriak edo honako neurri hauetako bat edo gehiago aplikatu ahalko ditu:
- a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.
- b) Ohartarazpen idatzia.
- c) Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla.
- d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.

e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez ere.

f) Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoeekin elkarrizketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.

g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.

i) Jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte, betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.

2.– 1.g), 1.h) eta 1.i) idatz-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik 1.a) eta 1.f) idatz-zatietan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

36. artikulua.– Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa.

1.– Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:

a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.

b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.

2.– Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) idatz-zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a) idatz-zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

37. artikulua.– Ikastetxez aldatzeko proposamena.

1.– Ikastetxe-aldaketa ondoko kasu hauetan proposatu ahal izango da:

a) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ikasleari gutxienez bi aldiz zuzendu bazaio, betiere 1.n) idatz-zatian zehaztutakoa salbu, eta lehen zuzenketa gauzatu zenetik ehun eta hogeitau eskola-egun baino gehiago igaro ez badira.

b) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragin dion jokabideak berdinen arteko tratu txarrak edo sexuagatiko jazarpena berarekin badakar.

c) Ikastetxeko irakasle bati eraso egitea.

d) Salbuespenez, hezkuntza komunitateko beste kide batzuei eraso larriak egin izana.

2.– Aurreko atalean zehaztu diren jokabideetakoren baten erantzule den ikaslea adinez handi bada edo Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko ikasketak gauzatzen ari bada, ikaslea urrutiko hezkuntzako ikastetxe batera, gaueko ikastetxe batera edo pertsona helduen hezkuntzarako ikastetxe batera aldatzea proposatu ahalko da.

3.– Ikaslea ikastetxez aldatzeko proposamena Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritari helaraziko zaio. Azken horrek Hezkuntzako Ikuskaritzari txostena bidali eta irtenbiderik egokiena zein den erabakiko du.

38. artikulua.– Etengabeko ebaluazioa egiteko ezintasuna bertaratze-hutsegiteak behin eta berriz egiteagatik.

1.– Aurreko artikuluen arabera dagozkion neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera bazter utzi gabe, bertaratze-hutsegite ugari egin dituztela-eta etengabeko ebaluaziorako ikastetxeak onartutako metodoak eta irizpideak aplikatu ezin zaizkien ikasleek ez-ohiko probetara aurkeztu beharko dute, ebaluazioa egin diezaieten.

2.– Ikastetxeek ezarriko dute proba horien nolakotasuna, betiere dagokion arloa, irakasgaia edo modulua kontuan izanik eta indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraiki.

39. artikulua.– Oinarrizko gaitasun sozial eta hiritarra ebaluatzearen ondorioak. Gizarte - eta herritartasun- oinarrizko gaitasuna zer neurritan atxiki den ebaluatzeko irizpideak finkatzeko orduan, irakasle-taldeek edo dagozkion departamentu didaktikoek kontuan hartu ahal izango dute kontrakoak nahiz bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko neurriek xede dituzten hezkuntzako helburuak bete ez izana.

40. artikulua.– Izan daitezkeen kalteengatik erantzukizuna.

Dagokionean aplika daitezkeen neurri zuzentzaileak alde batera utzi gabe, ikasleen erantzukizuna da ikastetxeko instalazioetan, altzarietan edo materialean, edo ikaskideen gauzetan, eragindako kalteak konpontzea, kalte horiek nahita edo zabarkeria larriki edo ikastetxeak onartutako bizikidetzara-arauden aurkako portaeraren ondorioz egin badituzte. Horren ordez, egin beharreko konponketen kostu ekonomikoa beren gain hartu ahal izango dute, eta beren gurasoak edo legezko ordezkariek izango dira erantzule subsidiarioak legeek aurreikusitakoaren arabera.

41. artikulua.– Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak.

1.– Jokabide deskribatuak zuzentzeko neurriak aplikatzeko, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

a) Jokabide deskribatuek zer neurritan eragozten diete hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak eta betebeharrak betetzea.

b) Hezkuntza komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo autoritatean pairatu duten kaltea, edota jokabide aipatuen ondorioz jasan dezaketena.

c) Ikaslearen jokabidearen gain eragina izan dezaketen inguruabarrak nahiz ikasleak bere betebeharrak bete ez dituela eta 3.3 artikuluan zehazturiko oinarrizko gaitasunetako hutsuneak zuzen balioestea ahalbidetzen duten inguruabar pertsonalak eta sozialak.

d) Jokabidea osatzen duten gertakariak gauzatzearekin zerikusia duten inguruabarrak.

2.– Jarraian aipatuko ditugun inguruabarregatik hain murriztaileak ez diren neurri-zuzentzaileak aplika daitezke eta, era berean, erantzukizuna gutxiagotzen dute. Hona hemen:

a) berehala onartzea zuzentzea merezi duen jokabidea desegokia izan dela.

b) Aurretiaz neurri zuzentzaileak jaso ez izana.

c) Materialari edo ondasun higigarriari edo higiezinei kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.

d) Jendaurrean barkamena eskatzea.

e) Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.

f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

3.– Ondoko inguruabar hauek gertatzen badira, erantzukizuna handituko da eta eskubideak zuzentzeko neurri murriztaileagoak erabiliko dira:

a) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituzten aurka egiten direnean: adinez txikiak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagoak, ikastetxera etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen b este edozein zirkunstantzia.

b) Kaltea nahita egina izatea.

c) Kaltea apropos egitea edo alde aurretik prestatu ondoren egitea.

d) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuilatu izana.

e) Eskola-arloko ordezkaritza-kargua gehiegikeriaz baliatzea jokabidea zuzentzea eragin duten egintzetarako.

5.3. III. KAPITULUA: JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK

42. artikulua.– Xedapen orokorrak.

1.– Ikastetxeetako zuzendariak ahalegina egingo dute bizikidetzaren arazoak konpontzeko, Dekretu honetako IV. kapituluaren araututako prozedurak erabili gabe, eta, ahal dela, kapitulu honetan adierazten diren bide alternatiboak erabilita.

2.– Lehentasunez, zuzendariak ahalegina egingo dute alde hauek adiskidetu daitezkeen: hezkuntza-komunitateko kideren bati eskubideak urratu dizkion ikaslea eta bere eskubideak urratuak ikusi dituen hezkuntza-komunitateko kidea. Horrez gain, eta, posible bada, sortutako kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduko dira.

3.– Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari (jokabide horiek bizikidetzaren aurkakoak izan behar zuten edo bizikidetzari kalte larria eragiten diotenak).

4.– Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak, behin kapitulu honetan adierazitako bide alternatiboak erabilita zuzendu ondoren, soilik ondorio hauetarako jasoko dira ikastetxeetan: ikasleak aurrez hutsegiteren bat egin duen ala ez jakiteko.

43. artikulua.– Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak.

1.– Bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak gertatzen badira, zuzendariak, inolako prozedurarik martxan jarri aurretik, ahalegina egingo dute ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, beren borondatez onartutako neurrien bidez, edo, egoerak hala eskatzen badu, haien gurasoek edo lege-ordezkariek onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedura ririk abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingo da.

2.– Ezingo da horrela jokatu, salbuespenezko egoera hauetan:

a) Adin nagusikoak diren ikasleak izan badira ikastetxearen bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak egin dituztenak.

b) 37. artikuluan adierazitako jokabideak eman badira.

c) Ikastetxean gutxienez bi aldiz egin bada ahalegina bide horietatik konpontzeko bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak, eta ez bada erdietsi lortu nahi zen helburu hezitzailea.

Zuzendu nahi izan diren jokabideak izaera berekoak izan behar dute.

44. artikulua.– Prozedura bertan behera uztea adiskidetzea gertatu delako.

1.– Adiskidetzerik gertatzen bada, eten egingo da prozedura. Adiskidetzea izango da, gertakari hauek ematen badira:

a) Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea bizikidetzaren aurkakoa dela edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkiola, eta, berariaz, urratu egin dituela hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak.

b) Barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.

c) Kaltetua izan den pertsonak, edo, kasuan-kasuan, ikastetxeko organo eskudunak barkamena onartzea.

d) Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.

2.– Adiskidetzak ez du bertan behera utziko prozedura 37. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

45. artikulua.– Prozedura bertan behera uztea kaltea konpondu delako.

1.– Prozedura bertan behera utziko da baldin eta konpondu egiten badira bizikidetzaren aurkako jokabideen eta hari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haien konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.

2.– Kalteen konponketak edo haien konpontzeko konpromisoa hartzeak ez du etengo prozedura, baldin eta 37. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

46. artikulua.– Prozedura bertan behera uztea jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik. Prozedura bertan behera uzteko aukera izango da, baldin eta, zuzendariaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzentzen ari bada familia-eremuan. Ezingo da halakorik egin, jokabidea 37. artikuluan adierazitakoren bat baldin bada.

47. artikulua.– Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea.

1.– Prozedura ebatzi eta kaltetutako pertsonen entzun ondoren, aplikaturiko neurriak baldintzapean etetea erabaki dezake zuzendariak, baita betetze-aldia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizioz edo interesdunak nahiz, interesduna adin txikikoa bada, haren lege-ordezkariek eskatuta, betiere ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela alde aurretik egiaztatuz gero.

2.– Zuzendu beharreko jokabidea berriz gertatuz gero, berrerortzetzat hartuko da, zigorra bertan behera geratuta ere.

3.– Jakinarazi egin behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari neurri zuzentzaileak bertan behera utzi direla arrazoi horiek direla medio.

48. artikulua.– Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak.

1.– Kasu guztietan, kaltetuek barkamena onartu ez dutelako adiskidetzerik lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak bizikidetzaren konpromiso hezigarria sinatuta; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu behako dute. Bizikidetzaren konpromiso hezigarrietan, honako hauek bildu beharko dira, behar bezala zehaztuta, baita denboraren aldetik ere.

2.– bizikidetzari buruzko prestakuntza-jardunak, eta bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko eta horien prebentziorako gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, eurek edo erakunde, ikastetxe edo pertsona egokien bidez gauzatuko dituztenak, hain zuzen ere. Era berean, ikastetxearekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak bildu beharko dira.

3.– Bizikidetzaren konpromiso hezigarriak ez betetzeak etendako neurri zuzentzaileak berehala aplikatzea ekarriko du.

5.4. IV. KAPITULUA: NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK

5.4.1. 1go. ATALA: XEDAPEN OROKORRAK

49. artikulua.– Kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko erabili behar diren prozedurak. Kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko kapitulu honetan arautu diren prozeduretako bat erabili behar da derrigor.

50. artikulua.– Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskumenduna.

1.– Ikasgelan, ikastetxeko beste eremuetan edota ikastetxetik kanpo ikasleak haien zainketa zuzenaren pean dauden bitartean, ikastetxeko irakasle guztiak ikasleen jokabide desegokiak berehala zuzentzeko eskumena dute.

2.– Irakasle guztiak eskumena dute haien aurrean kontrakoa den edo bizikidetzan kalte larriak eragiten dituen jokabidea gertatzen den unean bertan ikasleari errieta egiteko. Irakasleek, halaber, ikaslea zuzendariarengana, ikasketa-buruarengana edo une horretan ikastetxearen arduradun den zuzendaritzako taldeko kideren batengana bidaltzeko eskumena dute, betiere, pertsonak edota objektuek kalteak jasotzea ekiditeko berehala hartu behar diren neurriak bazter utzi gabe.

3.– Zuzendaria da kontrakoak diren edota bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko eskumena duen organoa.

4.– Ordezkaritza Organo Gorena edo Eskola Kontseilua da Dekretu honek ezartzen dituen mugetan zuzendaria hartu dituen erabakiak berrikusteko eskumena duen organoa.

51. artikulua.– Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduren epeak.

1.– Kapitulu honetan arautu diren prozedurekin lotura duten egintzak gauzatzeko epe guztiak eskola-egunetan adieraziko dira.

2.– Ondorio horietarako, eskola-egunak hauek izango dira: egun baliodun guztiak, astelehenetik ostiralera, irailaren batetik ekainaren hogeita hamarrera, oporraldiak izan ezik.

52. artikulua.– Denbora igarotzeagatik prozedurei ekiteko debekua.

Ondoko kasu hauetan, ezin izango zaio inolako prozedurari ekin, ezta desegokiak diren, kontrakoak diren edota bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideen berri edukita ere:

a) Bizikidetzan kalte larriak eragin dituen jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeit egun baino gehiago igaro direnean.

b) Bizikidetzaren kontrakoa den jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik hirurogei baino gehiago igaro direnean.

c) Jokabide desegokia osatzen duten ekintzak edo ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeit egun baino gehiago igaro direnean.

53. artikulua.– Neurri zuzentzaileak aplikatzeko unea.

1.– Neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango dira:

a) Kontrakoak diren edo bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideak zuzentzeko neurriak, erreklamazioak edo helegiteak jartzeko epea amaitzen den unetik aurrera.

b) Jokabide desegokiak zuzentzeko zer neurri aplikatuko diren erabakitzen den unetik aurrera.

2.– Ondoko kasu hauetan ezin izango da neurri zuzentzailerik ezarri:

- a) Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik ehun eta hogeit hamar egun baino gehiago igaro badira.
- b) Bizikidetzaren kontrakoak diren jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik hirurogei egun baino gehiago igaro badira.
- c) Jokabide desegokien kasuan, hogeit hamar egun baino gehiago igaro badira.

54. artikulua.– Ikastetxearen barruan jakinarazpenak nahiz erreklamazioak egiteko modua eta epea.

- 1.– Dekretu honetan arautu diren prozeduren egintzei buruzko jakinarazpenak jakitera eman behar den egintza gertatu eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik egin beharko dira.
- 2.– Kapitulu honetan arautu diren prozeduretan jaso diren erreklamazioak jartzeko epea hiru egunekoa izango da.
- 3.– Dekretu honetan arautu diren prozeduren barruan jaso diren eta hezkuntza-komunitateko kideei helarazi behar zaizkien jakinarazpenak nahiz zitazioak jasotzaileak mezua jaso duela argi jakiteko moduan igorri behar dira.

55. artikulua.– Dekretu honetan arautu diren prozeduretako datu pertsonalak lantzeko, babesteko eta ezeztatzeko bidea.

- 1.– Jokabide zuzenduei buruzko datuak dagokion ohiko edota ohiz kanpoko prozeduraren agirietan soilik ageriko dira. Datu horiek ez dira ikastetxeko fitxategi edota erregistro iraunkorrera transferituko eta, maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzaren Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat zaindu eta aldi baterako beste ikastetxe batera eraman ahal izango dira.
- 2.– Edonola ere, Dekretu honek arautzen dituen prozeduretan sortu diren agiriak suntsitu behar dira. Horrela, bizikidetzaren kontrakoak diren jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu zeneko ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira.

Eta, bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu eta hurrengo ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira.

- 3.– Prozeduraren izapide guztietan prozeduran parte hartzen duten pertsona guztien ohorearen, duintasunaren, intimitatearen eta irudi propioaren eskubideak babestu beharko dira, ikasle adingabeen kasuan batez ere.

56. artikulua.– Erreklamazioak eta helegiteak.

- 1.– Zuzendariak emandako ebazpenaren aurka, ikasleak edo, haren lekuan, haren gurasoek edo legezko ordezkariak, erreklamazioa aurkeztu ahaliko dute Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan. Organo edo Kontseilu horrek erreklamazioa berrikusi ahaliko du, 65. artikuluan ezarri denari jarraiki.
- 2.– Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakiaren aurka, ikasleak erreklamazioa aurkeztu ahaliko dio dagokion Hezkuntzako Lurralde ordezkariari hiru egun balioduneko epean, erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- 3.– Erreklamazio ezestearen aurka interesdunak gora jotzeko errekurtsioa jar diezaiotke Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza sailburuordeari, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

5.4.2. 2. ATALA: JOKABIDE DESEGOKIAK ZUZENTZEA

57. artikulua.– Jokabide desegokiak zuzentzeko ahozko prozedura.

- 1.– Jokabide desegokiak berehala eta ahoz zuzenduko dira.

- 2.– Nolanahi ere, jokabide desegokia zein izan den eta aplikatu izan diren neurri zuzentzaileak idatziz jaso ez badira eta, ikasle adingabeen kasuan, ikasleen gurasoak edota legezko ordezkariak jakinaren gainean jarri ez badira, ezin izango da 31.1.m) artikuluan aurreikusitakoa aplikatu.
- 3.– Kasu guztietan, jokabide desegokiei eta jokabide desegokiak zuzentzeari buruz idatziz edota euskarri informatikoetan jaso diren agiriak ikasturte akademikoa amaitzean suntsituko dira.

5.4.3. 3. ATALA: BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK ETA BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ZUZENTZEKO OHIKO PROZEDURA

58. artikulua.– Ohiko prozeduraren erabilera.

- 1.– Ohiko prozedura erabili ahalko da zuzendu beharreko jokabidea osatzen duten gertakariak nahiz gertakari horien egilea nor izan den bistakoa denean.
- 2.– Prozedura horri ofizioz ekingo zaio eta idazki bidez egingo da. Prozedurak, gutxienez, honako zati hauek izango ditu: hasierako egintza; ikasleak eta, hala badagokio, ikaslearen gurasoek edo legezko ordezkariak, esateko zer duten entzutea; eta prozeduraren amaiera ekarriko duen erabakia.

59. artikulua.– Hasierako egintzaren gutxieneko edukia.

- 1.– Hasierako egintzak honako hauek ekarri behar ditu:
- a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.
 - b) Kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideetako batean kokatzea.
 - c) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplika daitezkeen neurriak, Dekretu honetan zehaztu direnen artean.
 - d) Dagokion neurria aplikatuko den erabakitze eskumena duen organoa zein den, eta organoari horretarako ahalmena esleitzen dion araua.
- 2.– Era berean, Dekretu honetan aurreikusi diren baketzegatiko edo konpontzegatiko eteteak jasoko dira.

60. artikulua.– Hasierako jakinarazpena eta alde zuzentzearen entzunaldirako zitazioa.

- 1.– Hasierako egintza, kasu guztietan, jokabide leporatuaren erantzule den ikasleari jakinaraziko zaio, baita, ikasle adingabea den kasuetan, haren gurasoei edota legezko ordezkariari ere.
- 2.– Hasierako jakinarazpenarekin bat, ikaslearen alde zuzentzearen entzunaldirako zitazioa bidaliko da, baita, hala badagokio, haren gurasoen edota legezko ordezkarien entzunaldirako zitazioa ere. Mintzagai dugun zitazioan, halaber, entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuko dira.

61. artikulua.– Behin-behineko neurriak.

- 1.– Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, bere iritziz beharrezkoa denean eta bizikidetzari eragindako kaltearen larritasunaren arabera, zuzendariak behin-behineko zenbait neurri ezarri ahal izango ditu ikastetxean jarduerak normaltasunez gauzatzeko direla bermatzeko. Neurri horien artean ondoko bi hauek leudeke: batetik, ikasleak eskoletara joateko duen eskubidea aldi baterako etetea, ikasleari eskola zehatz batzuetara edo eskola guztietara joatea debekatuz; bestetik, ikaslea behin-behinekoz taldez aldatzea.
- 2.– Behin-behineko neurriak prozedura amaitu arte bere horretan mantendu ahal izango dira. Behin-behineko neurriak, bidenabar, ezin izango dira aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak baino latzagoak izan.
- Nolanahi ere, ikaslea ikastetxera edo eskoletara bertaratzeko eskubideaz gabetuta egon den denbora oso-osorik zenbatuko da, aplikatutako neurri zuzentzailea betetzeko garaian.
- 3.– Ikasle interesdunei eta, ikasle interesdunak adinez txikiak badira, haien guraso edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie behin-behineko neurri ezarriak zein diren.

62. artikulua.– Entzunaldiaren izapidea.

1.– Entzunaldiaren izapidearen bidez, entzuna izateko eta bere burua defendatzeko ikasleak duen eskubidea bermatu ahal izango da. Horrenbestez, hasierako egintzaren edukiaren gain nahiz ikastetxeak bere erabakiaren oinarri gisa hartuko duen informazio osoaren gain ikasleak egoki deritzon alegazioak egiteko aukera izango du.

2.– Ikaslearen entzunaldia egitea derrigorrezkoa izango da kasu guztietan, ikaslearen adina dena delakoa izanik eta hartu beharreko neurria hartuta ere. Adinez txikiak diren ikasleek entzunaldian beren gurasoek edo legezko ordezkariak laguntzeko eskubidea dute. Azken horiek, nahi izanez gero, beren alegazioak egin ahal izango dituzte, betiere, ikasleak bereak egin ondoren.

3.– Ondoko kasu hauetan, ikasle adingabeen gurasoei edo legezko ordezkariari entzunaldia egin beharko zaie derrigor:

a) Ikasle adingabe horiei leporatzen zaien jokabidea ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragin dituenean.

b) Bizikidetzaren kontrako neurriak direnean, betiere, aplikatu litezkeen neurri jakinarazien artean 35. artikuluko 1.g), 1.h) eta 1.i) ataletan zehaztutakoren bat bada.

4.– Entzunaldiaren izapidea hasierako egintza jakinarazi eta hurrengo eskola-egunean egin beharko da, betiere, gurasoen edo legezko ordezkarien entzunaldia egitea derrigorrezkoa ez bada. Hala ez bada, entzunaldia, gehienez ere, hiru eguneko epean egin beharko da. Interesdunak entzunaldira agertzen ez badira ere, prozedurak bere martxari eutsiko dio.

5.– Aurkeztu diren alegazioak idatziz jaso behar dira.

63. artikulua.– Aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea.

1.– Hartutako erabakia idazki batean bilduko du zuzendariak, arrazoiak azalduta. Era berean, dagozkion gertakizunak eta zuzenbideko oinarriak bilduko ditu, baita erreklamaziorik edo errekurtsorik ebatzi behar izanez gero hartarako eskumena duen organoak kontuan izan beharreko alderdi guztiak bildu ere. Gutxienez, honako hauek agerraraziko dira:

a) Oro har, ikasleei edo, ikasle adingabeen kasuan, haien legezko ordezkariari ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak edo bizikidetzaren kontrako jokabideak zein diren jakinarazi zaien modua.

b) Bizikidetzaren aurkako jokabidea edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea osatzen duten gertakizunen deskribapena.

c) Gaitzesten zaion portaera ikasleari argi eta garbi jakinarazi zaiola ziurtatzea, zuzendu nahi den jokabidearen tipifikazioan portaera hori jasota dagoela azalduz.

d) Ikasleak bere jokabidea onartzeko, ukatzeko, zehazteko edo azaltzeko egin dituen alegazioak edo adierazpenak, eta, hala badagokio, gurasoek edo legezko ordezkariak egin dituztenak, baita egon daitezkeen lekukoaren deklarazioak ere.

e) Zuzendariaren iritziz ikaslearen jokabidearekiko zirkunstantzia astungarriarik, aringarriarik, edo ikaslea errugabetzeko zirkunstantziarik ba ote dagoen ala ez.

f) Ezarriko diren neurri zuzentzaileak. Neurri horiek hasierako egintzaren jakinarazpenean aukerakotzat jo direnak izango dira, ez besterik.

g) Neurriak zer unetatik aurrera aplikatu behar diren. Neurriak inoiz ez dira aplikatuko Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren aurrean erreklamazioak egiteko epea amaitu aurretik.

h) Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren aurrean aipatu erreklamazioa aurkezteko epea.

2.– Zuzendariak bere erabakia hartu beharko du entzunaldia egin eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik. Zuzendariaren erabakia, hortaz, ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie.

3.– Zuzendariak hartutako erabakia helarazi beharko dio Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta ikastetxeko Irakasle klaustruari, horren berri izan dezaten.

64. artikulua.– Dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari, eta, hala badagokio, dagokion Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea.

1.– Neurria bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea zuzentzeko ezartzen den guztietan, idazki horren kopia bat helaraziko zaio dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari. Honako kasu honetan ere helaraziko zaio idazkiaren kopia: bizikidetzaren aurkako jokabidea zuzentzeko ezartzen bada, neurri zuzentzaileak ikastetxera bertaratzeko edo garraio- eta jangela-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aldi baterako kentzea badakar.

2.– Kasu horietan, neurria bete behar duten ikasleak Foru Aldundietako edo Udaletako Gizarte Zerbitzuen laguntza duten familietakoak badira, aplikatu zaien neurria Zerbitzu horiei helarazi beharko zaie, haren berri izan eta jarraipena egiteko aukera izan dezaten.

3.– Artikulu honetan xedaturikoa betetzearen ondorioz egiten diren jakinarazpen guztiak konfidentzialtasun-eskubidearen eta erreserba-betebeharraren babespean daude.

65. artikulua.– Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren aurrean erreklamazioa jartzea.

Ikasleak edo, hala badagokio, haren gurasoek edo legezko ordezkariak eskatuz gero, Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak zuzendariak hartutako erabakia berrikusi ahalko du, eta, hala badagokio, dagokion neurriak proposatuko ditu.

66. artikulua.– Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakia.

1.– Batetik, zein neurri aplikatu behar den erabakitzeko idazki arrazoitua eta, bestetik, ikaslearen edota, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoen edo legezko ordezkarien erreklamazioan jasotako alegazioak kontuan hartuta, Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak neurri hori berretsiko du, betiere Dekretu honetan aurreikusitakoaren arabera dela irizten badio, bestela, erabakia berriz aztertzea erabakiko du.

2.– Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak bere eskumenak eskuordetu ahalko dizkio ikastetxeak Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian ezarrita dituen ordezkari batzordeei edo horretarako eratutako Batzorde bati, betiere Ordezkaritza Organo Gorenako kideek erabakia gehiago osoz onartzen badute. Nolanahi ere, Dekretu honen aplikazioarekin lotutako funtzioak betetzeko, Ordezkaritza Organo Gorenako edo Eskola Kontseilurako legez ezarritako gurasoen, ikasleen eta irakasleen proportzioak errespetatu beharko dira, eta horretarako boto haztatu sistema ezarri ahalko da.

3.– Ordezkaritzako Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak gehienez ere hiru eguneko epean hartu beharko du bere erabakia.

67. artikulua.– Jakinarazpena.

1.– Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren erabakiaren ikaslearentzako edo, hala badagokio, haren gurasoentzako edo legezko ordezkariarentzako jakinarazpenak erabakiaren eduki osoa adierazi beharko du. Jakinarazpenean erabakiaren arrazoiak adieraziko dira, zuzendariaren aurreko erabakia berresten nahiz berrikusten den aintzat hartu gabe, eta, era berean, Hezkuntzako Lurralde ordezkariari erreklamazioa aurkezteko epea adieraziko da.

2.– Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren hitzarmena Lurraldeko Ordezkaritari eta dagokion Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie, betiere, 64. artikuluan jasotako kasuetan.

5.4.4. 4. ATALA: OHIZ KANPOKO PROZEDURA

68. artikulua.– Ohiz kanpoko prozedura noiz erabili beharra dagoen.

Ohiz kanpoko prozedura ondoko kasu hauetan erabili beharko da:

a) Zuzendu beharreko jokabidea osatzen duten ekintzak edo ekintza horien egilea nor izan den kaltetuak edo hirugarren pertsonak salatutakoaren bidez soilik ezagutzen direnean, edota zeinahi arrazoirengatik, ekintza nahiz egilea bistakoak ez direnean.

b) 37. artikuluan aipatzen diren kasuetan.

c) Zuzendariak, kasuaren inguruabarrak ikusirik, neurri zuzentzaile egokia hartzeko ohiz kanpoko prozedura egokiagoa dela iritzi duenean.

69. artikulua.— Ohiz kanpoko prozedurari ekiteko epea.

Zuzendariak prozedurari ekin beharko dio. Prozedurari idatziz ekin behar zaio, gehienez ere, ikastetxeko bizikidetzaren kontrako jokabidea edo bizikidetzaren horretan kalte larriak eragiten duen jokabidea osatzen duten gertakariak ezagutu eta hiru egunetara.

70. artikulua.— Hasierako egintzaren gutxienezko edukia.

Hasierako egintzak honako hauek ekarri behar ditu:

a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena; jokabide hori kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzaren kalte larriak eragin ditzaketen jokabideen artean egon daitekeeneko zehaztapena; eta neurri zuzentzaileak aplikatu behar izaneko aukera.

b) Izapidegilea izendatzea.

c) Dekretu honetako III. kapituluaren jaso diren eta aplikatu litezkeen aukerako bideak erabiliz prozedura eteteko aukera.

71. artikulua.— Izapidegilea izendatzea.

1.— Zuzendariak, ikastetxeko irakasleen artean, izapidegilea izendatuko du.

2.— Irakasle izendatuak izendapena onartu beharko du, betiere, abstenitzeko erregelamenduzko arrazoirik gertatzen ez bada. Erregelamenduzko ziorik gertatzen bada, irakasleak izendapenari uko egin beharko dio.

3.— Izendapenetik kontatzen hasita egun bateko epean, izapidegileak abstentzio-idazkia aurkezten badu, emandako arrazoiak aztertu eta beste izapidegile bat izendatu beharko du zuzendariak, arrazoi justifikatuak daudela iritzi gero. Bestela, hasierako izendapena berretsiko du.

72. artikulua.— Hasierako egintzaren nahiz behin behineko balizko neurrien jakinarazpena.

1.— Hasierako egintza, kasu guztietan, jokabide leporatuaren erantzule den ikasleari jakinaraziko zaio, baita, ikasle adingabea den kasuetan, haren gurasoei edota legezko ordezkariari ere.

2.— Zuzendariak behin-behineko neurriak ezarriko balitu, ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko dizkie, betiere, ohiko prozedurari buruzko 61. artikuluan zehaztu diren baldintzetan.

73. artikulua.— Izapidegilea errefusatzeko aukera.

1.— Ikasleak edo, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak izapidegilea errefusatu ahal izango dute, betiere, izapidegileari uko egiteko arauzko arrazoietako bat gertatzen bada.

2.— Mintzagai dugun jazoera gertatuko balitz eta izapidegileak uko egiteko arrazoiak onartuko balitu, izapidegile berria izendatuko litzateke. Izapidegileak ez baditu onartzen ezesteko arrazoiak, zuzendariak bi aldeek emandako arrazoiak aztertu eta —alde aurretik egoki iritziak txosten eta aholkuak jasota— hiru eguneko epean ebatzi beharko du.

3.— Zuzendariaren ebazpena ikasleari edota, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie.

74. artikulua.— Izapidegilearen jardunak.

Izapidegileak ofizios gaiztatuko ditu ikasle interesdunari leporatzen zaion jokabidea osatzen duten gertakariak ezagutzeko eta egiaztatzeko egoki deritzon ikerketa guztiak. Era berean, kontuan izan beharko ditu ikasleak entzunaldiaren aurretik ekar ditzakeen alegazioak, agiriak edo epaiketarako zehazki elementuak.

75. artikulua.– Jakinarazpena Fiskaltzari.

1.– Izapidegileak jokabide nahiz gertakari egotziak delitutzat edota falta penaltzat har daitezkeela uste badu, halaxe jakinarazi beharko dio zuzendariari, hala badagokio, kasua Fiskaltzaren eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren esku jartze aldera.

2.– Ikaslea adingabea bada, Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako ondorioak betetze aldera, ondoko hauek jakinarazi beharko dira ere:

a) Hala bada, hezkuntzaren eremuan jokabideak zuzendu izana.

b) Hala bada, baketzea gertatu izana.

c) Hala bada, konponketa gertatu izana edo konpontzeko konpromisoa hartua egotea.

3.– Fiskaltzari igorritako jakinarazpenaren kopia bidaliko dio zuzendariak dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkarari.

76. artikulua.– Entzunaldirako zitazioa.

1.– Izapidegileak ikaslea zitatuko du entzunaldia egin dezan. Ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari ere jakinaraziko die. Zitazioan, entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuko dira. 62.3 artikuluan zehaztutako kasuetan, ikaslearen gurasoei edo legezko ordezkariari derrigorrez hitzordua emango zaie.

2.– Zitazioarekin idatzi bat bidaliko da, zeinean honako hauek agertuko diren:

a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.

b) Kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideetako batekin bat datorren.

c) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplika litezkeen neurriak, Dekretu honetan zehaztu direnen artean.

d) Dagokion neurria aplikatuko den erabakitze eskumena duen organoa eta organoari ahalmen hori esleitzen dion araua.

e) Kontrako proba-baliabideak proposatzeko aukera.

77. artikulua.– Entzunaldiaren izapidea.

1.– Entzunaldiaren izapidea gauzatzeko, 62. artikuluan ohiko prozedurari buruz esandakoa aplika daiteke.

2.– Gainera, ikasleari eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari prozedurako agiri guztiak erakutsi behar zaizkie –betiere, indarrean dauden legeek ezartzen duten zuhurtasunaz– egoki deritzotena alegatu dezaten eta egoki deritzeten proba-bitartekoak proposatu ditzaten.

78. artikulua.– Ebazpen-proposamena.

1.– Entzunaldiaren izapidea amaitutakoan, izapidegileak frogak -aldez aurretik zeudenak, bereziki lekukoen deklarazioak, eta ikasleak edo guraso edo legezko ordezkariak aurkeztu ahal izan dituztenak- balioetsiko ditu, baita aurkeztutako alegazioak ere; gertakizunak argitzeko eta balioesteko beharrezko iritzitako jardunak gauzatu ditu, eta ondorioren bat ateratzen duenean, ebazpen-proposamena idatzita aurkeztuko du.

2.– Proposamena idatzi ostean, horren berri emango zaio ikasleari. Horretarako, entzunaldirako ezarri diren epe nahiz baldintza beretan deituko zaio, berriz, ikasleari. Alegazio berririk izanez gero, jaso egingo dira, eta proposamena zuzendariari helaraziko zaio, aldaketarik gabe eta jasotako alegazio berriekin batera.

79. artikulua.– Ohiz kanpoko prozedura amaitzeko epea.

1.– Ohiz kanpoko prozedurari ekingo zitzaiola interesdunari eta, hala balegokio, interesdunaren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi zitzaien egunetik zenbatzen hasita, gehienez ere hamabost eguneko epean amaitu beharra dago ohiz kanpoko prozedura.

2.– Bi asteko epe horri abstentzioak edo arbuiazeak ebazteko erabili diren egunak gehituko zaizkio, baita ikasleak, haren gurasoek edo legezko ordezkariak eragin dituzten eta beharrezkoak ez diren atzerapenetan galdu diren egunak ere.

3.– Ikertu beharreko ekintzen konplexutasunak edo antzerako inguruabarrek hala eskatuko balute, zuzendariak gehienez ere hamar egunetz luzatu ahal izango du prozedura amaitzeko epea.

4.– Epea luzaturik ebazpen proposamenik egongo ez balitz, prozedura igarotzat joko da, betiere, interesdunak edota haren gurasoek edo legezko ordezkariak eragindako atzerapenek sortua ez bada. Igarotze horrek ez du eragotziko delitu edo falta penaltzat har daitezkeen gertakariak edo ez-egiteak Fiskaltzari jakinarazi beharra, betiere, zigor arloan gertakaria edo ez-egitea preskribatu ez bada.

80. artikulua.– Espedientearen ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Ebazpenak arrazoitua izan beharko du beti, eta honako hauek bildu beharko ditu: ikasleari leporatu zaizkion gertakizunak; neurri zuzentzailea(k) ezartzeko arrazoiak; erantzukizuna aldatzen duten zirkunstantziak, hala badagokio; neurrien edukia eta neurriak zer unetatik aurrera aplikatuko diren; erreklamazioa zer Organori aurkeztu behar zaion, eta azken hori aurkezteko epea.

2.– Ikasleari eta, hala badagokio, ikaslearen guraso edo legezko ordezkariari ebazpenaren jakinarazpena helaraziko zaie.

3.– Ebazpen hori Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari zuzendariak egoki deritzon moduan jakinaraziko zaie.

4.– 64. artikuluan zehaztu diren kasuetan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari eta, hala badagokio, dagozkion Gizarte Zerbitzuei helaraziko zaie ebazpena.

5.5. XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Itundu gabeko ikastetxe pribatuak.

Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen 8/1985 Lege Organikoan eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legean ezarritako esparruan, itundu gabeko ikastetxe pribatuek autonomia izango dute barne-araudia eta bizikidetzara-arauek ezartzeko, legeetan ikasleei onartzen zaizkien eskubideak errespetatuta betiere.

Bigarrena.– Adin nagusiko ikasleak dituzten ikastetxeetarako egokitzapena. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Dekretu honen III. kapituluan xedaturikoa moldatuko du, honako hauen egoerara egokitzeko: Hizkuntza Eskola Ofizialen; Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzarako eta Batxilergoko Ikastetxeen; Gau Eskolen; Lanbide Heziketako Goi-mailako Zikloak, Irakaskuntza Artistikoetako Goi-mailako Zikloak eta Kirol Irakaskuntzetako Goi-mailako Zikloak soilik ematen dituzten ikastetxeen; egoitza-zentroen; eta, oro har, ikasleak adinez nagusiak diren kasu guztien egoeretara.

Hirugarrena.– Irakasleentzako laguntza eta defentsa juridikoa.

1.– Ibaizabal Ikastolak aholkularitza juridikoa eskatu ahal izango du irakaskuntzako eta eskolako zereginetan sortzen diren prozesuetan, betiere irakasleen jarduna ikastetxeko Bizikidetza Planaren eduki eta espirituarekin bat etorri gero, eta Euskal Autonomia Erkidegoak kasu horietarako ematen duen defentsa juridikoa bazter utzi gabe.

2.– Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak egoki deritzon neurriak ezarriko ditu ikasleen gurasoen edo ikasleen beste senitarteko batzuen erasoetatik irakasleak babesteko.

Laugarrena.– Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren edo Barne Araudiaren aldaketa.

1.– Dekretu hau argitaratzen denetik kontatzen hasita sei hilabeteko epean, zati batean ala osorik fondo publikoekin finantzaturako ikastetxeek egokitu beharko dute beren Antolakuntza eta Jarduera Araudia edo Barne Araudia Dekretu honetan xedatutakoari, beharrezko aldaketak eginda eta bizikidetza-plana betetzea bermatzen duten aldaketak barnean hartuta.

2.– Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren edo Barne Araudiaren idazketa berria egiteko batzorde bat eratzten bada ikastetxean Ordezkaritza Organo Gorenaren edo Eskola Kontseiluaren baldintza eta ordezkaritza-proporzio berberak errespetatu beharko dira, eta horretarako boto haztatuko sistema ezarri ahalko da.

3.– Ikastetxe publikoen Ordezkaritza Organo Gorenek Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren edo Barne Araudiaren idazketa berria onartu aurretik, edo itundutako ikastetxeek Barne Araudiaren idazketa berria onartu aurretik, ikastetxe bakoitzean ezarritako eta legez osatutako guraso-elkarteei nahiz ikasle-elkarteei eta ikasleen taldeko organoari entzun beharko zaie.

Bosgarrena.– Ikasleek erabiltzen duten hezkuntzako irakas-hizkuntza edozein izanda, Dekretu honetan araututako prozeduretan gurasoen edo legezko ordezkarien esku-hartzeak eta haiei bidaltzen zaizkien jakinarazpenak aukeratzen duten Hizkuntza Ofizialean egingo dira, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 5. eta 6. artikuluekin bat etorri.

Seigarrena.– Ebazpen judizial batek guraso-ahala ezkontide bakar bati ematen dionean edo guraso-ahalaren funtzioak nolabait bi ezkontideen artean banatzen duenean izan ezik, Dekretu honetan araututako prozeduretako esku-hartzeak biek egin ahalko dituzte, edo, bestela, horietako bakar batek, betiere beste ezkontidea ados dagoela kontuan hartuta, Kode Zibilaren 156. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorri.

Zazpigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak laguntza eta orientazioa emango die ikastetxeei Dekretu honetako 5. artikuluan aipatzen diren bizikidetza planak idatz ditzaten. Horrez gain, Sail horrek gatazkak ebazteko aukerako bideak erabiltzea sustatuko du, besteak beste, bitartekaritza prozedurak erabiltzea sustatuko du ikastetxeen eta ikasleen familien artean elkarlan handiagoa lortzeko.

Zortzigarrena.– Dekretu honetan arautu diren prozeduretan sortutako agiriak, gorde behar diren denbora-tartean, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera zaindu beharko dira, baita Lege hori garatzeko erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege dekretuan xedatutakoaren arabera ere. Ikastetxe publikoei dagokienean, Datu Pertsonalak gordetzeko Titulartasun Publikoko Fitxategien gaineko nahiz Datu Pertsonalak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duen 308/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera zaindu beharko dira.

5.6. XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.– Bertaratze-hutsegite kolektiboen erregimen iragankorra.

Ikastetxeek ez badute betetzen Dekretu honen 13.3 artikuluan aurreikusitakoa, apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuaren —Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako EHAA - 2008ko abenduak 16, asteartea N.º 240 ZK. BOPV - martes 16 de diciembre de 2008 30977ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoaren—19.3 artikuluan aurreikusitakoari atxikiko zaizkio, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera soilik aplikatuko da.

Bigarrena.– Aldez aurretik abiarazitako prozedurak.

Dekretu hau indarrean jartzen denean jada abiarazitako diziplina-espedienteek erabat amaitu arte jarraituko dute, unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorritz, eta betiere, Dekretu hau aplikatuta, interesdunek edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez kontrakoa adierazten ez badute.

Ibaizabal Ikastola

Dokumentu hau 2024ko irailean berrikusi zen azken aldiz.



ibaizabal
IKASTOLA

DURANGALDEKO IBAIZABAL KOOP. ELK.

IFK: F48980320
Intxaurrondo kalea 54
48200 Durango (Bizkaia)
zuzendaria@ibaizabalikastola.eus



BIZIKIDETZAREN ALDERDI OROKORRAK ETA PROZEDURA ZUZENTZAILEAREN GIDA.

201/2008 Dekretua. EAEko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.



ALDERDI OROKORRAK

2. artikulua: Eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko printzipio orokorrak:

a).- Ikasle guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte adinaren eta ikasketen mailaren arabera.

b).- Ikasleek beren eskubideak baliatuko dituzte betebeharrak betetzea eta gainerako kideen eskubideak errespetatzea bazteaz utzi gabe.

c).- Hezkuntza komunitateko kideek dekretu honetan bildu diren eskubideak errespetatu behar dituzte beste guztien eskubideen errespetua izango da muga eskubideez baliatzerakoan.

3. artikulua. Printzipio orokorrak. Ikasleek beren betebeharrak ez betetzean izandako jokabideak zuzentzeko:

a).- Ikasleek ez betetzea beti hartuko da, gutxienez, jokabide desegokitzat. Gainerako kideei beren eskubideak baliatzea eta bete beharrak betetze eragozten dien neurrian, bizikidetzaren kontrako jokabideetat edo kalte larritzat hartuko dira.

b).- Jokabide guztiak lehen bait lehen zuzendu beharko dira. Zuzendu beharreko jokabidearekin lotutako neurrien bitartez.

c).- Neurri zuzentzaileak neurri hezigarriak izan behar dituzte.

d).- Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunaren printzipioan ezarriko dira, adizkidetzearen eta kalte ordainaren bidez irtenbidea lortzeari emango zaio lehentasuna.

4. artikulua. Dekretu honek tipifikatu gabeko neurriak aplikatzeko debekua:

a).- Ikasleari ezin zaio dekretu honetan ezarrita ez dagoen jokabide batekiko neurri zuzentzaileak aplikatu.

b).- Ikasturte bakoitzaren hasieran hezkuntza komunitate osoak zer jokabide zuzenduko diren jakin dezan, dokumentu honetan bildutako bizikidetzaren arauak ezagutzera emango dizkie irakasle, ikasle eta familia edota legezko ordezkariari.



IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

ESKUBIDEAK	BETEBEHARRAK
<p>6. Artikulua: Hezkuntza integrala izateko eskubidea.</p> <ul style="list-style-type: none">- Bere nortasuna guztiz garatzeko eskubidea.- Oinarrizko gaitasuna zientziaren eta kulturaren arloko edukietan.- Lan ohitura intelektual eta teknikoa izatea.- Garapen armoniatsua bultzatzeko afektibotasuna, autonomia pertsonala, autoestimua, besteekiko eta inguruaz harremana izateko gaitasuna.- Jarduera profesional, intelektual nahiz aisiakoetan jarduteko gaikuntza.- Ikaskuntza amaitu ondoren bi hizkuntza ofizilaetan komunikatzeko gaitasuna izatea.	<p>21. Artikulua: Ikasteko betebeharra</p> <ul style="list-style-type: none">- Bere gaitasun guztiak garatzeko ikastea eta ahalegina egiteko behar adineko lana eginez eta interesa agertuz. Lan giro egokia sortzen eta giro honi eusten lagundu behar du. Bere portaerarekin ez da eragozpenik sortuko. <p>22. Artikulua: Prestakuntza -jardueretan parte hartzeko betebeharra.</p> <ul style="list-style-type: none">- Prestakuntza jardueretan, interesez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan taldeetan lagunduz parte hartu behar dute. <p>23. Artikulua: bertaratzeko betebeharra.</p> <ul style="list-style-type: none">- Egunero joan behar dute ikastetxera puntualtasunez, eta justifikatu gabeko absentzirik gabe.
<p>7. Artikulua: Ikasle adingabeen eskubidea arreta berehala jasotzeko.</p> <ul style="list-style-type: none">- Beharrezkoa da tratu txarrak edo haurren babesik gabeko edo arrisku egoeren berri ematea arlo horretan eskumena duten Herri Administrazioei, fiskaltzari edo Agintaritzak judizialari.- Absentismo maila handia bada, dagokion erakundeei jakinarazi beharko zaie.- Diskrezioz jardungo da, eta ikasle adingabearen bizitza pribatuan sartzea saihestuko da beharrezkotzat ez bada.- Emakumeen eta haurren aurkako indarkeria zantzurik atzematen badute, irakasleak behartuta egongo dira zantzu horiek ikastetzeko Gobernu Organoei jakinaraztea.	<p>24. Artikulua: Bizikidetzaren errazteko betebeharra.</p> <ul style="list-style-type: none">- Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute eskola bizikidetzaren hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko.- barne araudian bildutako arauak jakin behar dituzte eta hezkuntza komunitateko kide guztien eskubideak errespetatu.- Sortzen diren gatazkek konpontzeko metodo baketsuak erabiliko dituzte, tolerantziaz eta elkartzarekin jokatu.- Ikasleek bizikidetzarentzat kaltegarriak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzen lagundu behar dute lekuko gisa deklaratu.

8. artikulua: Ikasle adingabeek ikastetxearen babesa jasotzeko duten eskubidea.

- Ikasleek Ikastolak ohorea, intimitatea eta irudi propio babesteko eskubidea dute.
- Ikastolako Gobernu Organoek beharrezko neurriak hartuko dituzte ikasleen ohorerako, intimitaterako eta irudi proppiorako eskubidei inork eraso edo klaterik egin ez diezaien.
- Ikastolak zainduko du ikasleen bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan ikastolako arrazoirik gabe edo legez kanpo ez dela inor sartzen.
- Familiei ikasleen bitartez helaraziko zaizkie soilik Ikastolako bizimoduari, ikaskuntza jarduerari eta tutoretza ekintza buruzko jakinarazpenak.
- Familiei buruz eskuratzen diren datu pribatua guztiak, behar den diskrezioaz erabiliko dira.
- Ikastolak komunikabideetan ikasleei buruzko informazioa hedatzea eta haien irudia edo izena erabiltzea eragotziko da.

9. artikulua: Errendimendu akademikoaren balioespen objetiboa izateko eskubidea.

- Eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objetibitasunez aintzat hartue eta balioetsi diezaieten.
- Ikasleek ebaluazio irizpideak, helburuak eta edukiak ezagutuko dituzte.
- Ikasturte amaierako nahiz ikasturte bitarteko ebaluazio saioen ondotik, ikasleei, haien guraso edo legezko ordezkari, informazioa emango zaie.
- Azken kalifikazioaren gain eragina izango duten lanak, ariketak eta probak, zuzendu ondotik, ikusteko aukera bermatuko zaie.
- Azken kalifikazioen kontrako barne erreklamazio prozesua egotea bermatuko zaie. Prozedura hori betetzekoa da, dagokion hezkuntzako lurralde

25. artikulua. Pertsonen kontzientzia askatasuna errespetatzeko betebeharra.

- Ikasleek kide guztien kontzientzia askatasuna, erlijio eta moral siniesmenak, duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte inolako diskriminazioarik gabe.
- Ikasleek bere ikaskideen erabakiak errespetatu beharko dituzte ekintza kolektiboetan parte hartu nahi ez dutenean.
- Hezkuntza komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko ez dute ezin adierazpenik egingo.
- Ezin izango dute grabazio-baliabiderik erabili, ez bada ikastetxean programatutako jardueretan. Ezin izango dute inor grabatu hark nahi ez badu.

25. artikulua. Pertsonen kontzientzia askatasuna errespetatzeko betebeharra.

- Ikastetxeko antolamenduko, bizikidetzako eta diziiplina arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte, barne araudiko xedapenak osorik betez, ikastetxearen ideiak eta izaera errespetatuz, baita horrekin ados ez daudenean ere.

ordezkaritzara jo aurretik.

-Ikasturte osoan ebaluatzeko erabili diren, proba lan eta ariketa guztiak gorde beharko dira ezohiko azken deialdiko kalifikazioak erreklamazioak amaitu arte. Erreklamazioa egiten bada lan horiek guztiak, ikaslearenak zein gainerakoenak, gorde beharko dira konparaketa oinarri gisa, administrazio erabaki edo ekintza judizial bat gauzatu daitekeen bitartean.

10. artikulua. Eskola eta lanbide orientaziorako eskubidea.

-Ikasleek lanbide orientazioa jasotzeko eskubidea dute, ikasleen trebetasun, gaitasun, nahiz interesan oinarrituta.

-Ikastetxean sartzetik orientazioko zerbitzuak jasotzeko eskubidea dute, ikasketa planik egokiena, aukeratzeko, batez ere, maila edo ziklo amaieran.

-Aukerei buruzko aholkuak, enpleguari buruzko informazioa kontuan hartu behar da.

11. artikulua. osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea.

-Osotasun fisikoa eta morala errespetatu diezaizkien eskubidea dute. Duintasun pertsonala: ez zaie inoiz tratatu iraingirrik emango. Eraso fisiko edo moralaren aurrean babesa jasotzeko eskubidea dute.

-Ezin izango zaie zigor fisiko edo moralik ezarri.

-Jarduera akademikoa segurtasun, eta higiene baldintza egokietan egin beharko da. Ikasleek zalantza izpirik gabe jakin beharko dute edozein egoeratan zein irakaslerengana, arduradunengana jo dezaketen.

-Ikastetxeko gobernu organoek, irakasleek, eta langileek berdinen arteko tratatu txarrak ezabatzen lagunduko dute.

-Eskola eremuan, ez da alkohola edo bestelako drogarik kontsumitzen utziko.

12. artikulua. Kontzientzia askatasunerako eskubidea.

-Kontzientzia askatasuna, erlijio sinesmenak, nahiz sinismen moral eta ideologikoak errespetatzea.

-Ikastetxean ematen den irakaskuntzak inolako manipulazio ideologikorik ez izatea

bermatuko du ikastetxeak.

13. artikulua. Ikastetxeetan biltzeko, elkartzeko eta adierazteko eskubidea.

-Ikastetxean bildu ahal izango dira eskolako nahiz eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzeko, baita hezkuntza edo trebakuntza xede duten jarduerak gauzatzeko ere.

-Barne araudiak biltzeko jarraibideak arautuko ditu.

14 artikulua. Adierazpen askatasunerako eskubidea ikastetxetan

-Adierazpen askatasuneko eskubidea beren iritzia askatasunez bakarka zein taldeka adierazteko.

-Barne araudiak Adierazpen-askatasunerako jarraibideak arautuko ditu.

-Eskola eremutik ateratzeko gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute, adin txikikoak badira.

15. artikulua. Ikasleen elkartzeko eskubidea.

-Ikasleek elkartzeko, elkarteak, federazioak nahiz konfederazioak, osatzeko eskubide dute.

- Barne araudia jarraiki, ikastetxeak lokal egokiak utzi beharko dizkie, beti ere, azpiegiturak ezarritako mugak kontutan izanik eta jarduera akademikoa eten gabe.

16. artikulua. Parte hartzeko eskubidea.

- Ikastetxeko jardueretan parte hartzeko eskubidea dute, indarrean dauden araei jarraiki.

-Partaidetzarako organoetan, OOG-n edo Ekola Kontseiluan ordezkari izango direnei aholkua eman eta laguntza eskaintzea.

- Ordezkariak zuzeneko nahiz ixilpeko bozketaren bidez hautatuak izan behar dira.

- Parte hartzeko eskubidea Eskola Kontseilua eratzeko prozeduran zehaztutakoa izango da.

17. artikulua. Informazioa jasotzeko eskubidea.

-Ikasleek, adinaren eta heldutasun baldeintzen arabera, garapenerako

informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.

-Ikastetxeetako gobernu organoek haien eskubideak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia emango diete ikasleei.

17. artikulua. Informazioa jasotzeko eskubidea.

-Ikasleek, adinaren eta heldutasun baldeintzen arabera, garapenerako informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.

-Ikastetxeetako gobernu organoek haien eskubideak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia emango diete ikasleei.

-Ikastetxeetako ikasleak eskubidea dute informazioa jasotzeko, beren partaidetzarako, taldeko organo kideen eta Ordezkaritza Organo Goreneko edo Eskola Kontseiluko ordezkarien eskutik, bai ikastetxeko gaien inguruan, bai oro har, Hezkuntza sistemari dagozkion gaien inguruan.

18. artikulua. Aukera berdintasunerako eskubidea.

-Hainbat arlotako gabeziak eta desabantailak (pertsonalak, familia-arlokoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) konpentsatzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea dute ikasleek, batez ere hezkuntza premia bereziak badituzte.

-Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek beren beharren arabera arreta jaso beharko dute matrikulatuak dauden ikastetxeetan, ikastetxearen berezko baliabideekin.

-Ikastetxeek beste zerbitzu publikoekin eta udaleko, lurraldeetako nahiz Autonomia Erkidegoko beste zerbitzuekin harremanak izango dituzte ikasleen proiektuei erantzuteko.

19. artikulua. Gizarte babeserako eskubidea.

-Gizarte babesa jasotzeko eskubidea dute familia ezbeharren edo istripuen kasuan. Ikastetxeen esku dauden ospitaleko, etxeko eta terapeutikako hezkuntza-arreta baliabideen bidez.

-Babes neurriak jasotzeko berdinen arteko tratua txarren arteko kasuetan, bereziki

eskola jazarpeneko eta emakumeen aurkako erasoetan. Jazarleak ikastetxeaz aldatzea berehala proposatu dezakete edo nahiago badute, biktimak beraiek lekuz aldatu.

-Laguntzako psikologikorako eskubidea.

20. artikulua. Ikastetxean ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea.

-Ikasle guztiek ezagutu behar dituzte ordenamenduan aitortzen zaizkien eskubideak.

-Ikastetxeko gobernu organoek, baita irakasleek ere, aurreko artikuluetan adierazitako eskubide guztiak eta legeek nahiz nazioarteko itunek eskaintzen dizkieten eskubide guztiak baliatzeko aukera bermatuko dute.

- Gobernu organoek eta irakasleek diskriminazio egoerarik gerta ez dadin arduratuko dira. Edozein zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozialengatik diskriminaziorik egin gabe.



JOKABIDE DESEGOKIAK

JOKABIDE DESEGOKIAK (30. artikulua)	JOKABIDEEN ZUZENKETA (34. artikulua)
<p>a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.</p> <p>b) Justifikatu gabeko hutsegiteak</p> <p>c) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntzako-komunitateko gainerako kideen gauzei narridurak eragitea, zabarkeriagarik gertatzen denean.</p> <p>d) Irakasleek edo agintari ekonomikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mesprexatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.</p> <p>e) Hezkuntzako komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.</p> <p>f) Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoa, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.</p> <p>g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.</p> <p>h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.</p> <p>i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketen</p>	<p>a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.</p> <p>b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabide desegokia izan dela onartzea.</p> <p>c) Jokabide eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.</p> <p>d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.</p>

<p>kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.</p> <p>j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.</p> <p>k) Ikaskideen gauzak erabiltzea, haien borondatearen aurka.</p> <p>l) Norberaren betebeharren beste edozein ez betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren aurkako jokabide gisa sailkatuta ez badago.</p>	
---	--

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK

<p style="text-align: center;">BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (31. artikulua)</p>	<p style="text-align: center;">JOKABIDEEN ZUZENKETA (35. artikulua)</p>
<p>a) Ikastetxeetako kide bakarreko agente-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.</p> <p>b) Ikaskideen edo hezkuntza</p>	<p>a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.</p> <p>b) Kargu hartze idatzia.</p> <p>c) Kargu hartzea, ikasleen gurasoak edo lege ordezkariak bertan direla.</p>

komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak; betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.

- c) Azterketa ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek hedatzea, saltzea edo erostea.
- d) Noten buletinetan edo gurasoentzako edo legezko ordezkarietzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzailerei ez ematea edo erantzunak aldatzea.
- e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokaleo, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.
- f) Ikastetxelko Ordezkaritza Organo Gorenak edo eskola kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.
- g) Pertsonak ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio baliabideak erabiliz.
- h) beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera beharzte; betiere, indarkeriarik erabili gabe.
- i) Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan,

- d) **Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea**, aldi baterako edo behin betiko.
- e) **Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea**, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak; betiere, hiru hilabetez gehienez ere. Lan edo zeregin horiek lotura izan behar dute ikasleak bizikidetzaren aurka izandako jokabidearekin.
- f) **Gai bateko edo batzuetako eskoletara joateko eskubidea etetea**, harik eta ikaslearen gurasoekin edo lege-ordezkariekin elkarrizketa bat egiten den arte. Eskubide-etendura horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun.
- g) **Eskolaz kanpoko jardueratan parte hartzeko eskubidea etetea**, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.
- h) **Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea**, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. **Nolanahi ere, eskola orduetan, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.**
- i) **Jangela zerbitzua edo garraio zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea**, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte; betiere, bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek

<p>bai bakarka bai taldean, eta, betiere, bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.</p> <p>j) Hezkuntza komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.</p> <p>k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.</p> <p>l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten dutn jokabideetat hartzen ez bada.</p> <p>m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere, aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.</p> <p>n) Ikasleen betebeharrak ez betezea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenak sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan jasota ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.</p>	<p>erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.</p> <p>ADI! g).- h).- eta i).- idatz zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik a).- f).- idatz zatietan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.</p>
--	--



BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDE LARRIAK

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DION JOKABIDEAK (32. Artikulua)	JOKABIDEEN ZUZENKETA (36. artikulua)
<p>a) Ikastetxeetako gobernu-organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik ezako egintza edo desobedientzia ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laidogarri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: qhoz, idaki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus entzutekoak erabiliz.</p> <p>b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa eta psikikoa, osasun egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.</p> <p>c) Jazarpen sexista, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako, ezarritako definizioa aintzat hartuta: Nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo laidoztatuta sentiarazteko giroa sortzea bada.</p> <p>d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.</p>	<p>1)- Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko, aurreko dioten jokabideak bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:</p> <p>a) Lan hezigarriak eskola ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko, lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.</p> <p>b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru edkola egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.</p> <p>c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko; betiere, lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.</p> <p>d) Eskolaz kanpoko jardueratan edo ikastetxetik kanpo jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola garraio zerbitzua edo jangela zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.</p>

<p>e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osasun pertsonalerako oso kategarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.</p> <p>f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.</p> <p>g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.</p> <p>h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka, bai taldean.</p> <p>i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan, betiere, hezkuntza komunitateko edozein kidentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.</p> <p>j) Grabazio baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldez aurretik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakoak nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.</p> <p>k) Ikastetxeko jarduneko egintzetan, beste edonoren izena erabilita aritzea.</p> <p>l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak</p>	<p>2)- artikulua honetako b).-, c).- eta d).- idatz zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta a).- idatz zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzerik lortu ez bada.</p> <p>3)- Ikasleren bat, aurretiaz, zuzendua izan bada ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak izateagatik, ikastetxeko zuzendariak aukera izango du, 28 artikulua</p> <div data-bbox="810 712 1380 2018" style="border: 1px solid black; padding: 10px; margin: 10px auto; width: 80%;"> <p style="text-align: center;">IKASTETXEZ ALDATZEKO PROPOSAMENA (37. artikulua)</p> <p>1.- Ikastetxe aldatzeko proposamena ondoko kasu hauetan proposatu ahalko da.</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ikasleari gutxienez bi aldiz zuzendu bazaio, betiere n).- idatz zatian zehaztutakoa salbu, eta lehen zuzenketa gauzatu zenetik ehun eta hogeit hamar egun baino gehiago igaro ez badira. b) Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragin dion jokabideak berdinen arteko tratu txarrak edo sexuagatiko jazarpenera berekin badakar. c) Ikastetxeko irakasle bati eraso egitea. d) Salbuespenez, hezkuntza komunitateko beste kide batzuei eraso larriak egin izana. <p>2.- Aurreko atalean zehaztu diren jokabideetakoren baten erantzule den ikaslea adinez handi bada edo Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko ikasketak gauzatzen ari bada, iakaslea urrutiko hezkuntzako ikastetxe batera, gureko ikastetxe batera edo pertsona helduen hezkuntzako ikastetxe batera aldatzea proposatu ahalko da.</p> </div>
--	--

<p>ezkutatzea edo baimenik gabe arteratzea ere.</p> <p>m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.</p> <p>n) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein artikulua, artikulua horren m).- idatz zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, ggurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.</p> <p>o) Norberaren betebeharral ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerak, osotasun fisikorako, adieazpen askatasunerako, parte hartzeko, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideena.</p>	<p>3.- Ikaslea ikastetxez aldatzeko proposamena Lurraldeko hezkuntza Ordezkariari helaraziko zaio. Azken horrek Hezkuntzako Ikuskaritzari txostena bidali eta irtenbiderik egokiena zein den erabakiko du.</p>
---	--

**NEURRI ZUZENTZAILEAK PROPORZIONALTASUNEZ APLIKATZEN
DIRELA BERMATZEKO IRIZPIDEAK.
(41. artikulua)**

Ezin dira aplikatu Dekretuak aitortutako eskubideen aurkako jokabideak zuzentzeko neurriak, baldin eta ez badira aintzat hartzen, aurretiaz, kasu bakoiztean ematen diren inguruabarrak. Berariaz inguruabar hauek aztertu behar dira:

- a) Zer-nolako kaltea eragiten duten jokabideek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideen eta betebeharren egikaritzan.
- b) Jokabide horiengatik edo horien ondorioz, hezkuntza komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo agintean jasan duten kaltea edo jasan dezaketena.



- c) Ikasleen jokabidean eragina duten inguruabar pertsonalak eta sozialak, behar bezala baloratzeko zer-nolako garrantzia duen haien betebeharren urrapenak eta 3.3 artikuluan (*“Neurri zuzentzaileak helburu hezigarria izango dute, batez ere, hala zuzendu behar den jokabidea egin duen ikaslearentzat, nola gainerako ikasleentzat. Neurri zuzentzaileak hezkuntza jardunaren baitan beteko dira, hainbat arlotako oinarrizko gaitasunak lortzen laguntzeko, hala nola gizarte eta herritartasun arlokoak nahiz autonomia eta ekimen pertsonalaren arlokoak”*) Adierazitako oinarrizko gaitasunetan izan ditzakeen gabeziak.
- d) *Jokabidearen ekintzak egiteko gertatu diren inguruabarrak.*

ERANTZUNKIZUNA ARINTZEN DUTEN INGURUABARRAK

- a) Zuzentzea merezi duen jokabidea desegokitzat berehala onartzea.
- b) Aurretiaz neurri zuzentzaileak jaso ez izana.
- c) Materialari edo ondasun higigarriei edo higiezinei kalteak eagin bazaizkio, kalte horiek eskola ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.
- d) Jendeaurrean barkamena eskatzea.
- e) Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez zuela erakustea.
- f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

ERANTZUNKIZUNA LARRITZEN DUTEN INGURUABARRAK

Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adin txikiagoak, minusbaliatuak,



ahalmen fisiko txikiagoak, ikastetxera etorri berriak, edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.

- a) Hutsegitea nahita egina izatea.
- b) Hutsegitea aldez aurretik pentsatu ondoren edo jakinaren gainean egitea.
- c) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuilatu izana.
- d) Eskola arloko ordezkaritza kargua gehiegikeriaz baliatzea, jokabidea zuzentzea eragin duten ekintzak egiteko.

PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA ADISKIDETZEA GERTATU DELAKO

1.- Adiskidetzetik gertatzen bada, eten egingo da prozedura. Adiskidetzea izango da, gertakari hauek ematen badira:

- a) Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea bizikidetzaren aurkakoa dela edo bizikidetzari kale larriak eragiten dizkiola, eta, berariaz, urratu egin dituela hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubideak.
- b) Ikasleak barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.
- c) Kaltetua izan den pertsonak, edo kasuan-kasuan, ikastetxeko organo eskudunak barkamena onartzea.
- d) Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.

2.- Adiskidetzeak ez du bertan behera utziko prozedura 37. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak (ikus 37. artikulua).



PROZEDURA BERTAN BEHERA UZTEA JOKABIDEA FAMILIA EREMUAN ZUZENTZEAGATIK (46. artikulua)

Prozedura bertan behera uzteko aukera izango da, baldin eta, zuzendariaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzentzen ari bada familia-eremuan. Ezingo da halakorik egin, jokabidea 37. artikuluan adierazitakoren bat baldin bada.

NEURRI ZUZENTZAILEAK ETEN ARINDU EDO BARKATZEA (47. artikulua)

1.- Kaltetutako pertsonen entzun ondoren, aplikaturiko neurrien baldintzapeko etetea erabaki dezake zuzendariak, baita betetzealdia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizioz edo interesdunak nahiz, azken hori adin txikikoa bada, bere lege ordezkariak eskatuta; betiere, aldez aurretik, ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela egiaztatuz gero.

2.- Zuzendu beharreko jokabideak berriz gertatuz gero, berrerortzetat hartuko da, zigorra bertan behera gertatuta ere.

3.- Jakinarazi behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari neurri zuzentzaileak bertan behera utzi direla arrazoi oriek direla medio.

BIZIKIDETZA -KONPROMISO HEZIGARRIAK (48. artikulua)

1.- Kasu guztietan, kaltetuak barkamena onartu ez dutelako adiskidetzerik lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak bizikidetza konpromiso hezigarria sinatzen badu; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu beharko dute.

2.- Bizikidetza konpromiso hezigarrietan, honako hauek bildu beharko dira, behar bezala zehaztuta, baita denboraren aldetik ere: Bizikidetzari buruzko



prestakuntza jardunak, eta bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko eta horien prebentzioarako gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, eurek edo erakunde, ikastetxe edo pertsona egokien bidez gauzatuko dituztenak, hain zuzen ere. Era berean, ikastetxearekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak bildu beharko dira.

3.- Ez badira betetzen bizikidetzaren konpromiso hezigarriak, berehala aplikatuko dira etendako neurri zuzentzaileak.

NEURRI ZUZENTZAILEEN XEDAPEN OROKORRAK

1.- Irakasle guztiek eskumena dute berehala zuzentzeko ikasleen jokabide desagokiak, zaintzapean dauzkatenean gelan edo ikastetxeko beste instalazio batzuetan, edo handik kanpo (50.a art)

2.- Irakasle guztiek, beren aurrean bizikidetzaren kontrako jokabide bat gertatzen bada, edo bizikidetzari klase larria egiten diona, eskumena daukate ikaslea unean bertan hitzez ohartarazteko, bai eta bizikidetzaren arduradunarengana bidaltzeko ere, eta honek hala erabakiko balu, zuzendariarengana bidaltzeko ere bai, edo ikasketa buruarengana, edo une horretan ikastetxearen ardurabere gain duen zuzendaritza taldeko kide batengana.

3.- Zuzendariak du bizikidetzaren kontrako jokabideak edo hari kalte larria egiten diotenak zuzentzeko eskumena.

4.- Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak du zuzendariaren arabakiak berraztertze eskumena.

5.- Denbora igarotzeagatik prozedura hasteko debekua (52. art):

- Bizikidetzari kalte larria egin zion jokabidea gertatu zenetik 120 egunetik gora igaro badira.
- Bizikidetzaren kontrako jokabidea gertatu zenetik 60 egunetik gora igaro badira.



- Jokabide desagokia gertatu zenetik 20 egunetik gora igarobadira.

6.- Neurri zuzentzailearen aplikazioa (53. art)

- Bizikidetzaren kontrakoak diren edo kalte larria egiten dioten jokabideen kasuan, Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan erreklamazioa jartzeko epea bukatzen den unean aplikatzen ahal izango dira. Erreklamazioa egiteko 3 eskola egun ditu ebazpena eman eta gero.
- Jokabide desagokien kasuan, erabakitzen diren unetik aurrera.

7.- dekretuan jasotako prozedurako ekitaldi bakoitzaren jakinarazpenei dagokienez (54. art), ekitaldia egin ondoko lehen eskola eguna bukatu baino lehen jakinarazi beharko dira.

Dekretuko prozedurekin zerikusia duten erreklamazioak jartzeko epea hiru egunekoa izango da.

Jakinarazpenak eta zitazioak edozein bide erabiliz ahal izango dira, baldin eta hartzaileak jaso dituztela egiaztatzeko modua ematen badute.

8.- Jokabideei buruzko datuak (55. art) prozeduraren dokumentazioan baino ez dira agertuko. Ez dira idatziko inongo erregistro iraunkorretan, eta gerta liteke beste ikastetxe batera aldatzea.

Nolanahi ere, bizikidetzaren kontrako jokabideen prozeduretan, dokumentazioa apurtu egingo da haiek gertatu diren ikasturtea amaitutakoan eta bizikidetzari klase larria egiten dioten jokabideetan, prozedura abiarazi eta hurrengo ikasturtearen amaieran apurtu beharko da. Prozedura guztietan, haietan esku hartzen duten pertsonen eskubide hauek zaindu beharko dira: ohorea, duintasuna, intimitatea eta norberaren irudia.

9.- Zuzendariaren erabakia erreklamatu ahal izango da (56. art.) Ordezkaritza Organo Gorenean edo Eskola Kontseiluan, hiru eguneko epean. Ikasleak erabaki horren aurkako erreklamazioa jarri ahal izango dio kasuan kasuko Lurralde-ordezkaritari erabakia jaso eta hiru eguneko epean.

Erreklamazioa ezetsia bada, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango dio hezkuntza-sailburuordeari, erreklamazioaren ebazpenaren jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

URRATSAK

59. art.

JOKABIDE GAITSESGARRIAREN DESKRIBAPENA.



DEKRETUAK EDO BARNE ARAUDIAREN ARABERA BIZIKIDETZAREN KONTRAKOAK DEN EDO HARI KALTE LARRIA EGITEN DION JOKABIDEA IZATEA.



DEKRETUAREN ARABERA APLIKA LITEZKEEN NEURRIAK



NEURRIAREN APLIKAZIOA ERABAKITZEKO ORGANO ESKUDUNA.



DEKRETUAN AURREIKUSITAKO ADISKIDETZE (44. art) EDO KONPONKETA BIDEZKO ETETE (45. art) KASUAK.



ENTZUNALDIA (62. art).

Kasu guztietan , beharrezkoa izango da ikaslearekin entzunaldia egitea. Adingabeek entzunaldian gurasoek edo mlegezko ordezkariak lagunduta egoteko eskubidea dute. Haien presentzia derrigorrezkoa izango da kasu hauetan: jokabideak larriki kaltegarriak direnean; eskolaz kanpoko jardueretan edo jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea aldi batez galtzen denean ; eta garraio eta/edo jangela zerbitzuak erabiltzeko eskubidea etetea gertatzen denean

ENTZUNALDIA jakinarazi eta HURRENGO ESKOLA EGUNEAN EGINGO DA eta gurasoen edo legezko ordezkarien presentzia aginduzkoa bada, gehienez hiru eguneko epean.



ERANSKINAK

Nik.....NAN
zenbakiduna bizikidetza arduradunarekin bilera bat izan dut nire jarrerak Ibaizabalen
izan ditzaken eragin negatiboak direla eta. Gertakariak honako hauek izan dira:

Durangon,